

GIZA ESKUBIDEAK GARAPEN LANKIDETZAN SARTZEKO GIDA METODOLOGIKOA

Arantza Chacón Ormazabal
Josu Oskoz Barbero
Bernardo García Izquierdo

2. argitaraldia, berrikusia, 2013ko ekaina, honek finantzatua:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bigarren argitaraldi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin egin da.

EGILEAK

Arantza Chacon Ormazabal Zuzenbidean lizentziatua da, eta SEADen Gasteizko Lagunen Elkartearen proiektuen arduraduna. “Giza Eskubideen egoera mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta” liburuaren koordinatzailea eta GARAPEN BIDEAN kolektiboko kidea, Giza Eskubide eta Garapenarentzako tailerra. Gidaren berrikusketa egin du bigarren argitaraldirako.

Josu Oskoz Barbero Zientzia Politikoetan lizentziatua da, eta Arabako Foru Aldundiko garapen-lankidetzarako teknikaria. “Giza Eskubideen egoera mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta” liburuaren koordinatzailea eta GARAPEN BIDEAN kolektiboko lankidea, Giza Eskubide eta Garapenarentzako tailerra.

Bernardo García Izquierdo Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Doktorea, eta ANESVAD Fundazioaren zuzendari nagusia da. Nazio Batuetako herrialdeetako taldeei zuzendutako taillerak errazten ditu giza eskubideen ikuspegia baterako programazio prozesuetan erabil ditzaten. Alerta Goiztiarra, Gatazken Prebentzioa eta Bakearen Finkapena, Giza laguntzaren kudeaketa, GKEen kudeaketa, Garapenaren Ekonomia, eta Enpresaren Gizarte Erantzukizunari buruzko hainbat argitalpenen autorea.

Argitaraldia: 1.a 2009ko abendua
2.a 2013ko urria

1. argitaraldiaren ©: Euskal Autonomia Erkidegoko adimnistrazioa
2. argitaraldiaren ©: UNESCO Etxea 2013 – Euskal Herriko Unesco Zentroa
Isozaki Atea
Elkarbizitzaren plaza
Uribitarte pasealekua, 12
2. lokala
48001 Bilbo
www.unescoetxea.org
2. argitaraldiaren eguneraketa: Arantza Chacón
2. argitaraldiaren koordinazioa: Jessica Dominguez
2. argitaraldiaren itzulpen eta zuzenketa lanak: Bakun s.l.
2. argitaraldiaren edizio grafikoa eta maketazioa: Roberto Gutierrez
2. argitaraldiaren inprimaketa: PRINTHAUS
2. argitaraldiaren lege-gordailua: BI-1436-2013

BIGARREN EDIZIOAREN AURKEZPENA

Gida honen bigarren argitaraldiak UNESCO Etxeak eta GARAPEN BIDEAN elkarteak giza eskubideen ikuspegiarekiko duten konpromisoari erantzuten dio; izan ere, beharrezkotzat jotzen dugu garapen-prozesuetan egunez egun lan egiten dugun erakundeontzat tresna erabilgarriak eskaintzea, eta horrenbestez, giza eskubideen ikuspegia aplikatzeko eta barneratzeko beharrezko dinamikak eskuragarri jartzea.

Hiru urte hauetan prestakuntzan jarraitu dugu lanean, erakundeen jardunean giza eskubideen ikuspegia txertatzen laguntzeko. Prestakuntza-prozesu horietan, gida honen hobekuntza txikiak proposatu dira, eta hobekuntza horiek jaso ditugu, hain zuzen, argitaraldi berri honetan. Adierazleak egiteko jarraibideak ere zabaldu dira, jarraipena eta ebaluazioa bereziki garrantzitsuak baitira ikuspegi honetan, betiere kontuak ematearen eta gardentasunaren aldeko benetako apustu baten baitan.

Prozesuan zehar, benetan aberasgarria izan da lan hau beste sektore batzuei ere zabaltzea, hori beharrezkotzat eta egokitzat jo baitugu bai garapenerako lankidetzan lan egiten dugunontzat bai hezkuntzaren arloan jarduten dutenentzat, bai eta, esate baterako, gure hiriak eta bizikidetzaren eremuak diseinatzen dituztenentzat ere.

Gure proposamena aurrera egiten jarraitzea da, eta estatuentzako tresna eta proposamenak (Nazio Batuen esparruan) eskaintzeko, erakundeen errealitatearekin bat etorritik, gizarte-eraldaketaren eragile nagusi izaki.

ESKER ONAK

Eskuartean daukazun lana bere egileen ahaleginaren ondorioa da alde batetik, baina lan horretako ezer ezin izango zen egin gure familien laguntzarik gabe; izan ere, gure familiek pazientzia handiz lagundu digute prozesu itxaropentsu eta hainbeste ordu “lapurto digun” prozesu honetan guztian.

Halaber, ezin ditugu ahaztu modu indibidualean edo beren elkarteen bitartez dokumentua kontu handiz irakurri duten eta dokumentu horri ekarpenak egin dizkioten pertsonak, hala nola SEADen Gasteizko Lagunen presidente Jesus Garay, Amnistia Internazionalako Andrés Krakenberger, Arabako Foru Aldundiko Fernando Martínez de Bujanda, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoko Juan Soroeta, Hegoako Gloria Guzman, Instituto de Estudios del Hambre erakundeko Enrique de Loma eta ECODEko Geert Demon.

Espero dugu gida honetan umiltasun osoz proposatzen denak ekarpenak egitea gogoeta-prozesuetan eta gure elkarreek mundu desberdin bat –pertsonek eta herri guztiek beren eskubideak onartuta ikusten dituen mundua– eraikitzen egunero egiten duten lanean. “En realidad lo único que nos hemos propuesto es cambiar el mundo, lo demás lo hemos ido improvisando” SIM..

GLOSARIOA

SIGLAK ESANAHIA

AAA	Akkrako Ekintza Agenda
ACNUDH	Giza Eskubideentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa
ACNUR	Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa
CAD	Garapenerako Laguntza Batzordea
CEPAL	Lantinoamerikako eta Karibeko NBen Batzorde Ekonomikoa
EBDH	Giza Eskubideetan oinarritutako ikuspegia
ECHO	Laguntza Humanitarioko Zuzendaritza Orokorra
ELI	Esparru Logikoaren Ikuspegia
NDF	Nazioarteko Diru Funtza
GOTEC	Groupe des ONG Travaillant en Education au Congo
HRBA	Human Right Based Approach (EBDH)
IVR-EPT	Guztiontzako Hezkuntzarako Bide Azkarraren Nazioarteko Ekimena
MONUC	Nazio Batuek Kongoko Errepublika Demokratikoan duten Misioa
NB	Nazio Batuak
OCDE	Lankidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundea
ODM	Milurteko Garapen Helburuak
LNE	Lanaren Nazioarteko Erakundea
MME	Merkataritzaren Munduko Erakundea
OME	Osasunaren Munduko Erakundea
NBE	Nazio Batuen Erakundea
PIDESC	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturelei buruzko Nazioarteko Ituna
PMA	Elikagaien Munduko Programa
PNUD	Garapenerako Nazio Batuen Programa
KED	Kongoko Errepublika Demokratikoa
SARW	South Africa Resource Watch
UA	Afrikar Batasuna
EB	Europar Batasuna
NB/UN	Nazio Batuak / United Nations
UNICEF	Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Fondoa
UNIFEM	Emakumeen Laguntzarako Nazio Batuen Fondoa

AURKIBIDEA

Sarrera	13
1. Zergatik izan behar da giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia gobernuz kanpoko garapenerako lankidetzan?	15
1.1. Garapen-lankidetzeta eta giza eskubideak esparru global batean	15
1.2. Gobernuz kanpoko lankidetzeta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren aurrean	24
1.3. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak dituen ahalmenak eta arriskuak lankidetzan	31
Kasu praktikoa	37
1. Aurretiazko fasea	40
2. Testuinguruaren azterketa	42
3. Kausen analisia	60
4. Zereginen analisia	68
5. Gaitasunen [urritasunen] analisia	73
6. Gaitasun-aldeen analisia	79
7. Aldeak desagerrarazteko garapen-lankidetzarako estrategiak	82
8. Prozesuaren balioespena – Jarraibide metodologikoak	96
Eranskinak	99
1. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta garapenerako eskubidea	101
2. Hezkuntza giza eskubide den aldetik	107
3. Giza eskubideak pobrezia murrizteko estrategietan sartzeko printzipioak eta jarraibideak. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren bulegoa	117
Bibliografia	121

SARRERA

1. ZERGATIK IZAN BEHAR DA GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO IKUSPEGIA GOBERNUZ KANPOKO GARAPENERAKO LANKIDETZAN?

1.1. Garapen-lankidetzaren eta giza eskubideak esparru global batean

Gida honen lehen edizioa 2009. urtearen hasieran argitaratu zen. Orduan, munduko biztanleriaren % 40 inguru pobreziaren mehatxupean bizi zen. 2013an, ordea, zifrak are larriagoak dira, nahiz eta, esaterako, Milurtekoko Garapen Helburuak¹ lortzeko Estatuek ezarritako datak gertu izan eta helburu horiek garapenarekin eta pobrezia errotik bukatzearekin estuki lotuta egon. PNUDen² arabera, 2.800 milioi pertsona, hau da, gutxi gorabehera munduko biztanleen erdiak, egunean 2 dolarrekin baino gutxiagorekin bizi dira (PPA dolarretan). Horietatik, 1.000 milioi egunean dolar batekin baino gutxiagorekin bizi dira. Hain errealitate zaurigarriak balio moral unibertsalei eta Estatuek hartutako konpromiso juridikoei egindako eta atzeratu ezin den erronka bat osatzen du, zalantzarik gabe, oparotasuneko eta garapen teknologikoko egungo munduan.

Paradoxa badirudi ere, guk uste baino pobre gehiago dago munduan. Munduko Bankuaren arabera, eta 2008ko datuak hartuz, garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen ia laurdenak (% 22ak) ezin ditu bere oinarritzko premiak ase. Eta biztanleen erdia baino gutxixeago (% 43ak), berriz, egunean 2

¹ Ikusi Nazio Batuek eta gizarte-erakundeek egindako datuak eta jarraipen-txostenak, Nazio Batuen web-orrietan eskuragarri daudenak, beste hainbat estekarekin batera (Garapenerako Nazio Batuen Programa, PNUD - <http://www.undp.org/content/undp/es/home/mdgoverview/> edo Nazio Batuen sistemaren jardunaren Ataria Milurteko Garapen Helburuei buruz - <http://www.un.org/es/millenniumgoals/>)

² Ikusi pobreziari buruz PNUDei berak sortutako datuak (2012ko zifrak kontuan hartuz), web-orri honetan argitaratuta daudenak: http://www.teamstoendpoverty.org/wq_pages/es/visages/chiffres.php

dolarrekin baino gutxiagorekin bizirautean saiatzen da. Horien artean gehienak emakumeak eta neskek dira.³

Datu horiek, gainera, zalantzan jartzen dituzte hainbat ekonomistek eta aktibista sozialek, hala nola Eric Toussaint-ek eta Thomas Pogge Columbiako Unibertsitateko irakasleak; azken horrek honako hau adierazten du: “Munduko Bankuko kalkulu-sistemak oso zalantzarriak dira. Hainbat arrazoik pentsarazten digute sistema sinisgarriago batekin joera negatiboagoa eta pobrezia askoz ere hedatuagoa ikusiko litzatekeela”.⁴

Nolanahi ere, eta guk alderdi horretan jarri nahi dugu arreta, Munduko Bankuko estatistikak fidagarriak ote diren edo ez galderatik haratago, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen **pobrezia soilik diru-sarreraren kontua dela, baizik eta dimentsio ekonomikoez gain dimentsio politikoak, juridikoak, sozialak eta abar hartzen dituela bere barnean.**

Gaur egun, adostasun handia dago pobrezia **baldintza duinetan bizitzeko behar diren gaitasunik eta aukerarik ez izatearekin lotuta dagoela dioen ideia**ren inguruan (hala nola, hezkuntza, partaidetza, osasuna, etxebizitza, elikadura-segurtasuna, elkartzeko eta biltzeko askatasuna, lan dezentea, eta abar; horiek guztiak nazioartean onartzen diren giza eskubideak dira).

Ikuspegi hori oinarri hartuta, argi dago agertu egin behar direla giza eskubideak lortzerakoan eta/edo gauzatzerakoan dauden desberdintasunak eta ezintasunak. Eskubide horiek ekinaren funtsezko elementuetan eta pobrezia-aren hedapenean eratzten dira. Aldi berean, horri esker praktika baztertzailak, boterea gauzatzearen bidegabeko antolaketa eta munduko, nazioko eta tokian tokiko bitartekoak adierazi eta zuzendu ditzakegu.

Estatistikak suntsitzailek dira. OMEk egindako azken azterlanaren arabera, Lesothon jaiotako neska baten bizi-itxaropena Japonian jaiotako neska batena baino 42 urte gutxiagokoa da. Suedian, 17.400 emakumeren artean baten bakarrik du haurdunaldian edo erditzean hiltzeko arriskua, Afganistanen ordea, 8tik batek du arrisku hori. Hortaz, gizarte-bidegabekeriaren ondorioz, jende asko hiltzen ari da planeta osoan, Nazio Batuek adierazten dutenaren arabera.

³ Ikusi Munduko Bankuaren datuak, 2008ko abuztuan argitaratu zirenak NBen web orrian (<http://www.un.org>). Aurreko zenbatekoa 2004koa da, eta horren arabera, 985 milioi pertsona bizi ziren dolar bat baino gutxiagorekin eguneko.

⁴ TOUSSAINT, Eric : “Un dollar par jour. Que savons-nous de la pauvreté dans le monde?” (<http://www.cadm.org/spip.php>). Ikusi, halaber, PARSSON, Adam: “Banco Mundial: ¿una disminución de la pobreza en el mundo?” (<http://noticiasdeabajo.wordpress.com/2012/03/17/banco-mundial-una-disminucion-de-la-pobreza-en-el-mundo/>)

Testuinguru horretan, eta laurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera, pobrezia giza eskubideen arazotzat hartuta egindako lehenengo azterlanekin ikusten da **zuzeneko harremana dagoela bi helburu horien artean: giza eskubideen sustapena eta pobrezia eta muturreko pobrezia aurkako borroka**. Louise Arbour⁵ Nazio Batuen goi-komisario ohiak zioenaren arabera, "giza eskubideak ukatzeak pobre izatearen definizioa osatzen du".

Hortaz, giza eskubideen sustapena (zatiezinak eta elkarren mendekoak direla onartuta) eta pobrezia aurkako borroka oso harreman estua duten bi helburu dira, eta elkar indartzen dute, besteak beste, Vienako 1993ko Deklarazioan⁶ eta Ekintza Programan eta 2000ko Milurteko Deklarazioan onartu zenaren arabera. Halaber, Idazkari Nagusiaren 2005eko Txostenak ("Askatasunari buruzko kontzeptu zabalagoa: garapena, segurtasuna eta giza eskubideak guztiontzat"⁷) eta 2005eko Munduko Biltzarraren Azken Dokumentuak⁸ berresten dute giza eskubideak oso garrantzizkoak direla pobrezia murrizteko eta Milurteko Deklarazioan azaldutako garapenerako helburuak lortzeko⁹.

Horrela onartzen du Europar Batasunak ere Garapenari buruzko 2005eko Europako Adostasunaren dokumentuan¹⁰ haxe adierazten baitu: "giza eskubideak babesteko alorrean aurrera egitea, gobernu ona izatea eta demokratizazioa funtsezkoak dira pobrezia murrizteko eta garapen iraunkorrerako".

Ildo horretatik, NBen Latinoamerikarako Batzorde Ekonomikoan (CEPAL, 2006) egindako azken azterlanean honako hau adierazten da: "eskubideen titulartasunak bideratu behar ditu politika publikoak. Garapena eskubide zibilen, politikoen, ekonomikoen, sozialen eta kulturalen arau-esparruaren arabera bideratu behar da, akordio lotesleetan (nazionalak nahiz nazioartekoak) gauzatuta".

Garapenerako Laguntza Batzordean (ELGA) ordezkaturako herrialde emaildek ere konpromiso hau hartu zuten 2007an: giza eskubideak modu era-

⁵ Gida honen lehen edizioa egin zen garai berean amaitu zen Louise Arbour andreak NBen Giza Eskubideen Goi Komisario kargua betetzerakoan zuen agintea. Arbour andreak, giza eskubideak pobrezia murrizteko estrategietan sartzearen aldeko bultzatzaile nekaezina, esker on handia mezezi du egin duen lanarengatik.

⁶ World Conference on Human Rights. Vienna, 14-25 June 1993. *Report of the World Conference on Human Rights. Report of the Secretary-General*. NU.Doc. A/CONF.157/24 (Part 1)

⁷ *Askatasunari buruzko kontzeptu zabalago bat: garapena, segurtasuna eta giza eskubideak guztiontzat*. Dok.-zk.: A/59/2005, 2005eko martxoaren 21ekoa.

⁸ *2005eko Munduko Biltzarraren Azken Dokumentua*. Dok.-zk.: A/RES/60/1, 2005eko urriaren 24koa.

⁹ *Milurteko Deklarazioa*. Dok.-zk.: A/RES/55/2, 2000ko irailaren 13koa.

¹⁰ Lehenengo aldiz, Kontseiluak, Parlamentuak eta Batzordeak hainbat balio, printzipio eta helburu komunak hartu zituzten EBko garapen-politikarako.

ginkorrangoan sustatzeko garapenean hainbat printzipio erabiliz. Printzipio horiek ekintza bateratua bereziki nabarmen den arlo eta jardueretan aplikatuko lirateke:

- Elkarrizketaren bitartez giza eskubideen betebeharren eta garapenaren lehenetsunaren artean dauden harremani buruzko ulermen komuna lortzea.
- Giza eskubideak babesteko arloak identifikatzea gobernu elkartuei dagokienez.
- Estatua eraikitzeko prozesuetan giza eskubideak babestea.
- Giza eskubideen eskaerak laguntzea.
- Diskriminaziorik eza gizarte inklusiboagoen eta egonkorragoen oinarri gisa sustatzea.
- Giza eskubideak kontuan hartzea elkarrekin bat egiteari eta laguntzeko tresnei buruzko erabakietan.
- Giza eskubideak eta laguntzaren eraginkortasunaren printzipioak elkarren artean indartzeko aukera kontuan hartzea.
- Ikuspegi bateratua eta mailakatua hartzea giza eskubideen egoerak okerrera egin duen kasuetan.
- Laguntzaren hazkundeak giza eskubideak hobeto egiten lagunduko duela bermatzea.

Duela gutxiago, Akkrako Ekintza Agendak (AAA) adierazi du pobrezia murrizteak eta giza eskubideek zeregin nagusia dutela garapenerako politike-tan, horretaz gain, nabarmendu dute giza eskubideek, genero-berdintasunak eta ingurumen-iraunkortasunak garrantzi handia duela emaitza iraunkorrak lortzeko. “Garapen-bidean dauden herrialdeek eta herrialde emaeleek bertutuko dute beren politikak eta programak genero-berdintasunari, giza eskubideei eta ingurumen-iraunkortasunari buruzko nazioarteko konpromisoekin frogatuta diseinatzea eta gauzatzea”¹¹.

Azkenik, 2008ko abenduaren 10ean, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 60. Urteurrenarekin batera, Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunaren (PIDESC) Hautazko Protokoloa hartu zen. Protokolo horretan mekanismo bat ezarri zen, eta horren bitartez, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak urratu zaizkien biktimek giza eskubideen urraketan aurkako baliabide eraginkorrak eskuratu ahal izango di-

¹¹ *Garapenaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako Hirugarren Foroa (HLF3), Akkra, Ghana, 2008ko iraila.*

tuzte nazioarteko eremuan. Louise Arbour NBERen Giza Eskubideen Goi Komisario ohiaren arabera, “lorpen handia da askotan *pobrezia*rekin eta *diskriminazio*arekin lotzen diren *abusuak azaltzeko* plataforma bat ematea ahalbidetuko baitu. Horretaz gain, mezu argi bat bidaltzen du, hau da, eskubide guztiak garrantzi bera dutela adierazten du”. (Ikus I. eranskina, *Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta garapenerako eskubidea*, 101. orrialdea.

Argi dago nazioarte-eremuan *erabateko adostasuna dagoela giza eskubideen sustapenaren eta pobrezia murrizteko estrategien artean zuzeneko lotura dagoelako ideiarengatik*.

Bestalde, datu objektiboek nahiz praktikak erakusten dute premietan edo zerbitzuak eskaintzean oinarritutako ikuspegiak ez dutela lortu pobrezia nabarmen jaistea, eta, horretaz gain, askotan generoarekiko “itsu” ageri izan direla.

Gobernuz kanpoko lankidetzaren proiektu eta -programa asko oinarritutako premiak betetzean eta premia horiek behar bezala betetzeko zerbitzuak ematean oinarritutako ikuspegi batetik egin eta ezarri izan dira.

Hala eta guztiz ere, “garapenaren teoria eta praktika bilakatzen diren heinean, egiaztatzen dugu premiak egotea eta horren ondoriozko zerbitzuak ematea, berez, ez dela pobrezia eta bidegabekeriari ekiteko modu iraunkorra eta gure erantzukizuna dela planteamendu horiek berriz aztertzea”¹² edo Victor Abramovich-ek¹³ dioenaren arabera, “hamarkada ugari igarotzea pertsonak laguntzeko programa sozialen onuradun hutsak direla pentsatuz eta ondoren eskubideen erabateko titularrak direla balioestea”.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak (GEOI) erakusten du pobrezia dimentsioei modu eraginkorragoan aurre egiteko aukera dagoela **garapenerako lankidetzan**. Horretarako, nahitaezkoa da premiak eta baliabideak ez ezik gaitasunak ere garatzea bizitza libre izateko¹⁴ (osasuntsu egoteko, ondo kokatuta eta ondo hezita egoteko askatasuna, ondo elikatzeko askatasuna, eta abar); horretaz gain, giza eskubideak eta horien ondorioz hirugarrenentzat sortutako obligazio juridikoak erabat gauzatzea.

¹² *Hezkuntzarako eskubideak: praktikazailerik eta aktibistentzako gida*, ActionAid International

¹³ ABRAMOVICH, Victor, “Dilemas actuales en la resolución de la pobreza”. Buenos Aires, 2006ko azaroa.

¹⁴ SEN, Amartya: *Desarrollo y Libertad*, Planeta, 2000.

Alde batera utzita izendapen egokienari¹⁵ buruz akademian sortutako eztabaida, eta arloan jarduten dutenek definizio bateratu bakarra erabiltzen ez duten arren, ia aho batez onartutako ezaugarrietatik definizio bat eratu daiteke, Nazio Batuen erakundeek hitzartutako erabakietatik abiatuz.

Horrela bada, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia giza garapenaren prozesurako marko kontzeptuala da; arau-ikuspegitik, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan oinarritzen da, eta jardutearen aldetik, berriz, giza eskubideak sustatzea eta babestea du helburu¹⁶.

GEOIren aldeko apustua egiteak berarekin dakar politika publiko guztietan giza eskubideak txertatzea; horrela, politiken arteko koherentziaren printzipioa¹⁷ beteko da, eta giza eskubideak programa politikoetan funts izatea bermatuko, bai eta haien garapen zehatza ere.

Nazio Batuen erakundeek¹⁸ oinarritzko ezaugarri multzo bat adostu dute, eta Stamford-en hitzartutako Ulermen Kolektiboan jasotzen dira.

NBEaren ulermen kolektiboa

1. Garapenerako lankidetzaren zerbitzura dauden programa eta politika guztiek eta laguntza teknikoak giza eskubideak egitea sustatu behar dute, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuetan ezarritako moduan.
2. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuetan dauden giza eskubideen estandar eta printzipio guztiek eta horietatik eratorritako printzipioek garapenerako lankidetzaren eta programazio guztia bideratzen dute sektore guztietan eta programazio-prozesuaren fase guztietan.

15 Lehen edizioan jasotzen den bezala, zenbait erakundek, administrazioak edo agentziak lege-ikuspegia ematen diote batez ere; beste batzuentzat, berriz, “giza eskubideetan oinarrituta” kontzeptuak erreferentziazko esparrua zabaltzeko bide ematen du, eta orain arte giza eskubideekin lotuta izan dena baino konpromiso eta esku-hartze zabalagoa hartzekoa. (Ikusi IDS Working Paper 234 zenbakian argitaratutako artikulua: “What is the rights-based approach all about? Perspectives from international development agencies”, Celestine Nyamu-Musembi and Andrea Cornwall)

16 ACNUDH, “Garapenerako lankidetzan giza eskubideek duten ikuspegiari buruz maiz egiten diren galderak”, 2006.

17 Ikusi GARAPENERAKO GKE-EN KOORDINAKUNDEA – SPAINIA: “Garapenerako politiken arteko koherentzia, ezin luzatuzko agenda”, 2010eko ekaina.

18 UNITED NATIONS: “The Human Rights Based Approach to Development Cooperation: Towards a Common Understanding among UN Agencies”, en Report from the Second Intergovernmental Workshop on Implementing a Human Rights-based Approach in the Context of UN Reform. Stamford, USA, May 5-7 2003.

3. Garapenerako lankidetzak “betebeharren titularren” gaitasunak hobetzen lagundu behar du beren obligazioak eta “eskubideen titularren” eskubi-deak erreklamatzeko dituzten gaitasunak betetzeko.

Hiru printzipio horiek oinarri hartuta, honako *ezaugarri hauek adostu ziren giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia duen programaziorako*¹⁹. Honako elementu hauek nahitaezkoak, espezifikoak eta bereziak dira giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batean:

- Ebaluazioa eta azterketa eskubideen titularrak diren pertsonen, kolektiboen edo entitateen giza eskubideen alorreko eskariak identifikatzeko eta betebeharren titularren giza eskubideen alorreko betebeharrak, baita eskubideak ez betetzeagatiko hurreneko, azpiko eta egiturazko kausak ere.
- Programek bi alor ebaluatzen dituzte; alde batetik, eskubideen titularrek zer gaitasun duten eskubide horiek bete daitezten eskatzeko eta, beste alde batetik, obligazioen titularrek zer gaitasun duten obligazio horiek betetzeko. Ondoren, estrategiak garatzen dituzte gaitasun horiek indartzeko.
- Programek jarraipena egiten dute eta emaitzak nahiz prozesuak ebaluatzen dituzte giza eskubideen arauak eta printzipioak oinarri hartuta.
- Programazioa giza eskubideen nazioarteko erakundeek eta mekanismoek emandako gomendioetan oinarritzen da.

Era berean, aipatutako Stamford-eko bileran giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batean nahitaezkoak diren honako “programaziorako jardunbide egoki” hauek identifikatu ziren:

- Pertsonak beren garapen propioko funtsezko eragiletzat hartzen dira eta ez ondasunen eta zerbitzuen hartzaile pasibotzat.
- Parte-hartzea bitartekoa eta helburua da.
- Estrategiek gaitu egiten dute, ez dute boterea gutxiagotzen.
- Emaitzei eta prozesuei jarraipena eta ebaluazioa egiten zaie.
- Analisiak alderdi interesdun guztiak biltzen ditu.
- Programek talde marjinatuetan, okerren daudenetan eta baztertuetan jartzen dute arreta.
- Garapen-prozesua tokiko erantzukizunaren zentzuan oinarrituta dago.
- Programen helburua pobrezia murriztea da.

¹⁹ JONSSON, Urban: “Un enfoque fundamentado en los derechos humanos para la programación del desarrollo”, 2004ko urria. Atenea Acebedok GARAPEN BIDEAN Elkarterako egin-dako itzulpen ez-ofiziala.

- Goranzko eta beheranzko ikuspegiak aplikatzen dira, sinergikoki.
- Egoeren analisiak garapenerako arazoen hurreneko, azpiko eta oinarri-zko kausak identifikatzeko balio du.
- Neur daitezkeen jomugak eta helburuak garrantzitsuak dira programa-zio-prozesuan.
- Aliantza estrategikoak garatzen dira eta horiei eusten zaie.
- Programek zuzeneko alderdi interesdun guztiei kontuak ematea babesten dute.

NBEren agentzia gehienek adostutako *ulertze kolektibo hori oinarri hartuta*, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin diseinatutako lankidetzak ekintzetan ez dira pertsonen premiak soilik ezarri behar, baizik eta horretaz gain, eta batez ere, pertsonen eskubideak errespetatu, babestu eta bete behar dira, eta, horrela, eskubide horien titularren eta dagozkien obligazioen titularren arteko harremana ezartzen da. Azken titular horiek batez ere gobernuak dira eta horiei eskatu behar zaie beren erantzukizuna beren gain hartzea eta kontuak azaltzea beren gain hartutako konpromisoei dagokienez, eta *obligazio juridikoak ezartzen dituzte garapenari, giza eskubideei, genero-berdintasunari eta ingurumen-iraunkortasunari dagokionez*²⁰.

Nolanahi ere, giza eskubideak gizaki guztiei dagozkien eta gizabanakoa eta/edo taldeak giza duintasunari eragiten dioten ekintzen edo ez-egiteen aurrean babesten dituzten legezko berme unibertsaltzat hartu behar dira (Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa).

Gai izan behar dugu ulertzeko giza eskubideak ez direla kontzeptu abstraktuak edo orokorregiak eta etereoak (eskuraezinak, eta lorpenari dagokionez, utopikoak). Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak desafio egiten digu eskubide baten formulazio orokorra errealitate ukigarri eta zehatz bihurtzeko.

Nazioartean berretsitako giza eskubideen itunek (NBEen oinarri-zko zortzi itunetatik gutxienez bat berretsi dute herrialde guztiek, herrialdeen % 80k lau itun edo gehiago berretsi dituzte) eta itunen organoek egiten duten interpretazioak arau-esparru esplizitua eskaintzen digu, herrialde gehienek onartzen dutena eta legitimitate sozial eta politiko handia duena²¹.

²⁰ Akkrako Emakumeen Nazioarteko Foroa, *Emakumeen Foroaren Deklarazioa*, Garapenaren Eragin-kortasunari buruzko ekintzarako gomendioak Akkran eta haratago. 2008ko abuztua

²¹ Estatuak gauzatutako itunen eta konbentzioen sinadurak eta berrespenak berrikusterakoan garrantzizkoa da kontuan izatea bertan aurreikusten diren kontrol-mekanismoak onartzen ote diren, hau da, Batzordeen, Komisioen edo, hala badagokio, Auzitegien eskumena onartu ote den. Hori horrela izan ezean, gerta liteke onarpena soilik formala izatea.

Nazio batuen nazioarteko oinarriko bederatzi itunak, giza eskubideen alorrekoak.

Nazio Batuen itunen datu-basea (<http://untreaty.un.org>)

Ituna	Hartze data	Estatu kideak	Zaintzeko organoa
Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna	1966	155	Giza Eskubideen Batzordea
Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Ituna	1966	152	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea
Arraza Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Nazioarteko Konbentzioa	1965	170	Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea
Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Konbentzioa	1979	181	Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea
Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, XXX edo Iraingarrien aurkako Europako Konbentzioa	1984	141	Torturaren aurkako Batzordea
Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa.	1989	192	Haurraren Eskubideei buruzko Batzordea
Migratio-langile guztien eta beren familien eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa	1990	34	Langile Migratzaileen Eskubideei buruzko Batzordea.
Minusbaliotasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioa	2006	132	Minusbaliotasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordea
Pertsona guztiak derrigorreko desagertzeen aurka babesteko Konbentzioa	2006	39	Derrigorreko Desagertzeen aurkako Batzordea

1.2 Gobernuz kanpoko lankidetzaren giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren aurrean

Aurreko ataletik ondorioztatzen denaren arabera, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak, garapenerako lankidetzari aplikatuta, GGKE eta lankidetzarako eta garapen-prozesuetarako agente gisa, honako bi erronka nagusi hauek proposatzen dizkigu:

1. Gure begiraden gunea aldatzea eta giza eskubideak gure laneko plataforma gisa eta justizia sozialtzat (legezko justiziatik haratago) hartzen den justizia errealitate bat izateko behar diren gutxienekoen nahitaezko erreferente gisa ikustea.
2. Pobreak eta baztertuta daudenak prozesuaren erdian jartzea, pobrezia-egoeran egonazaten dituen botere-harremanak aldatuz eta egoera horretan genero-desberdintasuna dagoela onartuz. Axola duena ez da soilik lortzen dena, baizik eta nola lortzen den.

Horretarako, nahitaezkoa da pertsonen kontzientzia piztea beren giza eskubideen inguruan, eta pertsona horiek gaitzea eskubide horiek eskatzeko eta finkatzeko gaitasunak eta konfiantza indartuz. Eskubide horiek betebeharrak sortzen dituzte hirugarrenentzat; horregatik, nahitaezkoa da berdin jokatzeko betebeharren titularrekin, gobernuekin, gizarte zibilarekin, sektore pribatuarekin eta enpleuekin lanean jardunez horiek guztiak beren betebeharrak betetzen ari direla bermatzeko, egiturazko desberdintasunak eta botere-harremanak aldatzeko, ikusteko eta diskriminazio-jardunei aurre egiteko, eta giza eskubideak pertsona guztiak baliatzeko baldintza egokiak bermatzeko.

Ildo horretatik, aipatu behar da Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak²², Erakundearen Gutunaren 55. eta 56. artikuluek ezarritako printzipioetara ere joz, “lotura estua ezartzen du eskubide ekonomikoaren, sozialen eta kulturalen eraginkortasuna lortzeko obligazioaren eta **garapenerako eskubidea** onartzearen artean; izan ere, eskubide horren arabera, nazioarteko lankidetzaren Estatu Kide guztiak nahitaez bete behar duten teknikatzat hartzen du eskubide ekonomikoaren, sozialen eta kulturalen gehieneko eraginkortasuna lortzeko”.

Batzordeak adierazi du herriak garatzen laguntzeko betebeharra “gai horri dagokionez besteei laguntzeko moduan dauden Estatuari dagokie bereziki”. Halaber, Batzordeak “bereziki ohartarazi du garapenerako eskubideari buruzko Deklarazioa garrantzitsua dela (Batzar Orokorra onartu zuen 1986ko abenduaren 4ko 41/128 Ebazpenean) eta beharrezkoa dela Estatu Kideek oso

²² Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 3. Behaketa Orokorra: Estatu Kideen betebeharrak, 1990, NBEren aurkibidea: E/1991/23, 13. eta 14. paragrafoak.

kontuan izatea adierazitako Ebazpenean onartutako printzipio guztiak. Hala-ber, esan du nazioarteko laguntzarako eta lankidetzarako programa dinamiko bat abian jartzeko gai diren Estatuak programa hori abian jartzen ez badute, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak erabat gauzatzea herrialde askok bete ez duten xedea izaten jarraituko duela”.

Gida honekin batez ere GGKEei –baina baita garapen-lankidetzaren gainerako eragileei ere– lagundu nahi zaie giza eskubideei buruzko arauak eta printzipioak lankidetzarako proiektu eta programa zehatz bihurtzeko zeregin zail baina itxaropentsuan –neur daitezkeen adierazle, helburu eta emaitzekin–. Proiektu eta programa horiei esker pobreak gaitu ahal izango dira bizitza duinaz gozatzeko gaitasuna eta aukerak eduki ahal izateko; gainera, pertsona horien eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak erabat gauzatuta egongo dira bizitza horretan.

Esparru logikoko proiektuak egiteko metodologiaren oinarriari dagokionez, eskuliburu honek hainbat urrats ez ezik printzipio eta jarraibide multzo bat ere proposatzen du; horiek guztiek lagunduko dute giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia gobernu kanpoko lankidetzak orain arte erabili dituen metodo eta paradigmatan sartzeko osotasunez eta osagarri gisa.

Esparru Logikoaren Ikuspegia (ELI) planifikatzeko tresna bat da, eta tresna hori dagoeneko erositasunez erabiltzen dugu erakundeetan eta administrazio publikoetan. Tresna hori aprobetxatuz, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren oinarritutako printzipioak sartzeko joan daiteke pixkanaka, hala nola kontuak emateko edo giza eskubideak zatietan direlako printzipioa. Eta erakundeen lan praktikoari eta proiektuak identifikatzeko, egiteko, gauzatzeko eta jarraipena egiteko lanean egunero aurre egin behar diegun eztabaidei, zailtasunei eta erronkei erantsi dakizkieke.

Ikuspegi hori aplikatzearen ondorioz espero den emaitza garapenerako lankidetzaren proiektuak –giza eskubideen pixkanakako gauzatzea ardatz nagusitzat dituztenak– egitea eta ezartzea da. Aplikatzeko eremua globala da, bai edozein herri-testuinguru edo talderako, bai esku hartzeko sektorerako. Logikoa denez, giza eskubideen osagai juridiko/judizialean soilik bilduta dauden proiektuak egitera hedatzen da.

Azken batean, ikuspegi hori aplikatzeak aldaketa dakar esku-hartzeen orientazioan, baita esku-hartze horien aurretik ere; horretaz gain, garapen-arazoaren analisi berean, arazo horien identifikazioan, definizioan, eta, azkenik, lankidetzaren jardunak gauzatzen diren moduan ere aldaketa bat dakar.

Laguntza metodologiko hori Afrikako Hezkuntzarako Eskubidea biltzen duen kasu praktiko bat gauzatuz egiten da, zehazki Kongoko Errepublika De-

mokratikoko eskualde batean. Estatu hori ahula da, gatazka armatu handia dago bertan eta krisi sozial eta ekonomiko handian murgilduta dago; krisi hori, gainera, indarkeriaren, pobrezia-aren eta bazterketaren eredu ezezagunetara bideratu da. (Ikus 1. taula, *KEDen gaur egun dagoen egoerara hurbiltzea*²³).

Hezkuntzarako Eskubidea bere berezitasun instrumentalagatik aukeratu da, hots, beste eskubide batzuk (lan duinerako eskubidea, osasunerako eskubidea, behar adina elikagai izateko eskubidea eta abar) baliatzeko katalizatzailea delako. Azken batean, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordearen 13. Behaketa orokorrean ikusten denaren arabera: “hezkuntza ekonomiko-ki eta sozialki marjinatuta dauden helduei eta adingabeei pobreziatik ateratzea eta beren komunitateetan erabat parte hartzea ahalbidetuko dien bitarteko nagusia da”. (Ikus 2. eranskina, *Hezkuntza giza eskubide den aldetik*).

Cuadro 1: **Kongoko Errepublika Demokratikoan (KED) gaur egun dagoen egoerara hurbiltzea**²⁴

“Gatazka areagotzearen eta hedatzearen ondorioz, dimentsio katastrofikoetako krisialdi humanitarioa sortzen ari da eta eskualde mailan ondorio tamalgarriak eragiteko mehatxua egin du”, 2008, NBEren Idazkari Nagusi Ban Ki-moon.

Kongoko Errepublika Demokratikoa estatu ahula da, 1960tik aurrera Belgikatik independente bizi da eta bere mugetatik haratago hedatzen den gatazka luze batek suntsitu zuen, hor oso maiz gertatzen dira talde armatuek gauzatutako arpilatzeak eta herrixken erreketak, haurren bahiketak, gosete kronikoak eta buruzagi berrien sorrera, bakoitza bere talde armatuekin. Buruzagi horiek sistematikoki hausten dituzte ondoz ondoko bake-akordioak (arma-blokeoak urte asko daraman arren, alderdi guztiek inolako arazorik gabe lortzen dituzte armak eta munizioak). Gerra-krimena eta gizadiaren aurkako krimena diren hainbat ekintza (hala nola talde armatuek gauzatutako bahiketak eta talde horiek adingabeak erabiltzea) oso maiz gertatzen dira, tamalez, ezagutzen ez diren proportzioak dituen dramak suntsitutako zonan.

Demokrazia iragankorra duen herrialdea, 45 urtetan bere lehen hauteskundeak izan dituena²⁵, gatazka batek erasotzen duena; gatazka hori mineral-meategi abe-

²³ Gidaren bigarren edizioan ez dira datu horiek aldatu, ez eta gidaren bigarren zatian erabilitakoak ere, kasu praktikoaren garapenean, hain zuzen. Argitalpenaren helburuak ez du, hala ere, bere funtsa galtzen; aitzitik, gida erabiltzea errazten die jada erabiltzen dutenei edo inoiz erabili dutenei.

²⁴ 2008ko amaierako datuak, gida honen lehen edizioa egin zen urtekoak.

²⁵ Mobutu Sese Seko boterean 22 urtez egon ondoren, 2006ko hauteskundeon ondoren Kabila iritsi zen presidentziara eta horrek leihoa ireki zion itxaropenari.

ratsen inguruan, batez ere koltanaren meategiak²⁶ potentzia handien interes ekonomikoek eragiten dute. Adierazitako minerala funtsezkoa da telekomunikazioen industrian.

Alan Doss KEDrako NBERen ordezkari bereziak behin eta berriz adierazi du oso kezkatuta dagoela Ipar Kivun eta probintziaren hiriburuaren, hots, gomaren inguruan, herrialdearen ekialdean biztanleria zibilak bizi duen egoerarekin.

Halaber, Elikagaien Munduko Programak, Ginebran duen zuzendariaren bitartez, hots, Charles Vincenten bitartez, gobernuaren indarren eta Kongoko Laurent Nkunda general tutsiaren (ondoko herrialdeak, Ruandak babesten du) errebeldeen arteko istiluak direla medio biztanleriak bizi duen desplazamendu masiboa²⁷ ez ezik Nazio Batuek Misiorekin (MONUC)²⁸ babes-estrategiak herrialdean berriz aztertu behar direla ere salatu du. Misio horrek modu aktiboagoan jardun behar du, zalan-tzarik gabe, biztanleria babesteko. Segurtasun Kontseiluaren 1592/2005 Ebazpenaren arabera, misioak “behar diren bitarteko guztiak erabili ahal izango ditu indarra erabiltzeko ahalegin oro saihesteko, prozesua arriskuan jartzeko eta zibilen babesa bermatzeko”.

Halaber, nahitaezkoa da goi-mailako ordezkari bat izendatzea, bake iraunkorra bilatzeko nazioarteko ahaleginak batuko dituen eta gatazkaren azpiko kausak elkarren aurka jarriko dituen.

Amnistia internazionalaren kanpaina: Haur bat hiltzen ikustea baino gauza okerragoa da haur hori beste nor- bait hiltzen ikustea

KEDn gerran daude eta gerra horretan haur asko ezin dira ezta biktima zibilak ere izan. Soldadu gisa borrokatzea behartzen dituzte.

Gatazka horretan –1998an hasi zen eta oraindik ere irauten du– 5 milioitik gora pertsona hil dira. Pertsona horietako asko adingabeak dira. Eta okerrera da horietako asko adingabeek erail dituztela. Zeren KEDn dagoen gerran gutxienez 3.000-6.000 haur soldadu gisa borrokatzen baitira.

²⁶ 2009an, South Africa Resource Watch (SARW) gobernuaz kanpoko erakundeak Kivu eskualdean, KEDren ekialdean, koltanaren legez kanpoko merkataritzan ustez sartuta zeuden enpresa multinazionalen zerrenda bat argitaratu eta NBen Segurtasun Kontseiluan entregatu zuen.

²⁷ EMPren arabera, Ipar Kivun bi milioi pertsona lekuz aldatzen dira.

²⁸ 1999ko azaroaren 30ean sortu zen Segurtasun Kontseiluaren 1291 Ebazpenaren bitartez, eta NBERen bakea mantentzeko xedea du, ia 17.000 kasko urdinek osatzen dute eta 20.000 izango dira laster. Zaila da onartzea Nkundaren gutxi gorabehera 5.000 borrokalari milaka zibil ikara ditzaten eragozteko duen jardungabezia. NBERen Segurtasun Kontseiluak 2009ko abenduaren 31 arte luzatu zuen misioaren agindua, eta nabarmendu zuen lehentasuna zuela biztanleria zibila Ipar eta Hego Kivuko probintzietatik babesteko.

Haur horietako asko beren familiekin itzuli ahal izan ziren desmobilizazio-programa nazional baten bitartez, baina etsaitasuna larriagotzeak honako proportzio beldurgarri hau ekarri du: armadatik askatutako bi adingabeko bost adingabe borrokalari ohi bahitzen dituzte eta gerra-tokira bidaltzen dituzte berriz ere. Arrazoia garbia da: haur horiei ez zaie hiltzen irakatsi behar. Tamalez, nahikoa eta esperientzia gehiegi daukate.

Neskei dagokienez, beren errealitatea are okerragoa da. Soldadu gisa erabiltzeaz gain, esklabo sexual gisa erabiltzen dituzte beren etsaiek nahiz beren armakideek, eta desmobilizazio-programetatik kanpo uzten dituzte. Emakume helduen zoria ez da askoz hobea, abusu fisiko eta sexualak pairatzen baitituzte behin eta berriz.

Joseph Kabila jauna – Kongoko Errepublika Demokratikoaren presidentea.

Presidente jauna:

Gutun honen bitartez adierazi nahi dizut kezkatuta nagoela Kongoko Errepublika Demokratikoko biztanleria zibilak –emakumeak eta adingabeak bereziki– bizi duen giza eskubideen egoerarekin. Dirudienez, bortxaketa eta beste sexu-indarkeria batzuk, erreklutamendua eta Ipar Kivun haur soldaduak erabiltzea ohiko ohitura da oraindik ere.

Eskatzen dizut, arren, zure esku dagoen guztia egin dezazula armadan nahiz talde armatuetan* dauden haur soldadu guztiak askatzeko. Armadatik askatutako adingabeak edo ihes egiten dutenak babestu egin behar dira, eta bortxaketa-salaketak eta sexu-indarkeriaren beste modu batzuk ikertu egin behar dira, eta horiek egin dituztenak epaitu.

Eskatzen dizut, arren, zure esku dagoena egin dezazula Kongoko Errepublika Demokratikoan dagoen Nazio Batuen Misioaren (MONUC) lankidetzarekin, adingabeen erreklutamenduak eta emakumeen nahiz adingabeen bortxaketa eta erailketei amaiera emateko.

Adeitasunez,

*NOR DA NOR?

FARDC: Kongoko Errepublika Demokratikoaren Indar Armatuak. Gaur egun anabasan murgilduta daude Ipar Kivun.

CNDP: Herria Defendatzeko Biltzar Nazionala. Laurent Nkundak, gaur egun atxilotuta dago, zuzentzen duen talde armatua. Esaten du borrokatzen dela komunitate tutsia FDRL Indarretatik babesteko.

FDLR: Ruanda Askatzeko Indar Demokratikoak. Hutu etniako Ruandako talde armatua. Bere kideen artean interhamwe milizietako kideak eta Ruandako aurreko indar armatuetako kideak (1994ko genozidioren arduradunak) daude.

Mayi-mayi: Gobernuaren aldeko miliziak. Indar Armatuen gainbeheraren aurrean, CNDPren aurkako indar borrokalari nagusi bihurtu dira.

MONUC: Bakeari eusteko NBERen indarra. Agintaritzaren indartsua du eta horrek baimena ematen dio biztanleria zibila eta humanitarioak babesteko “behar diren bitarteko guztiak” erabiltzera.

Hala eta guztiz ere, errealitateak erakusten du datuak beldurgarriak direla. UNICEF-en datuen arabera, 2005/2006 aldian, 90 milioi haur eskolatu gabe zeuden. “Hezkuntzarako giza eskubidea gauzatzeko konpromisoak porrot egin du modu lazgarrian; izan ere, Guztiontzako Hezkuntzaren helburuak, hala nola hezkuntzarekin lotutako Milurteko Garapen Helburuak, atzeratuta daude oraindik edo logika ekonomizistari lotuta daude, eta logika horren arabera hezkuntza merkatuaren funtzionamendurako tresna bat baino ez da”²⁹.

Puntu honetan *Save The Children* erakundeak ematen duen laguntza eskertu nahi dugu bereziki; izan ere, talde hori nahitaezko hizketakidea da proposatutako ekintza kokatzeko garaian. Erakunde horrek egiten dituen ekarpena eta ahaztuta dagoen Afrikan sustatzen diren proiektu batzuei buruz duen ezagutza nahitaezko elementu bihurtu dira esku artean duzun gida hau ondo bukatzeko.

Era berean, *ActionAid Internacional* erakundeak landutako informazioa nabarmendu nahi dugu bereziki; horien lanak egindako argudioetako askoren oinarri izan dira, eta erakundearen baimena izanik, lan horietako testu eta adibide batzuk sartu ditugu gure gidan, haien kalitatea eta pedagogia direla medio.

Garatutako kasu praktikoan azaltzen denaren arabera, garapenaren oinarri-zko helburu izan behar du giza eskubideak gauzatzeak. Hori edozein testuinguru eta errealitatean egin dezakegu, *betiere gure jardunbideak eta metodologiak tokiko baldintzetara eta testuinguruetara egokitzen baditugu. Horrela jarduten badugu, lagundu ahal izango dugu zerbitzuak lankidetzaren ekintzetan entregatzen, bizi-maila egokiaz gozatzea ahalbidetuko duten eskubideak erreklamatzeko eta gauzatzeko gaitasunak garatuz.*

Kontua ez da berriro hutsetik hastea. Zuzenean edo zeharka, kontzienteki edo inkontzienteki, giza eskubideak hasiera-hasieratik egon dira gobernu kanpoko lankidetzan. Batzuetan ekintzagatik eta beste batzuetan ez egiteagatik, lankidetzaren esku-hartze orok pertsonen eta komunitateen giza eskubideak gauzatzeko eragiten du.

²⁹ Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Vernor Muñoz errelatore bereziaren txostena: “Hezkuntzarako eskubidea larritasun-egoeretan”, 2008ko maiatza.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak, honako hau nahi du hain zuzen ere: garapenari buruzko aurreko jarraibide egokietatik ateratako irakaskuntzak aprobeztatu eta horietatik ikasi, baina, gainera, giza eskubideen eremuaren eta garapenaren artean sinergiak eta topaguneak indartuz.

Gai komun askorengatik kezka (gobernu ona, erantzukizuna, partaide-tza, kontuak ematea) konpartitzen bada ere, garapen-estrategien esparrua eta giza eskubideen esparrua paraleloan joan dira. Nahitaezkoak izango dira zubi eta aliantza berriak egitea garapen-lankidetzaren eragileen eta giza eskubideen aktibisten artean. Baina, harrigarria bada ere, harreman horiek ez dira oraindik gauzatu, ez behintzat, helburu komuna modu esplizituan eta orokorrean bilatzeari dagokionez: giza eskubideak garapenerako helburu nagusi gisa gauzatzea. (Ikus 3. eranskina, *Giza eskubideak pobrezia murrizteko estrategietan sartzeko printzipioak eta jarraibideak*).

Aliantzak sortzeko, modu koordinatuan eta beste entitate eta erakunde batzuek egiten dutena kontuan hartuta lan egiteko premiak gure barneko eztabaidak osatzen ditu beti. Beharbada hauxe da batzuek besteengandik ikasteko, koordinazio- eta osagarritasun-sareak eta mekanismoak, eta eskubideak eta hainbat erantzukizun, baina osagarriak diren erantzukizunak dituen herri baten garapenean sartutako agenteetako asko biltzeko gai diren lan-mahaiak garatzeko aukerarik hoberena, zergatik ez?

Lanean emandako urteek erakutsi digute garapena prozesu multidimensional eta konplexua dela, eta eragina eta emaitzak konplexuak diren faktore multzo baten ondorio direla beti, eta neurri handi batean prozesu eta testuinguru soziopolitiko desberdinen menpekoak.

Gu mugitzen garen testuinguruari buruzko irakurketa orokorrago bat egiten ikastea eta proiektuak epe ertaineko prozesu baten urratsak (gure ahalegina behar dutenak, baina batez ere zuzenean sartuta dauden pertsonen eta kolektiboen eta hasitako garapen-prozesuari ekarpenak egiten dizkioten, hura osatzen duten eta hura gauzatzea ahalbidetzen duten beste agente batzuen inplikazioa eta gaitasuna behar dutenak) izango balira bezala garatzeko gai izatea. Hori soilik gauzatu ahal izango da, *baldin eta aliantzak prozesuak garatzeko funtsezko piezatzat hartzen baditugu*.

Azken batean, eta ohar hauetan adierazi dugunaren arabera, NBen erakunde espezializatuek, herrialde emailde kopuru handi batek, nazioko eta eskualdeko gobernuek eta erakunde sozialek ezartzen dute ikuspegi hori. Hortaz, adostasunak egon badaude, baina oraindik oso mugatuak dira giza eskubideen esparrua lankidetz-politikekin lotzen dituzten praktikak eta estrategiak.

Oraindik ez da ebaluatu zein izan daitezkeen giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia praktikara eramateak eragingo dituen ondorioak giza eskubide horiek duten eraginarekin eta epe ertainean eta orokorrean aldatzeko duten gaitasunarekin alderatuta, baina gure ustez haize freskoa ekarriko duen leiho bat izan daiteke, baita guztiok sartuta gauden garapenerako lankidetzaren hobetzeko aukera bat ere.

Guk benetan uste dugu giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia –bideak egin beharreko urrats gisa, lankidetzaren diskurtsoan beti egon diren kezkek biltzeko gai dena, baina antolatze mekanismo egokirik ez duena– balio erantsia eta desberdintzailea izan daitekeela eta izan behar duela garapen-lankidetzarako politiketan.

1.3. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak dituen ahalmenak eta arriskuak lankidetzan

Ezin da zalantzan jarri ikuspegi hori aplikatzeak ezagutu, onartu eta landu behar diren erroka eta zailtasunekin egingo duela topo. Lehenengo arriskua, eta arriskutsuena, zalantzarik gabe, izan daiteke kontzeptu honek sortzen dituen gutxieneko itxaropenak betetzea lortzen ez duen eskubideen erretorika erabiltzea.

Ildo horretatik, egia da gobernuek askotan ez dituztela errespetatzen legez eskuratutako konpromisoak. Eskubideen ikuspegiak mahai gainean jartzen ditu eska daitezkeen eta giza eskubideen itunek ezarritako betebeharrak juridikoak gauzatu ahal izateko mekanismoak. Era berean, NDFa, Munduko Bankua eta MMEa, nazioarteko zuzenbideko subjektuak diren aldetik, zuzenbide horren eraginpean daude, giza eskubideak babesteko arauak barne³⁰. Horretan, erroka handia daukagu, zalantzarik gabe.

Bigarrenik, eta hemen enfasia jarri behar dugu nahitaez, giza eskubideak sartzeko garrantzi politikoa du derrigorrez (esate baterako, erakunde politiko baztertzailak aldatzea eta/edo desagerraraztea eskatzean); eta horrek gure lana oztopa dezake beren botere-egiturak eta hainbat klase faboratutarako pribilegioak aldatzeko prest ez dauden herrialde askotan. Ildo horretatik, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak legezko erreforma sustatzen du aldaketa iraunkorra izan dadin lortzeko bitarteko gisa.

³⁰ Ikuspegi historikotik, NDFa eta MBa NBen erakunde espezializatuak dira; nolatan ere funtzionamenduari dagokionez, NBEekiko independenteak dira, eta Nazio Batuen Gutunarengatik lotuta daude. TOUSSAINT, Eric, “Munduko Bankua eta giza eskubideak”.

Argi dago pobrezia, batzuetan, praktika diskriminatzaileetatik sortzen dela, eta, horregatik, ezinbestekoa da gure lankidetzak-ekintzetan egitura, diskriminazio-legeen eta jardunbideen aurka borroka egitea. Emakume pobreek (bi aldiz diskriminatuak) beren potentzial osoa garatzeko aukerarik ez duten bitartean, eta ekintza guztien aurrekontuen zati bat emakumeen lehentasunetarako ematen ez den bitartean³¹, ezin izango dugu modu eraginkorren borroka egin pobrezia-aren aurka. Gauza bera esan liteke herri indigenei buruz, eta horretarako, esate baterako, Bolivian gertatzen ari dena zorrotz aztertu besterik ez dugu.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzeak (giza eskubideen funtsezko elementuetako bat berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa da) erraztu egiten du lan hori baldintzak ezartzen baititu lankidetzaren lehentasunak ezartzeko garaian. Lehentasun horiek erdian kokatu behar dituzte gehien baztertuta dauden taldeak; hain zuzen ere, emakumeek eta biztanleria indigenek osatzen dituzte talde horiek planeta osoan.

Hirugarrenik, eta orain geure buruari begiratuta, argi dago hori erronka bat dela lankidetzan lan egiten dugunontzat. Tokiko biztanleriari eragiten dioten benetako aldatetetan eragin nahi badugu, beharrezkoa da kontzeptu batzuk eta legedi bat (mekanismoak eta prozedurak) eta nazioarteko gutxieneko araugorputz batzuk erabiltzea eta guk presentzia dugun politika publikoak sakonki ezagutzea.

Hortaz, esate baterako, gorago adierazi dugunaren arabera, 2008ko ekainean, NBEren Giza Eskubideen Kontseiluak PIDESCen Hautazko Protokoloa –2013ko maiatzaren 5ean indarrean sartu zena 41 Estaturen sinadurarekin baina soilik 10 berrespenekin– hartzea sisteman falta zen pieza bat da, zalantzarik gabe. Protokolo horrek ahalbidetzen du jendeak Nazio Batuetara jotzea beren eskubideen urraketak salatzeke, bai eta, halaber, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak indartzea ere. (Ikus I. eranskina, *Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta garapenerako eskubidea*).

Kontzeptu horiek gure eguneroko lanean txertatu behar ditugu. Hala eta guztiz ere, nazioarteko itunei eta hitzarmenei dagokienez informazioa lortzeko gaur egun ditugun erraztasunak, munduko toki guztietan egiten diren gero eta azterlan zehatzagoak, gure lana eta gure kontrako alderdien (oso ondo ezagutzen dituzte gurekin lan egiten dute kolektiboak) lana gure alde dauden eta oso kontuan hartu behar ditugun elementuak dira.

31 UNIFEMek (NBEen Emakumearentzako Garapen Fondoak) eta LNEk 2008ko irailaren hasieran Akkran (Ghana) egindako Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi-mailako Foroan aurkeztutako datuen arabera, gaur egun 1.000 milioi emakume pobreak dira diruari dagokionez.

Horretaz gain, orain dela urte batzuetatik aurrera Giza Garapenaren Indi-zeak (Milurteko Garapen Helburuek eskaintzen dituztenak bezalako adiera-zleak) erabiltzen ditugu, Herrialde bakoitzeko Estrategia Dokumentuak ditu-gu, errelatore berezien eta NBEren Giza Eskubideen Kontseiluaren txostene-kin; gainera, txosten horiek gero eta ezagunagoak egiten zaizkigu.

Erronka eta zailtasunak gorabehera, guk benetan uste dugu alde batera utzi ezin dugun aukera baten aurrean gaudela. Gida honetan umiltasun osoz proposatzen dena ez dago dagoeneko ezagutzen ditugun dinamiketatik urrun. Dinamika horiei beste ikuspegi batetik aurre egiteak oso emaitza berritzaileak eta eraldatzaileak ekar diezazkiguke; nolana ere, adierazitako ikuspegia be-tidanik egon izan da hor, baina guk denbora gehiegi eman dugu hura kontuan hartu gabe.

Erakundeen teknikariak garen aldetik, kasu batzuetan aitzindariak izango gara kontzeptu eta lan egiteko modu horiek erakunde sartzan. Dena dela, giza eskubideen ikuspegiak eskatzen du erakunde osoak egitea horren aldeko apustua. GGKEen jarrera hartzea markatzen du edo markatu behar du; izan ere, erakunde horiek ezin dira besoak uztarturik geratu estatuen edo estatuz gaindiko entitateen aurrean garapenari, pobrezinari, pertsonaren eta herrien duintasunari buruz hitz egiten denean.

Erronka berria eta behin betikoa: gure erakundearen egitekoa eta ikuspegia berrikustea eta garapen-prozesuetan eta pobrezia-aren aukako borrokan zer egin nahi dugun eta nondik egingo dugun ondo pentsatzea.

Eduardo Galeano jaunak idatzi zuenaren arabera, “milaka urtetan jende guztiak eskubidea izan zuen eskubiderik ez izateko. Gertakarietan, oraindik ere jende asko dago eskubiderik gabe, baina orain gutxienez onartzen da es-kubide horiek izateko eskubidea dutela; eta hori munduaren jabeen karitate-keinu bat baino askoz gehiago da beren agindupekoen kontsolamendurako”.

2. Taula

Ikuspegi hori aplikatzerakoan erakunde batzuek duten esperientziaren siste-matizazioari esker, honako ondorio hauek atera ahal izan dira³²:

- Ikuspegi horren arabera garatutako proiektuek denbora gehiago eta laguntza handiagoa behar dute finkatzeko, eta horien ondoriozko eraldaketa-prozesuak epe luzeko ikuspuntua du.

32 Incorporation of a Rights-Based Approach into CARE’s program Cycle. A Discussion Pa-per for CARE’s Program Staff / The RBA Risk Assessment Filter Tool. A facilitator’s Guide / Design, Monitoring and Evaluation in Rights Based Programming, Identifying Challenges in CARE

- Emaileek oraindik ez daukate behar adinako sentsibilitaterik, uste osorik eta eraginkortasunik ikuspegi hori beren laguntza jasotzen duten erakundeetan ezartzen eta kontuak ematen laguntzeko.
- Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren ezarpenari lotutako prozesuak denbora asko eskatzen du gogoetarako, elkarrizketarako, zalantzan jartzeko eta trukatzeko; eta horrek ahalegin handia eskatzen dio edozein erakunderi.
- Ikuspegi horrek ahalegin berezia eskatzen du gobernuko agintarien eta kontrako alderdien laguntza lortzeko eta bermatzeko, betiere prozesuan parte hartuko dutela bermatuz.
- Erakundeen bulego nagusien berezko printzipioen, portaeren eta jarrerren eta giza eskubideen ikuspegiari jarraitzen dioten proiektuen eta programen bitartez sustatzen direnen arteko koherentzia eta iraunkortasuna behar da.
- Ikuspegi horri jarraitzen dioten erakundeetako langileek bitartekaritza, lekukotasuna, kudeaketa, harremanak sendotzea, antolaketa komunitarioa, kulturarekiko sentsibilitatea eta analisisia errazteko gaitasunak garatu beharko dituzte.
- Pobreziaren eta bidegabekeria sozialaren sakoneko kausez jabetzeaz, nahi-taezkoa da biztanle taldeak eta herrialde edo eskualde bakoitzeko taldeak (horiekin egingo da lan) bereiztea.
- Elkarrizketa erabilera komuneko tresna da talde kalteberak eta talde horiek beren bizitza garatzen duen esparru soziala eta politika osatzen duen gainerako eragileak harremanetan jartzeko. Hori behar bezala erabili behar da, eraginkorra eta eraldatzailea izan dadin.
- Talde marjinatei eragiten dien arazoaren inguruan dauden eskubideak eta erantzukizunak jakinarazteko ahalegin orok eskubideen titularrak nahiz bete-beharren titularrak bildu beharko lituzke.
- Proiektuek erakusten dituzte diskriminazioak maila desberdinak izan ditzakeela, eta, horregatik, banaketa oinarritzkoa da generoari buruzko gaiak edo ekitaterik ezaren beste modu batzuk azaltzeko.
- Erakundeak talde marjinalen arazo eta eskubideekin berriz ere bat egiteak kausarekiko konpromisoan sakontzea ekartzen du, nahita edo nahi gabe.
- Erakundeak kolektiboak edo erakundeak lan egiten duen komunitatei buruzko kontuak ematea normalean atezuan egoten da emailei buruzko kontuak ematearekin.
- Giza eskubideen ikuspegiak aukera potentzial bat eskaintzen du emaileen jarrerak hobeto uler daitezzen aldatzeko (epe luzeko konpromisoa behar da horretarako) eta marjinalitatearen eta bidegabekeria sozialaren azpian dauden gaiei heltzeko.

3. Taula: **Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren eta genero ikuspegia sartzearen arteko harremana**³³

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia eta genero-ikuspegia sartzea osagarriak dira, elkar indartzen dute, eta gatazkarik eta bikoizketarik gabe gauza daitezke.

Generoari buruzko gaiak sartzeko genero-ikuspegia sartu behar da garapen-jardueretan, azken helburua eremu horretan berdintasuna lortzea izanik. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak garapen-jarduerak antolatzen dituzten printzipioekin (emakumearen giza eskubideak eta sexu-arrazoiengatik diskriminazioaren debekua barne) biltzen ditu. Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordeak zehatz eta sakon aztertu du desberdintasunak nola eragiten duen emakumeen bizitzetan; eta, horrek ekarpen handia egiten du politikak lantzeko eta garapenaren alorreko programak egiteko. Kontuak emateko nazioko sistemek babesten dutenean, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak izugarri sendotu dezake genero-berdintasuneranzko aurrerapena.

Generoaren inguruko gaiak sartzek eta giza eskubideetan oinarritutako garapenaren ikuspegiak gauza asko dituzte komunean.

- Biak esparru analitikoan oinarritzen dira, eta esparru hori garapen-jarduera guztiei aplikatu dakieke (lehenengoari dagokionez, gizonak eta emakumeak gizarte jakin batean duten egoera desberdina eta dituzten zeregin desberdinak; eta azkenari dagokionez, eskubideetan eta betebeharretan oinarritutako arau-esparru bat).
- Biek eskatzen dute honako hauek kontuan hartzea: alde batetik, jarduerak on-gizateko talde jakin batzuetan izan ditzaketan ondorioak, eta beste alde batetik, erabakiak hartzeko garaian autonomia eta partaidetza sustatzeak duen garrantzia.
- Biak jardueren fase guztiei (diseinua, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa) aplikatzen zaizkie, baita jardun mota guztiei ere (legeak, politikak eta programak).
- Azkenik, biek eskatzen dute hasita dauden jarduerekin alderatuta berriak eta desberdinak diren ikuspegiak aplikatzea sistematikoki lehendik daudenei gehituko zaizkien jarduera berriak garatu ordez.

Erakunde gehienetan, generoari buruzko gaiak sartzea giza eskubideak sartzea baino ezagunagoa da. Genero-ikuspegia sartzeko den zaintzeko ezarritako egiturak eta prozesuak imitatu edo egokitu egin daitezke giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia programazioan sartzea errazteko.

³³ ACNUDH, "Garapenerako lankidetzan giza eskubideek duten ikuspegiari buruz maiz egiten diren galderak", 2006.


KASU PRAKTIKOA

Eskuliburuaren hurrengo atalek elkarren artean lotzen dituzten etengabeko aipamenak dituzte. Horrela partaidetza-lanaren nondik norakoa dela medio zaila delako eta ez duelako oso emaitza onik emango soilik atal bat kontuan hartzeak. Urrats jakin bat lantzerakoan, beste atal bati buruzko alderdiak azalduko dira askotan. Hortaz, gomen datzen dugu eskuliburuaren lehen irakurketa orokor bat egitea eta aurrerantzean, behar denaren arabera, kapituluaren artean mugitzeko prest egotea.

Eskuliburua errazago erabiltzeko, informazioa honela banatu dugu: alde batetik, jarraibide metodologikoak daude, eta beste alde batetik, jarraibide horiek gida honen adibide gisa erabili dugun kasu praktikora nola eraman diren.

Bestalde, kasu praktikokoan proposatzen den lana edozein testuinguru eta errealitatean egin dezakegu, betiere gure jardunbideak eta metodologiak tokiko baldintzetara eta testuinguruetara egokitzen baditugu. Gure erakundearen esperientzia eta ibilbideari esker, bai eta gida honetan proposatzen diren urratsen eta gure lanean jada txertatuta ditugun analisi eta dinamiken arteko loturari esker ere, ikuspegia zabaldu eta kasu bakoitzean estrategiarik egokiena hautatu ahal izango dugu, betiere helburu nagusi gisa pertsona, kolektibo eta herri guztien giza eskubideak sustatzea eta gauzatzea izanik. Tokiko erakundeekin batera egindako lanaren ondoriozko bitartekoa ezagutzea egokitze-prozesu horretarako tresnarik hobereena da.

Garapen-proiektuak kudeatzeko zikloa giza eskubideetan oinarritu- tako ikuspegitik



1. AURRETIAZKO FASEA

GGKE pribatu bat gara, irabazi-asmorik ez duena, plurala eta independentea politika- eta erlijio-ikuspegiak oinarri hartuta. Gure funtsezko helburua haurren (bereziki behartsuenen) interesen defentsa aktiboa egitea da. Nazioarteko elkar-teen federazio bat osatzen dugu eta Latinoamerikako, Afrikako eta Europako herrialdeetan dugu presentzia. Esparru horretan gauzatzen dugun lana tokiko erakundeekiko lankidetzan gauzatzen da. Gure proiektuetako ohiko kontrako alderdia federazioko bertako elkarteak dira. Elkarte horiek garapen-prozesuak laguntzen ditugun herrialdeetan errotuta daude.

Guk honako alor hauetan gauzatzen ditugu esku-hartzeak: hezkuntzan, prebentzioan eta haurrei ematen zaizkien tratu txar mota ororen aurkako borrokan, adingabe kalteberenen babesean, haurren partaidetzaren sustapenean, hainbat baliotan (tolerantzia eta elkartasuna, esaterako) oinarritutako hezkuntzan eta haurren eskubideen hedapenean.

Haur kalteberenekin lan egiten dugu. Hau da, gaixorik dauden eta ezintasunen bat duten hurrekin, haur langileekin eta gatazka armatuen eraginpean daudenekin, haur desplazatu edo errefuxiatuekin, haur desmobilitatuekin, borrokalari ohiekien edo talde armatuetan sartuta dauden hurrekin (zamaketaiak, informatzaileak eta abar), eta, oro har, pobrezia- eta bazterketaren eraginpean dauden haur guztiekin.

Kikoi zonan³⁴ (Kongoko Errepublika demokratikoa) *eskolei eta hezkuntza-azpiegituren berreraiketari* arreta handia jarri dion proiektu bat itxi ondoren, hainbat kolektibok gure kontrako alderdira jo dute eta hainbat eskaera azaldu dituzte, *adingabeen oinarritzko hezkuntzarekin* zerikusia duten eta aurreko proiektuaren lan-ildoetan biltzen diren eskaerak hain zuzen ere. Kasu honetan, kontrako alderdia federazioko elkarte bat da. Informazio hori jasotakoan, egiaztatu genuen, a priori, gure ohiko lan-ildoekin uztartzen zela eta esku hartzeko proposamen berri bat egiteko erabakia hartu genuen:

- *1. urratsa*: lan-talde tekniko bat eratzea. Nolanahi ere, gure ordezkariak ez ezik tokiko erakundearen ordezkariak ere izan beharko luke. Ahal den neurrian, aldizka kontsulta egingo zaien ikusmolde osagarriak erabilgarriak izango dira proposamena ahalik eta osatuena izan dadin.
- *2. urratsa*: oinarritzko kontzeptuei buruzko ulermen komuna. Esku hartu nahi den errealitatearen analisiari ekin aurretik, nahitaezkoa da inplikaturako alderdiek hainbat kontzeptu eta paradigmei buruz (askotan jakintzat eta

³⁴ Kongoko Errepublika Demokratikoaren fikziozko zona. Dena dela, azaltzen diren datuei kontinentean dauden antzeko arazoei eragiten dieten eskualdeekiko komunak diren parametroetan eusten zaie.

ulertutzat ematen dira) galderak egitea beren buruari eta horiei buruz eztabaidatzea, eta esperientziak erakuts dezala komenigarria dela argitzea eta konpartitzea. Erabakigarria da kontzeptu horien azpian dagoena trukitzea eta adostea garatuko den estrategia definitzeko. Funtsean, pobrezia eta giza eskubideei buruzko kontzeptuez ari gara. Kontua ez da definizio itxia eta behin betikoa ematea, baizik eta gutxieneko konpartitu batzuk, giza eskubideen ikuspegiaren funtsarekin koherenteak direnak, erabiltzea. Nahikoa izango litzateke ideia-jasa bat ematea, adibide gisa emango diren galdera batzuen bitartez atera daitekeena. Gerta liteke hainbat egoeratan oso desberdina izatea giza eskubideen kontzeptuari dagokionez inplikaturako alderdien abiapuntua. Horrek ez du oztopo gairik izan behar, baizik eta elkarrizketa-prozesuak berak lagundu ahal izango du iritziak bateratzen.

Pobrezia kontzeptua:

Baliabide ekonomikorik ez duena soilik al da pobrea?, pobrezia eskubide-kontua al da?, gaitasun bereziak behar al dira pobre ez izateko?, ba al dago pobreziatik ateratzeko formularen bat?, nork du pobrezia egotearen errua?

“Giza eskubideen ikuspegi batetik, pobrezia giza baldintza bat da, eta honako ezaugarri hauek ditu: baliabideen etengabeko gabezia edo gabezia kronikoa eta bizi-maila egokia ez ezik beste eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozial batzuen maila ere baliatzeko behar den ahalmena, aukerak, segurtasuna eta boterea izatea. (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea-2001)”

Giza eskubideen kontzeptua:

Ematen dira, izaten dira, onartzen dira?, eskubideak betebeharrak sortzen al ditu?, gizarteko hainbat taldetara mugatuta al daude?, gaitasun ekonomikoaren mende al daude?, uko egin al dakieke?, desberdinak al dira jaioterria kontuan hartzen bada?, ba al dago beste batzuk baino garrantzitsuagoa den eskubiderik?, obligazio morala besterik ez al dira?, Estatuak definitzen al ditu?, nor arduratzen da haiek betetzeaz?, eska al daitezke legez justiziaren aurrean?

“Giza eskubideak gizaki guztiei dagozkien eta gizabanakoa eta/edo taldeak giza duintasunari eragiten dioten ekintzen edo ez-egiteen aurrean babesten dituzten legezko berme unibertsal gisa defini daitezke (Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa)”

- **3. urratsa:** lantalde teknikoak lanerako plan bat egingo du eta barne-funtzionamendurako oinarriko jarraibideak ezarriko ditu. Lanerako planak errealista eta malgua izan beharko luke, guk erabiltzen ditugun baliabideak kontuan hartuta. Plan horrek honako galdera hauei erantzun beharko lieke: zer egingo dugu eta noiz, nola egingo dugu, nork hartuko du jarduera bakoitzaren ardura eta komunikatzeko eta erabakiak hartzeko zer barne-mekanismo ezarriko ditugu?

2. TESTUINGURUAREN AZTERKETA

1. Testuinguru orokorra

Pobrezia giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia aplikatuz murrizteko estrategia oreren lehenengo lana pobreak identifikatzea izango da nahitaez. Lan horrek bi zati ditu:

- a) Zer ezaugarri hartzen diren pobreziaren berezko ezaugarritzat zehaztea (ikus sarrerako kapituluan azaltzen den pobreziaren kontzeptua, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia kontuan hartuta emandakoa)

Herrialdeko hainbat datu orokor biltzen hasiko gara. Datu horiek kokapen eta ezaugarri geografikoei, lurralde-antolamenduari, biztanleriaren gaineko datu orokorrei (hezkuntza, osasuna, elikadura eta abar), bizi-itxaropenari, kultura-seinaleei eta abarrei buruzkoak dira. Proiektuaren hasierako ideian biltzen den lan-arloaren bilduma espezifikoa egingo da, eta, horrela, datuak emango dira eskualdean eta tokian-tokian.

Garrantzikoa da bermatzea informazioa biltzeko prozesuak giza eskubideen printzipioei ere erantzuten diola: parte-hartzailea, biltzailea, gardena eta kultura-aniztasunarekiko irekia.

Honako hauek izan daitezke batez ere adibide gisa erabiltzen diren adierazle batzuk:

- Giza garapenaren indizea (GGI) eta horren osagaietako buruzko datuak.
- Pobrezia-indizea.
- Diru-sarreraren ekitaterik ezaren edo GINIren indizea.
- Haur eskolatu kopurua eta horien ehunekoa. Hezkuntzak gutxieneko mailak eta abar betetzen ez dituen haur-biztanleria.

Herrialdeari buruzko informazio orokorraz gain, talde espezifikoetan eta kalteberatasun handiena duten area geografikoetan adierazle horiei buruz eskuragarri dagoen informazio gutzia bildu eta aztertu beharko da. Datu horiek sexuaren arabera bereizita agertu beharko dute. Esate baterako, honako hauek izan daitezke kalteberatasun handieneko taldeak: GIBa duen biztanleria, berealdiko pobrezia-egoeran dauden etniak, hiri-area marjinalak eta abar.

Toki mailan ardura duen pertsona funtsezkoa da egon litezkeen talde kalteberak identifikatzeko.

Beste kontsulta-iturri batzuen artean, informazio hori honako helbide hauetan aurki daiteke:

- PNUDaren giza garapenaren txostenak (www.undp.org).

- Milurteko Garapen helburuak (<http://mdgs.un.org/unsd/mdg/Data.aspx>).
- Munduko Bankua (<http://devdata.worldbank.org/wdi2005/section2.htm>).

Datuak aztertu eta datu horien fidagarritasuna egiaztatu ostean, datu adierazgari eta deigarrienen hautaketa egin beharko da kontu handiz; datu horiek izango dira azkenean diagnostikoan azalduko direnak. Arreta berezia jarriko dugu esku hartuko den zonarako pobrezia adierazleak egiaztatzeke. Horretarako, bilerak eta elkarrizketak egin beharko genituzke eragile nabarmenekin, esate baterako: esku hartuko den zonan gobernuak dituen ordezkariekin, tokiko liderrarekin, entitate akademikoekin, Nazio Batuen ordezkariarekin, zonan esku hartzen duten gobernu kanpoko beste erakunde batzuekin eta abar.

- b) Honako ezaugarri hauek dituzten biztanleria-taldeak identifikatzea³⁰

Lehenik eta behin, zeregina ez da soilik zenbateko bat aurkeztea izango, hala nola biztanlerian dauden pobreen proportzioa, baizik eta horretaz gain, zehaztu egin beharko da zein diren pertsona pobreak eta zenbateraino diren pobre. Hortaz, ikaragarri pobreak direnak, hau da, pobreen arteko pobreenak, baita talde espezifikokoak ere identifikatu behar dira hainbat ezaugarriaren arabera. Ezaugarriak honako hauek dira: sexua, kokapen geografikoa, jatorri etnikoa, erlijioa, adina eta okupazioa; eta era horretan, arazoari ahalik eta modurik zehatzenean ekin ahal izango zaio.

Bigarrenik, ahal dena egin behar da pobreen arteko bereziki okerren eta marjinatuta nortzuk dauden ezartzeko (esate baterako, emakumeak, GIBarekin edo HIESarekin bizi direnak, hirugarren adina, ezinduek eta arrazagatiko edo erlijioagatiko diskriminazioa pairatzen dutenak). Baliabideen mugak lehenetsuzko ordena ezartzera behartzen duenean, talde horietako pertsonak lehenetsuzko arreta jaso beharko dute. Hori nahitaezkoa da berdintasuna lortzeko, hots, giza eskubideetan oinarritutako planteamenduaren funtsezko printzipioa lortzeko.

- a) ETAPA³⁵

Herrialdea: Kongoko Errepublika Demokratikoa (Afrika Erdialdea)

Administrazio-antolamendua: Errepublika unitarioa

Biztanleak: 58.700.000

Azken gatazkak: 2 gerra zibil (1996/97-1998/2003)

Barne-desplazamenduak (milakoetan): 1.100

Errefuxiatuak asilo-herriaren arabera (milakoetan): 208

Errefuxiatuak jatorrizko herriaren arabera (milakoetan): 402

³⁵ Giza Garapenari buruzko 2007- 2008 aldiko Txostenetik lortutako datuak. 2008ko bigarren seihilekoan gertatutako krisialdi larriak eragin du azalduko datu asko gatazkaren ondorioz gaitzetea, tamalez.

- KEDen datu orokorrak

Kongoko Errepublika Demokratikoaren Giza Garapenaren Indizea: 0,411
 [oso txikia]
 Pobrezia Indizea: % 39,3
 GINI: ../. (osatu gabeko datuak)
 Generoari buruzko Garapen Indizea (GGI): 0,398
 Bizi-itxaropena: 45,8 urte Emakumeak: 47,1 urte Gizonak: 44,4 urte
 Haurren heriotza-tasa: % 129
 Hezkuntzara bideratzen den nazioko aurrekontuaren ehunekoa: ../.
 Osasunera bideratzen den nazioko aurrekontuaren ehunekoa: BPGaren % 1,1
 Hezkuntza EZ publikoa (matrikula-kostuak kasu guztietan. Familia-aurrekontuaren % 20 inguru haur bakoitzeko)
 Eskola-adinean dauden haurrak (6-11 urte): 3,5 milioi
 Matrikulazio konbinatuaren (lehen, bigarren eta hirugarren mailakoa) tasa: % 33,7
 Emakumeak: % 28 Gizonak: % 39
 Helduen alfabetatze-tasa: % 67,2
 Emakumeen alfabetatze-tasa: % 54,1
 Gizonen alfabetatze-tasa: % 80,9
 Eskolen % 75 saneamendu-sistematik gabe

Termino absolutuetan, KED da eskolatu gabeko haur kopuru handiena duen herrialdea.

- Eskualdearen datuak: Kikoi

Datu batzuk guk geuk egin ditugu (GGKE edo tokiko kontrako aldea), daturik ez zegoelako eskuragarri eta beste iturri batzuek ere ez zituztelako egin.

Bizi-itxaropena: 42 urte
 Haurren heriotza-tasa: Ez dago eskuragarri
 Hezkuntzara bideratzen den nazioko aurrekontuaren ehunekoa: % 9
 Hezkuntza EZ publikoa (matrikula-kostuak kasu guztietan. Familia-aurrekontuaren % 20 inguru haur bakoitzeko)
 Eskola-adinean dauden haurrak (6-11 urte): Ez dago eskuragarri
 Eskolatze-mailak: eskolatu gabeko 3.123 adingabe (% 74 neskek)
 Helduen analfabetismo-tasa: % 47
 Emakumeen alfabetatze-tasa: % 39
 Eskolen % 75 saneamendu-sistematik gabe

b) ETAPA

Erreferentziatzko testuinguruan dagoen pobrezia-aren ikuspegi globaletik bereziki kalteberak diren eta marjinatuta dauden pertsonen eta kolektiboaren singularizazioa jaisten gara. Horien identifikazioa behar adinako estaltze-mailarik ez duten hainbat adierazle gurutzatzearen ondorioz ere egin ahal izango da.

- KEDko talde kalteberak eta marjinatutak
 - Biztanleria desplazatua
 - Biztanleria errefuxiatua (Ruanda eta Burundi)
 - GIBa duen biztanleria
 - Borrokalaria ohiak (helduak / haurrak)
 - Haur abandonatuak (umezurtzak barne)
 - Sexu-, lan-, eta/edo salerosketa-esplotazioaren eraginpean dauden haurrak
- KikoIko talde kalteberak eta marjinatutak
 - Biztanleria desplazatua
 - Biztanleria errefuxiatua (Ruanda eta Burundi)
 - GIBa duen biztanleria
 - Borrokalaria ohiak (helduak / haurrak) edo talde armatuetan sartuta daudenak
 - Haur abandonatuak (umezurtzak barne)
 - Sexu-, lan-, eta/edo salerosketa-esplotazioaren eraginpean dauden haurrak
 - Neskei arretea eskaintzea, aurreko taldeetako bakoitzean

Datu horiek oinarri hartuta, eta gure esku-hartzearen egokitasuna balioestea-rran, komenigarria da, guk erakunde gisa dugun izaeratik abiatuta, lankidetzan, jakintzetan eta jardun-sektoreetan dugun esperientzia berrikustea. Halaber, lagun diezaguketen kontrako alderdi(k) ere identifikatu behar d(ir)a. Horretaz gain, le-hentasunez azpimarratuko dugun zuzenbideari buruzko nazioko eta nazioarteko erreferenteak izango ditugu kontuan, orokorrean behintzat. Era berean, zer baliabi-de ditugun eta zein lor ditzakegun izango dugu kontuan. Aintzat hartu beharreko beste alderdi bat honako hau izango litzateke: nola osatu eta lagundu beste ekimen batzuen lana.

Jardun interesgarria izan daiteke erakundearen bilera bat egitea proposatzea. Bilera horretan proiektuaren lantalde teknikoak eta batzordeko pertsona batek hartuko lukete parte. Pertsona hori entitatearen proiektu-arloa koordinatuko lukeena edo horrekin lotura handiena duena izango litzateke.

Oso oinarritzko galderen bitartez, honako hau erabaki nahi da: proiektua gure lan-ildoarekin uztartzen ote den eta gaitasunik ote dugun (bai langileei

dagokienez, bai lan-bolumenari eta baliabideak lortzeari dagokionez, eta abar) une honetan geure buruari hori planteatzeko.

- *Sartzen al da gure jardun-arloetan?*

Gure erakundearen kasuan, hezkuntzarako eskubidea gure jardun-eremuetako bat da argi eta garbi, eta zona horretan badugu esperientzia biztanleriari buruzko eskaerak bidali dizkigun kontrako alderdi berekin. Izan ere, eskaera horiek aurreko esku-hartzeen ebaluazioaren inguruko topaketetan agertu dira.

Orain arte, hainbat esku-hartze egin ditugu zonan; esku hartze horiek oraindik bukatu gabe dagoen gatazkaren ondoren azpiegiturak berriz eraikitzen bideratuta daude batez ere. Nolanahi ere, gure erakundearen barnean egin ditugun gogoetetan ikusi dugu nahitaezkoa dela antolatzen ari garen lanari dagokionez aurrera egitea eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi hezkuntzari lotutako gure ekarpenean txertatzea.

Hortaz, etengabeko gatazka- eta kalteberatasun-egoeran dagoen eskualde batean (egoera horren ondorioz, eskualdea laguntza humanitarioko esku-hartzeen mendeko da eta nolabaiteko normaltasunera eramango duten urratsak egiteko ahaleginak egiten dira) nahitaezkoa da hezkuntza lantzea, baina ez larritasun-egoeran, baizik eta zonan egonkortasuna eta garapen-prozesuetarako oinarri sendora sortuko duten epe ertaineko prozesuetan txertatuta. Hezkuntza azpiegituren oinarritzko planteamen duekin eta eskolak ematen hastearekin lantzen da, baita ikuspegi globalago eta zabalago batekin ere, haurrei hezkuntzarako eskubidea bermatuko diena abusu moten eta babesgabezia mota orotatik urrundu duen giro seguru batean. (Ikusi 2. eranskina).

- *Normal lan egiten al dugu biztanleria-talde horiekin, haurrekin kasu honetan?*

Haurrengana (eta horien eskubideak onartzea eta eskubide horiek erabat gauzatzeko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren esparruan) bideratzen ditugu batez ere gure jardunak.

- *Lantaldean (lantaldea zentzu zabalean hartuta, kontrako aldeare barnean hartzen duena) ba al dago estrategia bat diseinatzeak, eta hala badagokio finantzatzaileak bilatzeak, joan-etorriek eta taldearen koordinazioak ekar dezakeen lan-zama bere gain har dezakeen inor?*

Orain beste proiektu bat ixten duen eta strategiaren identifikazioa eta diseinua bere gain har dezakeen eta behar bezala formulatu ondoren estrategia aurkezteko bi deialdi identifikatuta dituen teknika bat dago.

Beharrezkoa izango litzateke zonara lekuz alda daitekeen eta kontrako alderdiarekin zuzenean lan egin dezakeen erbesteratu bat sartzeko aukera proposatzea. Aurreko esperientziaren arabera, nahitaezkoa da kanpoko babesa, baina tokiko koordinatzailea izango da gehieneko ardua izango duena.

Hipotesia: Litekeena da erakundeak dagoeneko erbesteratu bat izatea zonan eta horrek lana bere gain hartzeko aukera izatea.

Gerta liteke erakundeak bere fondo propioak, proiektu honetara eta diseinatzeko den estrateziara bidera litezkeenak, izatea.

Era berean, une egokia izan daiteke mahai gainean beste proiektu bat dagoela (erakundearen arabera lehentasunezkoa dena) ikusteko, nahiz eta proiektua gure profilerak ezin hobeki egokitu.

2. Testuinguru espezifikoa

Atal honetan, lortu beharreko emaitza **lehenetsitako eskubidearen barruan landuko dugun arloa eta tartean sartutako kolektiboak** (eskubideen titularrak eta betebeharren titularrak) identifikatzea da. Ezin dugu ahaztu arlo horrek beste eskubide batzuekin eduki dezakeen lotura. Halaber, kontuan izan beharko dugu beste ekimen batzuetatik eratorritako aliantzak eta ikaskuntzak ezartzeko aukera dagoela. Horretarako, honako ohar hauek baliagarriak izan daitezke guretzat.

Kolektibo pobreenen artetik talde kalteberenak, baztertuenak eta marjinaletuenak identifikatu daitezkeen lehenetsia. Gerta liteke talde horiekin zuzenean lan egiteko aukerarik ez izatea, baina beti gogoan izan behar ditugu prozesuan. Esku hartzeko arlo espezifikoa identifikatu ostean, errealitatea egiaztatuko dugu hasiera batean zer kolektiborekin lan egin dezakegun ikusteko. Baliteke hasitako prozesuaren ondorengo uneetan (hainbat proiekturen batura) beste kolektibo kalteberagoetan sartzeko aukera izatea.

Abiapuntua honako hau izango da: gurekin lankidetzan jardungo duen komunitateak lehenetsitako eskubidearen kontzeptuaren egiaztatzea. Nahitaezkoa da arreta berezia jartzea talde kalteberenak eta marjinalenak osatzen dituzten pertsonen parte har dezaten. Talde horiek zein diren galderaren inguruko hasierako hipotesitik abiatuta, talde horretako kide batzuek prozesu honetan parte hartzeak ahalbidetzen du kide horiek konturatzeko beren eskubideak ez direla gauzatzen.

Nazioarteko, nazioko, tokiko eta antzekoetako legezko testuetako eta txostenetako ataletan oinarritzea. Giza eskubideei dagokienez, herrialdeak dituen nazioarteko konpromisoak ezagutzea. Lehenetsitako eskubidea nazioko legedian zentzuzko modu batean sartuta dagoen ezagutzea. Eskubide hori urratzen den kasuetarako errekurritzeko dauden mekanismoak ezagutzea.

Atal honetan honako alderdi hauek identifikatuta geratzen dira:

- Lehenetsitako eskubidearen osagaiak (prestasuna, eskuragarritasuna, onargarritasuna eta egokitasuna) (**Ikusi 4. taula**).
- Lehenetsitako eskubidearekin lotutako dimentsioen titularrak.
- Betebeharren titularren obligazioak.
- Lotutako beste eskubide batzuk.

Lau elementu horiek **bereziki kaltebera den kolektiboa** (gure esku-hartzeak horretan jarriko du arreta) definitzeko edo identifikatzeko jarraibideak emango dizkigute. Horrekin, ahaleginak zentratzea eta emaitzak ardaztea lortuko dugu. Eta horrela jakingo dugu zer kolektiborekin eta zer edukirekin egin dezakegun lan gure errealitatekin eta testuinguruarekin bat etorritz.

Identifikazio-faseari esleitutako lantalde teknikoa osatzen dugunok barne-gogoeta bat egin dugu hezkuntzarako eskubidearen edukari (ezarriko dugun estrategiaren muina) dagokionez.

Komunitatearekin eta intereseko taldeekin landuko ditugun dinamikak prestatzeko abiapuntu gisa egiten dugu. Izan ere, haiekin lantzen duguna oinarri hartuta, hezkuntzarako eskubidearen funtsezko elementuak –aurreko taulan azaltzen zirenak– identifika ditzakegu: 1. Hezkuntzarako eskubidearen osagaiak; 2. Hezkuntzarako Eskubidearen adierazpenen titularrak; 3. Betebeharren titularren obligazioak eta titular horiek zein diren; 4. Hezkuntzarako eskubidearekin lotutako eskubideak. (Ikusi atal bukaeran sartutako koadroak).

Hezkuntzarako eskubideari buruz ahalik eta kontzepturik laburrena egiteko gure testuinguruan, hots, eragingo dugun errealitatean egiten dugun **LEHEN URRRRATSA** honako hau da: laguntza gisa erabiliko ditugun legezko testuak eta nazioko eta tokiko legeak nahiz eskubide hori gauzatu ahal izateko dauden mekanismoak identifikatzea:

*Nazioarteko legedia eta konpromisoak***Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturelei buruzko Nazioarteko Ituna****13. artikulua**

1. Itun honetako Estatu Kideek onartzen dute pertsona orok hezkuntzarako eskubidea duela. Bat datoz honako ideia honekin: [...] hezkuntzak **pertsona guztiak gaitu** behar ditu gizarte aske batean modu eraginkorrean parte hartzeko, [...]
2. Itun horretako Estatu Kideek honako hau onartzen dute eskubide hori erabat gauza dadin lortzeko:

- a) Lehen hezkuntzak derrigorrezkoa izan behar du eta denek dohai-nik eskuratzeko modukoa.
- b) Bigarren hezkuntzak (dituen forma desberdinetan, bigarren hezkuntza tekniko eta profesionala barne) orokorra izan behar du eta denek lortzeko modukoa, egokiak diren bitartekoak erabiliz, eta bereziki doako irakaskuntza pixkanaka ezarriz.
- c) Irakaskuntzak ere denek lortzeko modukoa izan behar du, norbe-raren gaitasuna oinarri hartuta, egokiak diren bitartekoak erabiliz, eta doako irakaskuntza pixkanaka ezarriz.
- d) Ahal den neurrian, funtsezko hezkuntza sustatu edo indartu behar da lehen hezkuntzaren ziklo osoa jaso edo bukatu ez duten pertsonentzat.
- e) Aktiboki jarraitu behar da eskola-sistema garatzen irakaskuntza-ziklo guztietan, beka-sistema egokia ezarri behar da eta irakasleen baldintza materialak etengabe hobetu behar dira.

14. artikulua

Itun honetako Estatu Kide orok, Itun honetako kide egiten denean, bere metropoli-lurraldean edo bere jurisdikzioaren mendeko beste lurralde batzuetan lehen hezkuntzaren derrigorrezkotasuna eta doakotasuna ezartzeko oraindik aukerarik izan ez badu, honako konpromiso hau hartuko du: derrigorrezko eta doako guztiontzako irakaskuntza-printzipioa pixkanaka ezartzeko (planean ezarritako arrazoizko urte kopuruaren barnean) ekintza-plan xehatua egiteko eta hartzeko bi urteko epean.

- **11. ohar orokorrak** (1999): Lehen hezkuntzarako ekintza-planak (Itunaren 14. artikulua) eta 13. zenbakia (1999): Hezkuntzarako eskubidea (Itunaren 13. artikuluari buruzkoa).
- **Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa**: 28. eta 29. artikulua eta 1. ohar orokorra (2001): Hezkuntzaren jomugak.
- **Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro desagerrarazteari buruzko Konbentzioa** (10. artikulua).
- **Munduko hitzaldiak**: Guztiontzako Hezkuntzarako Munduko Konferentzia (1990); Guztiontzako Hezkuntzari buruzko Biltzarra: Delhiko Deklarazioa eta Ekintza Esparrua (1993); Guztiontzako Hezkuntza: Dakarreko Ekintza Esparrua (2000).
- **Milurteko 2. eta 3. Garapen-Helburuak**: lehen hezkuntza unibert-sala lortzea; sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.

- **KEDi dagokionez PNUdak emandako datuak Milurteko Gara-pen Helburuak betetzeko:** lehen hezkuntzako 3.000 eskola eta biga-ren hezkuntzako 1.100 eskola inguru eraikitzea edo birgaitzea ondo-rengo hiruzpalau urteetan.

Hezkuntzarako eskubideari buruzko nazioko legedia eta nazioko edo tokiko garapen-esparrua

- **Gertakarien Plan Nazionala, eskoletako segurtasuna eta baliabide ekonomiko gehiago izatea biltzen duena.**
- **Ikaskuntza Azeleratuaren Programa Ofiziala.**
- **Giza eskubideei buruzko nazioarteko itunak Kongoko Errepublika Demokratikoak (NBEren kide 1960tik aurrera) berrestea)**

ITUNAK	BERRESPENA	ERRESERBAK (kontrol mekanismoekiko)
Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna	X	
Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Ituna	X	
Arraza Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Nazioarteko Hitzarmena	X	
Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Konbentzioa	X	
Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel edo Iraingarrien aurkako Europako Konbentzioa	X	
Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.	X	
Migrazio-langile guztien eta beren familien eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa		
Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa	X	
Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa	X	

Diagnostikoaren zati honen ardura duen lantalde teknikoa garen aldetik, **BIGARRRREN URRRRATSA** egingo dugu; horretarako, Hezkuntzarako Eskubidearekin lotutako alderdi batzuk identifikatuko ditugu. Alderdi horiek intereseko taldeekin lan egiten dugunean atera beharko lukete:

- **Kalitatezko hezkuntza:** kalitatezko eskubide bat egiteko behar diren

funtsezko 4 osagaiak kontuan hartuta egiten dugu:

1. **Prestasuna:** doako eskolak, behar diren zerbitzu eta prestazioekin (ura, saneamendua, behar adinako hornidura, liburuak eta koadernoak barne...), tokiko eta nazioko azterketa-planek babesten dituztenak (giza eskubideen alorreko prestakuntza espezifikoa biltzen duten planak) eskola-planaren etapak planifikatzen dituztenak (jakintzak ikasteari dagokionez pixkanaka prestatzeko eta behar diren trebetasunak eta gaitasunak lortzeko), irakasle trebatuak eta ondo ordainduak, haurrentzako inguru segurua eta abar.
 2. **Irisgarritasuna:** ondo komunikatuta dauden zonetan eta herrixka bakar bat ere eskola bakar batetik ere urrunegi utzi gabe, urruneko herrixketarako garraioa, neskentzako gutxieneko plaza kopuru bat bermatzea, elikadura osasuntsuari buruzko programak, familietako haur guztien eskolatzea lagunduz.
 3. **Onargarritasuna:** onartutako azterlan-programa, zonako hizkuntzak zaintzen dituenak, joko mistoak, inoiz ez mutilen eta nesken arteko banaketa eragiten dutenak, haurren iritziak entzuteko dinamikak edo mekanismoak proposatzea (etxean edo eskolan galdetzen al zaie zer nahi ote duten? proposatzen al da eskolan emandako hainbat ordu haiekin ebaluatzea?, uzten al zaie jokoak edo lanerako gaiak aukeratzeko?) ikasgeletako edukiak haur horien errealitatea kontuan hartuta (adibidez, tokiko ortuetako produktuak aipatzen dituzten matematika-problema...)
 4. **Egokigarritasuna:** euriteak, landaren zikloak, erlijio-jaiegunen egutegia eta abar kontuan hartzea.
- **Betebeharren titularrak** (hezkuntza eskuratzeari eta kalitatezko hezkuntza izateari dagokionez, hainbat agentek dituzten betebeharrak): Estatuak, tokiko agentariak, gurasoak, irakasleak, batzordeak, ...
 - Hezkuntzarako Eskubidearen edozein dimentsioren **eskubideen titularrak:** haurrak (errefuxiatuak eta desplazatuak, borrokalari ohiak, sexu-, edo lan-abusuen biktimak...) gurasoak, irakasleak, Hezkuntzako tokiko Idazkaritza,...

Guk (lantalde teknikoak) komunitatearekin eta haurrek Hezkuntzarako duten Eskubidea gauzatzeari dagokionez inplikaturako beste kolektibo batzuekin presatu ditugu lan-jardunaldiak. Dinamiken eta izaten diren elkarriketen emaitzetatik honako hauek atera behar dira: lanean ari gareneko barrutiko biztanleriarentzako Hezkuntzarako Eskubidearen osagaiak, betebeharren titulu-

larrak, Hezkuntzarako Eskubidearekin lotutako eskubideak eta Hezkuntzarako Eskubidea eskuratzeari dagokionez beren errealitatean kalteberenak eta marjinatuenak diren taldeak, betiere ezartzen diren baldintzen arabera.

Erabaki da Hezkuntzarako Eskubidea gauzatzeari dagokionez, talde kalteberenak eta marjinatuenak identifikatuko direla lehendabizi. Kontrako alderdiaren esperientzia kontuan hartuta, eragingo dugun gizartearen kolektibo eta sektore pluralak ordezkatzeko dituzten hainbat pertsona hautatzeko dira: zonako eskolara joaten diren haurren gurasoak, zonako irakasleak, eskolatzeko adina duten adingabeak dituzten gurasoak, adingabeak bere kargura dituen emakume edadetu bat, tokiko agintariak, adingabe borrokalari ohi bat eta abar. Pertsona horiek guztiek lantalde teknikoarenganako konfiantza dute, aurreko proiektua ezagutzen dutelako edo han parte hartu dutelako.

Ezin dugu ahaztu aurreko proiektuan parte hartu izanak hainbat joera sor ditzakeela partaidetzari eta informazioa eskuratzeari dagokionez. Ahaleginak egin behar ditugu aurreko proiektuan parte hartu ez zuten familiek eta pertsonak ere parte har dezaten diagnostikoan, bai baitakigu horien inplikazio-maila hasiera batean txikiagoa izango dela.

Halaber, diagnostiko oro egiteak parte hartzen duten familia eta pertsonengan sortzen dituen itxaropenak ere kontuan hartu behar dira; diagnostiko horrek, gainera, parte-hartzaileen erantzunak eta erreakzioak baldintzatzen ditu.

Bi dinamika dituen lan-saio bat antolatzen da:

1. dinamika: Power Walk

Dinamika horrekin talde kalteberenak eta marjinatuenak identifika ditzakegu, baita talde horiek egoera horretara bideratzen dituzten ezaugarriak ere. Dinamikatik eratortzen diren ondorioetatik dauden desberdintasunak gauzatu gabeko eskubideei lotu dakizkieke.

Dinamika prestatzeko, tokiko entitateak (gu mugitzen gareneko errealitatea ondo ezagutzen du) komunitatean edo eskualdean dauden pertsona multzo bat prestatuko du, baita pertsona horiei eragiten dion eta lantzen ari garen testuinguruari erantzuten dion zirkunstantzia multzo bat ere. Esaterako:

PERTSONAIK

- Tokiko burua, erdi-mailako ikasketak dituen.
- Familiako guraso analfabetoa eta duela 6 hilabete urruneko eskualde batetik desplazatua.

- Emakume analfabeto alarguna eta bere kargura lau adingabe dituen, sexu-abusuen biktima eta barne-desplazatua.
- Komunitateko 9 urteko neska, eskola-urterik galdu ez duena eta bere familiarekin bizi dena. Familiak denda bat du zonan.
- 11 urteko mutiko borrokalari ohia, 5 urte zituela eskola utzi zuena, eta adingabeen zentro batean bizi dena.
- .../...

EZAUGARRRRIAK:

- Gizona: 2 urrats aurrerantz.
- Emakumea: 2 urrats atzerantz.
- Desplazatua edo errefuxiatua: 2 urrats atzerantz.
- Erdi-mailako ikasketak: urrats bat aurrerantz.
- Bakarrik dagoen eta familia-kargak dituen emakumea: 3 urrats atzerantz.
- Bere familiarekin bizi den mutila eta eskola-urterik galdu ez duena: 2 urrats aurrerantz.
- Bere familiarekin bizi den neska eta eskola-urterik galdu ez duena: 1 urrats aurrerantz.
- .../...

Parte-hartzaile bakoitzari pertsonaia bat emango zaio. Parte-hartzaileak abiapuntu-marra berean kokatuko dira, giza eskubideen berdintasun-printzipioa islatuz. Komunitate hori osatzen duten pertsonen ezaugarriak zerrendatuko dira (esate baterako, gizona edo emakumea eta abar) eta pertsonaiek aurrera edo atzera egingo dute dinamizatzaileak emandako oharren arabera eta errealitate soziala islatzen duten baremoak kontuan hartuta.

Kontuan hartu beharreko aldagai guztiak zerrendatzen amaitzen denean, grafikoan ikusi ahal izango da alde handiak daudela ezaugarri batzuk edo beste batzuk edukitzeagatik soilik. Hortaz, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioa ez da behar bezala gauzatzen ari.

Horretaz gain, dinamika horren emaitzak kontuan hartuta, talde kaltebera eta marjinatuenak identifikatuko dira:

- Indarkeriaren biktimak diren neska umezurtzak edo abandonatuak.
- Neska umezurtzak.

- Familia errefuxiatuetako edo desplazatuetako haurrak.
- Itzulitako familietako haurrak.
- Etxeko indarkeriaren biktimak diren neskak.
- Amona edadetuen kargura dauden haurrak.
- Haur borrokalari ohiak.
- Irakurtzen eta idazten ez dakiten nerabeak.
- Nerabe ezkonduak, oso gazteak eta adingabeak bere kargura dituztenak.
- .../...

2. *dinamika:*

Hezkuntzarako Eskubidearen kontzeptua egiteko dinamikan parte hartuko duten pertsonak hautatuko dira, zonako bereziki kalteberak diren kolektiboak eta taldeak ordezkatzeko dituztenak barne (zonara itzulitako pertsona bat, adingabeak bere kargura dituen amona bat, adingabe borrokalari ohi bat eta abar), betiere diagnostiko honekin lortu nahi dugun helburua eta denborari dagokionez dauzkagun mugak kontuan hartuta (talde honek 12 lagunek osatzen dute gehienez).

Lehenik eta behin hautatutako taldeari azalduko diogu zeri egiten diogun erreferentzia talde kalteberei buruz hitz egiten dugunean, eta eztabaida-prozesu txiki bati emango zaio hasiera esku hartuko den zonan haien ustez zein taldek duen garrantzi gehien identifikatzeko (ideia-jasa).

Hori egindakoan, honako dinamika hau proposatzen dugu.

Dinamika: Hezitako pertsonaren gorputz-masa

Galdera oso orokor bat egingo da haien ustez, hezitako pertsona batek zer daukan eta zer egiten duen erantzun dezaten. Elkarrizketa arin bat, gutxi landua, proposatzen da ideia-jasa gisa.

Ziur asko, iradokizun gehienek hezkuntzaren abantaila ekonomikoekin eta sozialekin zerikusia izango dute. Ondorengo galdera osagarri hauek eztabaida zabaltzen lagunduko dute:

- Zer etxe, ortu edo hazienda du hezitako pertsona horrek?
- Zer rol izaten du elkarrizketa batean? Gehien hitz egiten eta proposatzen duena izaten al da?
- Nola erlazionatuko da beste pertsona batzuekin haren hurreneko tokiko ingurutik kanpo?

- Zer lan egiten du?
- Zer rol betetzen du komunitatean? Eta bere familiak?
- Nola hitz egiten dute harekin tokiko edo eskualdeko agintariek?
- .../...

Jardun horretan sakontzeko, taldeak azter lezake pertsona hori nola bihurtu zen hezkuntza duen pertsona eta zenbat urte zituen, zer zeukan eskolak hezkuntza hori emateko, nola, non eta norekin ikasi zuen eta abar.

Gure kasu praktikoan, bigarren dinamika hori egin ondoren, honako informazio hau ateratzen da honako galdera hauei buruz: zer da Hezkuntzarako Eskubidea?, edo guk landu ditugun herritarren taldeen edo komunitatearen ustez zer da Hezkuntzarako Eskubidea?

- *Kalitatezko hezkuntza:*
 - Egunero joango diren irakasleak dituzten eskolak izatea.
 - Haurrentzako koadernoak eta bolalimak izatea.
 - Mailen arabera bereizitako ikasgelak izatea.
 - Komunitateko konfiantzako helduak izatea, eskola-orduetan irakasleari lagunduko diotenak, haurrak eta bereziki neskek ondo daudela bermatuz.
 - Eskolak distantzia egokian izatea.
 - Haurrek bide arriskutsu eta bakartietatik mugitu behar ez izatea edo bidea bakarrik egin behar ez izatea.
 - Etenik gabeko ikasturteak izatea eskolan (eskola-orduak ez daitezela eten hilabeteetan).
 - Haurrek eskolan zerbait jan dezaketela jakitea.
 - Hurrei eskoletan zertaz hitz egiten dieten jakitea eta horren berri izatea
 - .../...
- *Betebeharren titularren obligazioak:*
 - Hezkuntza Ministerioa (ustez irakasleei agintzen diena) ezagutzea, aurpegia eta izena jartzea.
 - Gurasoekin biltzen diren irakasleak, eskolaren funtzionamendua, eskola-egutegi itxia eta abar azaltzen dituztenak.
 - Azterlanari eta hezkuntzari buruzko planak, tokiko agintariek babestu eta sinatzen dituztenak.
 - Eskoletan baldintza seguruak sortzea
 - – .../...

- *Lotutako beste eskubide batzuk:*
 - Osasunerako eta elikadurarako eskubidea, bereziki neskek.
 - D D Diskriminaziorik eza, batez ere eremu urriko hizkuntza hitz egiten duten hurrei dagokionez.
 - Lanerako eskubidea.

Dinamika horietatik lortzen den informazioari berriz ere heldu ahal izango zaio diseinatzen ari garen estrategia-esparruan definitzen diren adierazleak lantzen direnean. Halaber, interesgarria izan daiteke honako fase hauetan kontuan hartzea adierazitako informazioa: gauzatuko den proiektuari jarraipena eta ebaluazioa egiteko faseetan eta hezkuntzari dagokionez, esku hartuko den zonan lortutako aurrerapenak ebaluatzeko faseetan.

Hezkuntzarako Eskubidetzat hartzen denari buruzko irudi zehatza izateko eta komunitateak duen ikuspegia osatzeko, lantaldeak hiru bilera egin ditu oso eremu berezietan:

1. Bilera ACNURen / ECHORen / UNICEFen / UAren (edo antzeko erakunderen baten) delegatuarekin. Bilera horretan gai horiei buruz hitz egin da zuzenean.
2. Bilera eskualdeko alkatearekin eta eskualdeko erlijio-agintari batekin.
3. Bilera aldameneko eskualde bateko Gazteen Klubetako batekin. Klub hori hurrekin eta gazteekin hezkuntzagune informaletan lan egiten duen erlijio-komunitate batek jarri zuen abian duela urte eta erdi.

Dinamika eta izandako elkarrizketa horietatik honako hau ondorioztatzen da:

- Familien ustez, hezkuntza komunitatearen erantzukizuna da, ez Estatuarena, eta estatuari eskerrak ematen dizkiote bidaltzen duen maisu edo andereño bakoitzeko.
- Agintarien edo prestatuago dauden pertsonen ustez, agintariiek bermatu behar duten eskubidea da; nolana ere, ez dakite nola egin eskaera esplizituagoa nazioko gobernuari; izan ere, gobernu horrek beti aitzakiak jartzen ditu eskabideak egiten direnean edo eskaerak egiten direnean.
- Zonako haurrak ez daude prestatuta Estatuko Ikasketa Planen arabera ezarritako eskola estandarrak jarraitzeko. Orokorrean, hurrek denbora asko eman dute hezkuntza-alorretik urrun, eta ez dute ez jakintzarik, ez ohiturarik.
- Hurrek ikasgaiak aprobetxatzeko aukera izan dezaten nahi bada, nahitaezkoa da lo ez geratzea eta ohitura bat hartzeko aukera izatea. Erabakigarritzat hartzen da elikadura osasuntsua bermatzea.

- Haurrak ez daude eroso eskolan, ez baitaukate oinarriko materialik, hala nola ez daukate ez ikasmahairik, ez arbela klarionekin, ez koadernorik denontzat.
- Familien ustez, nesken hezkuntza ez da hain beharrezkoa, berehala ezkontzen direlako eta nesken lana ez delako erantzukizuneko postuak beren gain hartzea, baizik eta etxeaz arduratzea baizik.
- Programa nazionaletan ez da prestakuntza kontuan hartzen giza eskubi-deetan.
- Irakasleak ez dauka birziklatzeko laguntzarik, eta oso zaila da familia-erantzukizunak dituzten emakume irakasleek baldintza egokiak izatea landa-eskola batean lanpostua onartzeko.
- .../...

Aurreko dinamiketako emaitzak eta datuak kontuan hartuta, eta errealtatearekin eta gure erakundearen profilarrekin alderatzen baditugu, gure esku-hartzearen muina izango den talde kaltebera hautatzen da.

Gure erakundeak haur kalteberenen babesa du oinarri. Esperientzia dauka-gu biztanleriaren gaitasunak eta trebetasunak ez ezik eskola formalari eta ez-formalari lotutako egitura eta erakunde sozialak ere garatzen. Kontrako alderdiak ondo ezagutzen du zona eta esperientzia du hezkuntza-sistema eta hezkuntzarako eskubidearen inguruan antolatzen diren talde guztiak babesteko eta indartzeko lanean.

Irizpide horiek eta dinamiken emaitzak kontuan hartuta, honako talde kaltebera hauek identifikatzen dira haur kalteberenen barruan:

- Atzera itzulitako, desplazatutako edo errefuxiatutako haurrak.
- Haur borrokalari ohiak.
- Haur abandonatuak (asko, aitarik eta amarik ez dutenak).
- Sexu-, lan-, eta/edo salerosketa-esplotazioaren biktimak diren adingabeak.
- Neskak kategoria guztietan, neska horiek sexu-abusuak jasan izana kontuan hartuta bereziki.

Ondorengo faseetarako prozesu osoaz arduratuko den lantalde bat sortuko da, eta horri esker, diagnostikoa egiteko eta ezartzeko ondorengo urrats metodologikoen definizioarekin jarraitzea ekarriko du.

Ondorengo fase horietan hiru urrats saihestezin izango dira, eta urrats horiek erreferentziazko aukerak izango dira:

1. Kontzientzia piztea

Jendeari jakinaraztea eskubideak dituztela, ezin dietela horiei uko egin eta orain ez dietela eskubide horiek baliatzen uzten. Hori nahikoa izan daiteke eskubideei buruzko interesa izateko, prozesuaren zati direlako.

2. Eskubideari zentzua ematea toki mailan

Eskubide bakoitzari buruz dagoeneko dauden xedapenak aztertzea, konstituzioak eskaintzen duena ulertzea eta eskubideak erabat gauzatzea lortzeko zer falta den erabakitzea.

3. Gaitasunak, jakintzak eta konfiantza indartzea

Ahalduntze hori nahitaezkoa da gobernuari eta eskubideen titularrak diren beste batzuei eskatu ahal izateko beren betebeharrak betetzeari dagokionez konituak eman ditzaten eskatzeko.

Ondorengo etapak garatuko dituen lantaldea, hots, hezkuntzarako eskubidearen lorpenarekin eta eskubide hori ez errespetatzearekin inplikaturik dauden kolektiboak ahalik eta gehien ordezkatu dituen lantaldea eratzeko, diagnostikofasean bildutako esperientzia aprobetxatuko dugu. Horrela, bada, talde hori nork osa dezakeen galderari buruzko proposamenak dagoeneko gurekin harremanetan egon diren kolektiboak, entitateak, erakundeak eta pertsonak (eskola-adinean dauden adingabeen gurasoak, irakasleak, nazioarteko erakundeen ordezkariek, hala nola ACNUR edo ECHO eta abar) berraztertuz egiten dira.

Guk esku hartzeko, hainbat proposamen egiten dira, baina denak ez dira onartzen:

- Zonako eskoletako gurasoen ordezkariek (2 lagun).
- Haurrak babesteko batzordeen (eskualde mugakideetako batean martxan daudenak) ordezkariek bat.
- Lehentasunezko hartzen diren taldeetako haurrak.
- Haurtzaro normalizatuagoa duten haurrak, eskualdean familia-nukleo egonkorrak dituztenak.
- Zonako giza eskubideetan aditua den pertsona bat.
- *Groupe des ONG Travaillant en Education au Congo* GOTECen ordezkariek bat. GOTEC trukatzeko foro bat da, eta bere helburua eragiteko politika zentralak garatzea da, hezkuntzarako eskubideari dagokionez gobernuan eragina izateko. Gaurdaino, gure erakundeak ez du eragiteko talde hori osatzen.
- ACNUR, ECHO eta zonako PNUDaren ordezkariek. Bilerak egin dira horiekin guztiekin, eta prozesua azaldu zaie. Prozesuan sar daitezela proposatu zaie.

- Herri Administrazioaren ordezkari bat. Alde batetik, Giza Eskubideen Defentsa Erakundearen eta Hezkuntza Ministerioaren partaidetza eskatu da. Hezkuntza Ministerioak Hezkuntza Batzorde Probintzialen ordezkari bat bidaliz hartzen du parte. Batzorde horiek aldameneko eskualdean sortu dira, baina gure zonan ez daude oraindik eratuta. (Batzorde horiek sortu berriak dira. Gobernuak bultzatu ditu eskolak modu autonomoan finantzatzeko, Estatuarekiko mendekotasuna murriztuz).

Gomendatzen da lantaldea 6/8 pertsonatik gorakoa ez izatea, erabakiak hartzeko garaian ez bailitzateke oso eraginkorra izango. Dena dela, diagnostiko-fasearen buru izan diren pertsonak (gure erakundea eta tokiko kontrako alderdia) koordinatu eta dinamizatuko dute prozesuaren ondorengo etapetan modu aktiboan parte hartzeko bereziki sortutako talde berri hori.

Kalitatezko eskubidea egiteko funtsezko osagaiak

Prestasuna: Eskubide bat erabat gauzatzeko behar diren bitartekoek eta baliabideek bertan egon behar dute, baldintza egokietan eta behar adinakoetan.

Eskuragarritasuna: Dauden egiturek eta zerbitzuek herritar guztientzat irekita egon behar dute, diskriminaziorik gabe, eta sektore marjinatuak sartzea bermatuko duten ekintza positiboak sartu beharko dira.

Onargarritasuna: Eskubide bat gauzatzea erraztuko duten ondasunak eta zerbitzuak modu eraginkorrean egokitu beharko dira, kalitatez eta modu ez-diskriminatzailean (bereziki generoa kontuan hartuta) eta kultura-aniztasunarekin bat etorritik.

Egokitasuna: Eskubide bat gauzatzea erraztuko duten ondasunak eta zerbitzuak malgutasunez eratu behar dira testuinguru espezifikoetara aldatzen ari diren testuinguruei erantzuteko.

Honako hau da kalitatezko eskubidea: beste eskubide batzuekin batera, pertsonak gaitzen dituen bizitza osoa eta duina garatzeko. Pertsona ez da inola ere agente pasiboa.

«Hezkuntzarako eskubidea: praktikatzaile eta aktibistentzako gida» deiturikotik egokitutako taula, Actionaid Internacional

Kalitatezko hezkuntza

Lau elementu zehatz oinarri hartuta aztertzen da: material didaktikoa, pedagogia, hezkuntza-prozesua, hezkuntza jasotzea eta hezkuntzaren kudeaketa. Kalitatezko hezkuntzaren «osagaiak» aldatu egingo dira leku batetik bestera, tokiko testuinguruaren eta hezkuntzari buruz dagoen ikuspegiaren arabera. Honako hau izango litzateke abiapuntu egokia: kalitatezko hezkuntzak esku hartzeko zonako pertsonentzat duen esanahia.

3. KAUSEN ANALISIA

Aurreko urratsari esker, hautatuta dauzkagu problematika nagusiak eta problematika horrekin lotutako eskubideak sektore espezifiko baterako eta biztanleria jakin baterako. Lehenetsuna eman zaio eskubide jakin bati buruzko ardazteari, eta eskubide horri lotutako beste eskubide batzuk hartu dira kontuan (nolanahi ere, etapa honetan eskubide horiek identifikatzen jarraituko da). Kontrako alderdiarekin adostutako pobrezia-aren kontzeptua oinarri hartuta, lehenetsitako eskubideari lotutako kontzeptuari edukia eman zaio tokiko biztanleriarekin batera.

Giza eskubideak pobrezia-aren aurkako borrokan sartzeak behar diren tresna guztiak ematen ditu pobrezia-aren iturburuak (jardunbide diskriminatzaileetan daude) ezartzeko eta pobrezia tratatzeko estrategia egokiak garatzeko. Pobrezia-aren iturburu sakon horiek identifikatu ahal izateko, kausen analisia da funtsezko tresna.

Kausen analisisan zergatiak sakondu behar dira, lehenetsitako eskubidea gauzatzeko egindako ez-betetzeak, ez-betetze horien eraginpeko beste eskubide batzuk eta legezko esparruak nahiz esparru juridikoak eta hainbat eskubide baliatzeari dagokionez ez-betetze horien segidan zeregin erabakigarria duten politikak esanbidez aipatuz. Anisali horiek guztiak esku-hartzearen lehenetsun gisa hautatutako kolektiboak hartu beharko lituzkete kontuan batez ere, kolektibo horiei buruzko informazio espezifiko esanbidez bilduz. Komenigarria da orokortasunetan ez erortzea. Zenbat eta zehatzagoa izan talde honetarako garrantzitsua den informazioa, orduan eta erabilgarriagoa izango da kasuen analisian estrategia lantzerakoan. Horretaz gain, erabakigarria da etapa honetan adostasuna lortzea, zeren adostasun hori ez bada kausalitatean lortzen, nekez lortuko baita konponbideei buruzko adostasunik.

Anisali hau arrisku- edo kalteberatasun-analisiarekin osa daiteke –gure erakundeetan ziurrenik jada erabiliko ditugu horrelako anisaliak–. Horrela, errealitatearen ezagutza zabalagoa izango dugu, eta horrenbestez, aukera gehiago izango dugu lantzen ari garen testuinguruarentzat strategiari egokiena aukeratzeko.

Lantaldeak fase honetan aplikatuko den metodologia prestatuko du. Metodologia horretan funtsezkoa da eragina izango den eskualdeko talde esanguratsu guztiak, Hezkuntzarako Eskubideari zuzenean edo zeharkako lotuta daudenak, biltzea.

Hortaz, proposatzen da, alde batetik, lan-saio bat antolatzea zonan, horren bitartez, biztanleriak identifikatu ahal izango ditu zein diren Hezkuntzarako Eskubidea hainbat dimentsiotan gauzatzeko eragozten duten kausak, eta beste alde batetik, gure strategiarekin eragingo diegun zaurtzapen edo urraketa jakin batzuk lehenestea.

Kausa-ondorioa harremani buruzko zuhaitz bat eginez lantzea erabaki da. (izeber bat egitea ere proposa daiteke. Gure kasuan, nahiago dugu kausa-ondo-

ria harremani buruzko zuhaitza, Esparru Logikoaren Ikuspegian ere erabili baikenuen tresna hori).

Prozesuarekin jarraitzeko diagnostiko-fasea oinarri hartuta sortutako lantaldea osatzen duten pertsona edo erakunde gehienak inplikaturik daude talde horretan eta behar adina jakintza eta esperientzia dute kausa-ondorioari buruzko zuhaitz hori egiteko. Hala eta guztiz ere, interesgarria izango litzateke talde hori nork osatzen dugun berraztertzea eta zuzenean edo zeharka eraginpean egon daitezkeen beste pertsona edo erakunde batzuk ez ezik prozesuari begirada desberdina eman diezaioketen pertsonak edo erakundeak ere sartzeko ahaleginak egitea.

Gure lantaldea aztertu ondoren, ikusi dugu interesgarria izango litzatekeela Unibertsitateko giza eskubideen adituarekin berriz ere harremanetan jartzea. Aditu hori ezin zen prozesu osoarekin elkartu.

Halaber, aldameneko komunitate batean lan egiten ari den Belgikako GKE bateko erbesteratu bat gonbidatu dugu. Bere lanaren oinarria emakumeei laguntza ematea da, familia-ortuetara bideratutako mikrokredituekin, baina guk uste dugu komunitatearekiko eta adingabeak beren kargura dituzten emakumeekiko harremana balio erantsi interesgarria izan daitekeela.

Bilera horretan (horretarako lokal bat aukeratu dugu, Bilera komuna egiteko erabiltzen dena, eta zirkuluan, hau da, inolako hierarkiarik gabe esertzeko egokitu dugu) bileraren helburua azaldu dugu, hots, guztion artean zuhaitz oso grafiko bat egitea, Hezkuntzarako Eskubideari dagokionez gizartean zer gertatzen den eta zergatik gertatzen den jakitea ahalbidetuko digun grafikoa. Kontuan hartu behar da parte-hartzaileak ez direla hutsetik abiatzen. Gehienak, arestian esan dugunaren arabera, inplikaturik egon dira diagnostiko-fasean, eta parte-hartzaile horiekin landu da hezkuntzaren kontzeptua, kalitatezko hezkuntzarena, eta abar.

Horretaz gain, jakin badakigunez bileran erabiliko dugun hizkuntza pertsona guztiek ez dutela erraztasunez erabiltzen, eta hizkuntza idatzia erabiltzea konplexua izango dela, marrazkiak dituzten txartelak prestatu ditugu, eta komunitateko mutil batek txartel berriak egin ditzake egunean zehar. Txartel horiek egingo dugun dinamikari laguntzeko dira.

Dagoeneko adierazi dugunaren arabera, helburua honako hau da: **Hezkuntzarako Eskubidea urratzea eragiten duen gai nagusia (arrazoi eta/edo kausa nagusiak)** identifikatzea eta eskubide horrekin lotutako gainerako eskubideak urratzen dituzten arrazoiak antolatzea. Analisi horrek urratutako eskubidearen osagaiak (prestasuna, erabilgarritasuna, onargarritasuna eta egokitasuna) hartuko ditu kontuan. Osagai horiek hertsiki lotuta daude Estatuaren eta eraginpeko eskubidearekin zerikusia duten betebeharren beste

titular batzuen betebeharrekin. Dinamikak dinamizatzen dituztenentzat erabilgarria izan daiteke identifikatzen diren kausak argitzeko ahaleginak egitea, betiere honako tipologia honen arabera:

- **Berehalako arrazoiak:** biztanleriaren estatus jakin bat ezartzen dute (Ad.: Gurasoek ez dituzte neskak matrikulatzen eskoletan).
- **Azpiko kausak:** baliabideak lortzeko dauden zailtasunei egiten diete erreferentzia (Ad.: Ez dago bide segururik eta ibiltzeko modukorik eskolara joateko).
- **Sakoneko kausak:** zuzeneko lotura dute politika publikoekin (Ad.: eskualdea ez da lehentasunezkoa Gobernuarentzat)

Horretarako, eta eztabaida sortzeko eta gogoeta errazteko, prestatuta dauzkagun galderak egiten ditugu. Galdera horiek **eskubidea osatzen duten** lau osagaiei buruzkoak dira: **prestasuna, erabilgarritasuna, onargarritasuna eta egokitasuna.**

- **Prestasuna:** Zer gabezia daude? Zergatik daude gabezia horiek? Esate baterako, beharbada badago eskola bat, baina ez dira hezkuntza-instalazio egokiak eta behar adinakoak, edo kostuek eragozten dute guztiek hezkuntza eskuratzea. Kasu horretan, ikusi beharko da nork ezartzen dituen kostuak, nork hartzen dituen azpiegiturari buruzko erabakiak, eta abar.
- **Irisgarritasuna:** Haur guztiak, mutilak nahiz neskak, joaten al dira eskolara? Zergatik, eta zergatik ez? Ba al dago eskolara joaten ez diren haurren talde berezirik?, gurasoek kuotaren bat ordaindu behar al dute?
- **Onargarritasuna:** Nola hobetu edo okertu da kalitatea?, zein da kausa?, ikasketa-plana adostasunez eta estatuko jarraibideen arabera egin al da?
- **Egokigarritasuna:** Etnia guztietako haurrak joaten al dira eskolara?, zergatik ez?, eskola-egutegiak kontuan hartzen al ditu komunitatearen ziklo propioak?

Erne, baliteke egokia ez izatea galdera hauek bere horretan egitea osatuta daukagun taldean. Beharrezkoa izango litzateke norberak hizkuntza lan egiten duen biztanleria eta eskualdea kontuan hartuta egokitzea. Esaterako, sinpleagoa izango litzateke galdetzea komunitateko zenbat haur ez diren eskolara joaten eta etxean laguntzen ote duten juka biltzen, modu abstraktuan galdetu ordez hurrek lan egiten ote duten...

Hiru orduko bilera egin dugu eta gure emaitza kausa-ondorioa harremanei buruzko zuhaitza da. Zuhaitz horren bitartez, bileran azaldu diren ideia guztiak bildu nahi dira. Hortaz, kontua ez da grafikoki perfektua izatea, dagoeneko arazo nagusi bat duena (badaukagu arazo hori, bai baitakigu Hezkuntzarako Eskubi-

dearen urraketan zentratuta gaudela). Garrantzitsuena zera da, atzemandako arazoak azaltzea, ondo identifikatuta eta ahal den neurrian hierarkizatuta, ezarritako harremanekin eta Hezkuntzarako Eskubidearekin erlazionatuta dauden beste eskubide batzuk identifikatzea ahalbidetuko dutenak.

Landa-lana egiten den bitartean, lantaldeak lehenetsitako eskubidearen kontzeptua eta eskubideari edukia emateko aurreko fasean erreferente gisa erabilitako lau elementuak (osagaiak, elkartutako dimentsioen titularrak, betebeharren titularren obligazioak eta lotutako beste eskubide batzuk) hartuko ditu berriro, jomuga den taldea osatzen dutenei beren eskubideei buruzko informazioa emango die, bereziki, hezkuntza egokirako eskubidea errespetatzeko, babesteko eta sustatzeko Estatuak dituen obligazioei buruz eta lehenetsitako eskubidearekin lotutako urraketak salatzeke dauden legezko mekanismoei buruz. Kausak aztertzeke dinamikak berak hainbat eskubideren titulartasunari eta eskubide horiek erabat gauzatzeko erantzukizunei buruzko **kontzientzia sortzen lagundu** beharko luke.


Zuhaitza egin ostean, Hezkuntzarako Eskubidearekin lotutako eta biztanleriaren arabera urratutako eskubideak (ez dute zehazki horrela esan, baina adierazi dute ezinezkoa dela erabat gauzatea) berriz identifikatzeko ahaleginak egingo ditugu.

Aurreko ariketa erraza da. Behin hori eginda, ondorengo urratsa honako hau izango litzateke: legezko politikak eta esparruak ez ezik Hezkuntzarako Eskubidea eta horrekin lotutako eskubideak gauzatzeari eragiten dioten, harekin zerikusia duten eta hura erabakitzen duten instituzio eta erakunde publikoak ere berriz aztertzea, globalki bada ere. Konpromiso horiek eta legezko esparruak betebeharren titularren erantzukizunak ere definitzen dituzte, eta horiek eskubideen titularrek egindako eskaera oro indartzen du.

Proposatutako berrikuspena dagoeneko mugatu dugun testuinguruan egin behar da. Guri dagokigunez, Kikoi zonako komunitateak, zona horretara desplazatutako biztanleen ehunekoak handiak dira eta haur-biztanleria oso markatuta dago gatazka armatua, sexu-indarkeria, lan-esplotazioa eta abar direla medio.

Urrats hori lantalde tekniko arduradunak egingo du. Lantalde hori gure GGKEak eta tokiko entitateak osatzen dute. Etapa honetan osatutako lantaldean pertsona bat edo bi sartzeko aukera egongo da beti, baina garrantzizkoena eraginkorrak izatea eta analisisa egiteko eta informazioa erkatzeko ariketa honetan ondorioak ateratzea da. Nolanahi ere, emaitzak lantaldeko gainerako pertsonen ere jakinaraziko zaizkienez gero, funtsezkoa da urrats bakoitza epe egokietan eta zorrotzasunez egitea (urrats horiek denboran luzatzeak prozesua eragozte besterik ez luke eragingo, tartean sartutako jendearen motibazioa galaraziz eta abar).

2.1. grafikoa. Kausa-ondorioa harremanei buruzko zuhaitza



Berriz ere, hemen garrantzitsua da gogoratzea ez garela hutsetik abiatzen. Diagnostiko-fasean funtsezko eskubideak onartzen dituzten eta gure lana indartzen duten legegintza-tresnak eta itunak aztertu ditugu. Informazio horri berriro helduz, orain zertxobait gehiago zehaztu behar dugu. Izan ere, honako hauek izan daitezke azter daitezkeen legezko esparru, politika eta instituzio batzuk:

- Mekanismo administratiboak, pseudojudizialak eta judizialak konponbide egokiak, eraginkorrak eta azkarrak emateko.
- Politikak eta instituzioak eta Hezkuntzarako Eskubidea abian jartzeko ezarritako programak, bereziki haurrei eta beste talde kaltebera batzuei bideratuak.
- Legedia eta programa publikoak: Ikaskuntza Azeleratuaren Programa Ofiziala, Eragiteko Plan Nazionala eta abar.
- Segurtasun sozialaren sareak, adingabeak eskoletan babesteko: Hezkuntza Batzorde Probintzialak, Gurasoen Batzordeak eta abar.
- Baliabideak babestea eta baliabideetarako sarbidea hobetzea.

Esanbidez, egiaztatu egin beharko litzateke Estatuak zenbateraino onartzen eta antolatzen dituen ondoren aipatuko diren legezko konpromisoak eta konpromiso juridikoak. Egiaztapen hori diagnostiko-fasearekin oso lotuta dago; nolana ere, lana askoz ere errazagoa izango da orain, ezagutzen baitugu ingurunea eta zonako entitateekin eta erakundeekin ez ezik biztanleriarekin eta biztanleriarentzat lan egiten duten erakunde sozialekin dagoeneko ezarritako harremana:

- a) Giza eskubideen alorreko legedi nazionala eta legedi hori bere jurisdikzioan praktikan jartzea, esate baterako konstituzioko giza eskubideei buruzko xedapenak, eskubideen aldarrikapena, diskriminazioaren aurkako legeak eta informazio-askatasunari buruzko legedia, baita giza eskubideen alorreko jurisprudentziarik garrantzitsuena ere.
- b) Giza eskubideei dagokienez, Estatuak berretsitako nazioarteko eta eskualdeko itunak.
- c) Giza eskubideei buruzko nazioarteko beste tresna garrantzitsu batzuk, hala nola Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsala.
- d) Munduko azken hitzaldietan hartutako konpromisoak, giza eskubideetan eragiten duten neurrian, Nazio Batuen Milurteko Deklarazioa barne.
- e) Giza Eskubideen Kontseiluak egindako promesak, baita giza eskubideen alorrean ekintza-programetan eta –planetan hartutako konpromisoak ere.

Kausen analisia zereginen eta gaitasunen analisiarekin osatuko da; ondorengo bi urratsak. Nolanahi ere, garrantzizkoa da gure ekintza-esparrua mugatzen joatea. Kausen analisiak (Hezkuntzarako Eskubidean oso zentratuta badago ere) eta biztanleria-talde jakin batzuk baditu ere, errealitateari buruzko irudi globala ematen digu. **Arlo guztietan ondorioak izatea ezinezkoa denez gero, nahitaezkoa izan daiteke berriz ere errealitatea berrikustea, gure ahalbideak identifikatutako errealitatearekin alderatzeko.**

Hortaz, gure lan zehatz honetan, gure ahaleginak zentratuko ditugu Hezkuntzarako Eskubidearekin modu zuzenagoan erlazionatuta dagoenarekin, batez ere udal eta estatu mailako politikei dagokienez. Hau da, ezin izango dugu ondoriorik izan lan duinerako eskubidean, esate baterako. Eragiteko egingo dugun lana, hala badagokio, Estatuetakoa hezkuntza-politiketan zentratuko da gehiago. Baita berdintasun-politiketan ere, zeren guk aurretik izandako esperientzia eta sarean egiten dugun lanak ahalbidetzen baitute.

4. ZEREGINEN ANALISIA

Oraingoan, esku hartuko dugun testuinguruari buruzko irudi orokorra daukagu, baita hautatutako esku hartzeko arloari eta diseinatuko dugun azken estrategiak landuko duen lehenetsitako eskubideari buruzkoa ere. Halaber, elkartutako eskubi-deak eta horien arteko erlazioa daukagu, baita eskubideak gauzatzean izandako ez-betetzeak, dagozkien kausekin, eta gurekin lankidetzan jardungo duen biztan-leria zehatza ere. Halaber, legezko esparruak eta esparru juridikoak identifikatu ditugu, baita hainbat eskubide baliatzeari dagokionez ez-betetzen segida horretan zeregin erabakigarria duten politikak ere.

Zereginen analisiaren bitartez, honako hau lortu nahi dugu: alde batetik, pertsonen eta kolektiboaren eskubideak ez ezik eskubide horiek erabat gauzatzeko proposatzen diren eskaerak, hau da, eskubideek eta betebeharrak testuinguru jakin batean dituzten funtsezko harremanak ere zein diren zehaztu eta sakontzea. Beste alde batetik, betebeharren titularrek dituzten betebeharrak, giza eskubideen estandarretan bilduta daudenak, zehaztu eta sakonduko dira, tokiko, nazioko eta nazioarteko legeak, politikak eta prozedurak oinarri hartuta. Erabakigarria da batzuen eskubideen eta eskubide horiek gure testuinguru zehatzean errespetatzeko, babes-teko eta sustatzeko besteek duten erantzukizunaren arteko harremanari buruzko ikuspegi integrala eta osoa erakusteko gaitasuna izatea.

Urrats horren emaitza pertsonak eta/edo entitateak eskubideen titular eta betebeharren titular gisa dituzten zereginen bitartez lotzen dituzten eskaera eta betebeharren arteko harreman-laburpena izango da.

Urrats horrek gure lankidetzaren-estrategia definitu ahal izateko abiapunturako informazioa emango digu. Estrategia horren osagaiak gaitasunaren inguruan daukaten alde batzuk itxeko gure ekarpenek ematen duten erantzuna izango dira. Alde horiek agerian geratuko dira eragile bakoitzaren (eskubideen titularra izan edo betebeharren titularra izan) gaitasunak eta aipatutako legezko esparruaren eta esparru juridikoaren arabera eragile bakoitzak garatu beharko lituzkeen eginkizunak alderatzen direnean.

Laburbilduz, gure lankidetzaren-estrategia definitzeko diagnostikoan lortutako aurrerapenak honako urrats hauekin osatu beharko ditugu: rolen analisiarekin, gaitasunen analisiarekin eta gaitasun-aldeen identifikazioarekin.

Arestian adierazitako ildoari jarraiki, lankidetzaren inguruko esku-hartze oro giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren arabera diseinatzeko, garrantzizkoa da ulertzea zein diren kolektibo interesdunak eta zer erantzukizun dituzten. Horretarako, nahitaezkoa da pertsonak eta/edo entitateek gauzatzen dituzten edo gauzatu beharko lituzketen eginkizunak ulertzea. Horrela errazagoa izango da haien lana helburu jakin batera bideratzea eta tartean nor sartu behar den eta nola sartu behar den erabakitzea.

Kausa-ondorioa harremanei buruzko zuhaitza gurekin batera egin duen lantaldearekin, Interesdunen Ideia Nagusia erabiltzea izan liteke abiapuntu erraza. Bi ideia nagusi erraz eta beste bat konplexuagoa proposatzen ditugu urrats honetarako orientabide gisa.

Lehenengo ideia nagusian –errazena– analisia honela egiten da: interesdunak ardatz batean kokatzen dira, eta beste ardatz batean eginkizunen eta erantzukizunen zerrenda bat (ideia-jasa batean erabaki litezkeenak, esate baterako aurrekontu-kontrola, irakasleen kontratazioa, materialak ematea, instalazioen kalitatea, ikasleekiko laguntza bermatzea eta abar) jartzen da. Baliteke erantzukizun guztiak egokiak ez izatea interesdun guztientzat. Kasu bakoitzean erantzun beharko da, identifikatutako erantzukizunak egokiak diren edo ez kontuan hartuta.

Eginkizunak/ erantzukizunak	Eskolen hornikuntza	Eskoletara joatea	Lan- metodologia	Eskolak kudeatzea	Sartzeko bideak	.../...
Entitateak edo kolektiboak						
Haurrak						
Gazteak						
Gurasoak						
Hezkuntza Batzorde Probintzialak						
Komunitateko buruzagi erlijiosoa						
Hezkuntza ministroa						
Haur umezurtzen harrera-etxearen arduraduna						
.../...						

Taula egindakoan, honako hauek aztertuko dira: eginkizunetako bakoitza betetzen ote den edo ez, eginkizun horiek egokiak ote diren, erakunde edo kolektibo bakoitzaren ahuleziak eta abar. Eztabaida horren ondorioa idazki bidez jaso behar da.

Bigarren proposamen gisa beste ideia nagusi bat egin daiteke, eta hor identifikatutako pertsona interesdunak (eskubideen titularrak eta obligazioen titularrak) bi ardatzetan jasoko dira. Bakoitzaren harremanak (eskubideak eta be-

tebeharrak) gainerakoekin aztertuko lirateke. Ideia nagusi hori aukeratuz gero, aurretik ideia-jasa batean edo denbora gehiegi beharko ez lukeen osoko eztabaida batean errealitate jakin batean hezkuntzarako eskubideari dagokionez identifikatzen diren obligazioak eta erantzukizunak landu beharko lirateke, baita obligazioen eta eskubideen titular gisa nor identifikatzen den ere. Horretarako, Zereginen analisiaren ideia nagusia osatzeko galdera lagungarriak deituriko 3. taulan, kapitulu honen amaieran dagoena, biltzen diren galderak erabil daitezke.

Gure kasuan, bigarren aukera hau landu dugu, eta Hezkuntzarako (kalitatezkoa) Eskubidea gauzatzeko interesa duten edo inplikaturik dauden kolektibo guztien eskubideen eta betebeharren zerrenda biltzen duen ideia nagusi bat egin dugu.

Lehenik eta behin, taldean eztabaida txiki bat egitea proposatu dugu. Ikuspegiak trukatzeko eta sakontzen laguntzeko egingo dugu. Hasieran, dagoeneko aipatu diren eta hezkuntzarako eskubidearen nazioarteko eta nazioko esparrua eskaintzen duten dokumentu batzuk gogoraziko ditugu (ez da beharrezkoa testu eta dokumentu ofizial guztiak aipatzea). Gure kasu praktikoan, honako dokumentu hauei eskainiko diegu arreta:

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. artikulua: doako eta derrigorrezko lehen hezkuntza izateko eskubidearen inguruko zirriborroa egiten du.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 13. artikulua: aurreko eskubidearen irismen zehatzagoak ezartzen ditu, hezkuntzarekiko prestasuna eskatzen baitu lehen hezkuntza jaso edo osatu ez duten pertsona guztientzat.
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 28. artikulua.
- Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Konbentzioaren 10. artikulua.
- Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren 22. artikulua: haur errefuxiatuek tratua bera jaso behar dute haur nazionalak ematen zaien oinarriko hezkuntzari dagokionez.
- Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren 17. artikulua.
- Kongoko Errepublikako Demokratikoaren Konstituzioaren 43. artikulua.
- .../...

Ariketa sakontzeko, ikusi 2. eranskina. «Hezkuntza giza eskubide den aldetik».

10 minutu inguru igaro ostean, interesgarri samarra izan daitekeen eztabaidagune bat sortutakoan, ideia nagusia osatzen hasiko gara. Kolektibo interesdunak dagoeneko idatzita daude, baina taldean errepasatu egingo dira, aldaketak egitea

beharrezkoa edo komenigarria ote den ikusteko. Hori adostutakoan, taulaz taula eztabaidatuko da. Dinamika ematen ari garenok beharbada lauki egokian edo une egokian proposatzen ez diren, baina ideia nagusiaren beste leku batean sar daitezkeen eta sartu behar diren ekarpenak berreskuratzeke gai izan behar dugu.

Eskubi- dearen titularrak	Haurrak eta gazteak	Gurasoak	Irakasleak	Eskualdea	Gobernu nazionala	Nazioarteko erakundeak (ACNUR / ECHO)
Obligazioen titularrak						
Haurrak eta gazteak		Ikasketak egitea eta klasera joatea	Ikasketak egitea eta klasera joatea			
Gurasoak	Neskek eskolara joan daitezen uztea		Etxeko lanak egiteko denbora izatea	Ikasgelak sortzen laguntzea		
Irakasleak	Kalitatezko hezkuntza eskaintzea	Gurasoen eta irakasleen elkarteak sortzea		Trebatzeko tailerretan parte hartzea	Diseinatutako planak ezartzea, hala nola Eragiteko Plan Nazionala	Segurtasuna bermatzea zonalako eskoletan (elikadurari edo segurtasun fisikoari eta abar lagunduz)
Eskualdea	Haurrek egiten dituzten lan mota guztiei amaiera ematea	Ikasgelak eraikitzeke materiala ematea	Irakasleak birziklatzea. Eskolak kudeatzen laguntzea		Fondoak behar bezala erabiltzea	
Gobernu nazionala	Oinarritzko, doako eta derrigorrezko hezkuntza bermatzea. Hezkuntza-ingurune segurua bermatzea	Familia pobreak eskola-kuotetatik libre uzteko politikak	Irakasleentzako kalitatezko soldatak bermatzea	Hezkuntzarako fondo egokia esleitzea		
Nazioarteko erakundeak (ACNUR / ECHO)		Adingabeen oinarritzko elikaduran laguntzea eskolan behar bezalako etekina lor dezaten			Hezkuntza-planak garatzen laguntzea larrialdilaguntzako eta berreskuratzeko programen zati gisa	

Adaptado de Urban Jonsson, “Un enfoque fundamentado en los derechos humanos para la programación del desarrollo”, octubre 2004. Traducción no oficial realizada por Atenea Acebedo para GARAPEN BIDEAN

4. taula: Zereginen analisiaren ideia nagusia osatzeko galdera lagungarriak

Zein dira gauzatu ez diren eskubideen titularrak?

Zein dira eskubideak ez errespetatzeko, babesteko edo betetzeko errudunak? Zertan zehazten da eskubide horiek ez betetzea?

Zer obligazio izan beharko lituzkete betebeharren titularrek?

Zer instituziok dute urraketaz eta ez-betetzehoriek zuzentzeko erantzukizuna? Betebeharren titularrak eskubideen titularrak ere ba al dira?

Zein da eskubideen titularren eta betebeharren titularren arteko harremana, lehenetsitako problematikari erantzutean agerian jartzen dena?

Zer rol dira garrantzitsuak helburu hori lortzen laguntzeko?

«Hezkuntzarako eskubidea: praktikatzaile eta aktibistentzako gida» deiturikotik egokitutako taula, Actionaid Internacional

Zereginak identifikatzea ezin da jardun arbitrario bat izan. Giza eskubideen nazioarteko estandarrek ezarritako eskubideek eta betebeharrek bideratu behar dute, baita arauak, prozedurek eta politika nazionalk definitutako eginkizun eta estandar zehatzagoek ere.

5. GAITASUNEN [URRITASUNEN] ANALISIA

Ia aldi berean, eskubideen titularren gaitasunak eta betebeharren titularren gaitasunak egiaztatu beharko ditugu beren zereginak modu egokian eta eraginkorrean gauzatu ahal izateko.

Urban Jonssonek³⁶ adierazten duenaren arabera, eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren planteamendu orotatik (garapenerako lankidetzari aplikatzen zaiona) ondorioztatzen da oinarrizko suposizioa dela eskubideak ez direla betetzen titularrek ez dutelako gaitasunik eskubide horiek eskatzeko. Era berean, betebeharren titularrek ez dute eskubide horiek betetzeko gaitasunik. Horregatik, garrantzizkoa da gaitasunik ezetan sakontzea, guk gaitasunen analisia deitzen dugun horretan.

«Gaitasuna» honako elementu hauek kontuan hartuta azter daiteke:

- *Erantzukizuna/motibazioa/konpromisoa/lidergoa*: Pertsona batek onartzen du zerbait egin behar duela arazo edo gai jakin baten inguruan. Horrek esan nahi du betebeharrak onartzea, eta legezko baldintzetan edo baldintza moraletan justifikatzen da normalean.
- *Agintariak*: Ekintza baten legitimitatea: pertsona baten edo talde baten ustez jarduteko baimena badu edo baldin badaki baimen hori duela. Lege formalek eta informalek, ohiturak eta kulturak erabakitzen dute, neurri handi batean, zer dagoen baimenduta eta zer ez. Gizarte bakoitzean agintariak duten egiturak erakusten du zein diren agintari horien botere-harremanak.
- *Baliabideak lortzea eta kontrolatzea*: «Gaitasuna» hitzaren esanahiak honako hau izan behar du: jarduteko gai den pertsonak jardun dezakeela, benetan. Horretarako, pertsonak, etxeak, erakundeak eta antzekoak hiru baliabide mota izan behar dituzte aldi berean: giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta antolamenduzkoak.

Aurreko elementuei **informazioa eta komunikazio-sistemak lortzeko gaitasuna eta informazioa transmititzeko eta hedatzeko** gehitu dakieke. Hori funtsezkoa da pertsonak eta taldeak eskubideak erreklamatzeko lor dezaten eta obligazioak bete daitezen. Eta komunikazioa eragileak lortzeko bidea da, garapenerako problematika asko benetako konponbideak ematen dituzten funtzio-sareetan landu ahal izateko.

Parándonos un poco más en el papel del Estado, señalar que la **violación** de un derecho tiene lugar cuando el Estado impide deliberadamente o consiente que otros impidan la realización del derecho o si el Estado no obra positivamente, cuando tiene la capacidad de hacerlo, para proveer el derecho.

Gaitasunen analisiari buruzko urrats hau osatuagoa izango da Estatuaren boterearen modu espezifikoa kontuan hartuta inplikaturako alderdietako bakoitzaren gaita-

³⁶ Urban Jonsson: «Un enfoque fundamentado en los derechos humanos para la programación del desarrollo», 2004ko urria. Atenea Acebedok GARAPEN BIDEAN Elkarterako egindako itzulpen ez-ofiziala.

sunak ez ezik alderdi horien artean ezartzen diren komunikazio-harremanak ere aztertzen baditugu.

Estatuak duen zeregina gehixeago aztertzen badugu, esan behar dugu eskubide bat urratzen dela Estatuak nahita eragozten badu edo uzten badu beste batzuek eragotz dezaten eskubidea gauzatea, edo Estatuak ez badu modu positiboan jokatzeko, horrela jokatzeko gaitasuna duenean, eskubidea emateko garaian. Nolanahi ere, eskubidea betetzeko gaitasunik ez dagoelako ukatzen bada eskubidea (esaterako, baliabideei edo zirkunstantzia espezifikoiei dagokienez Estatuak ezagutzen ez dituen edo kontrolatzen ez dituen benetako mugak baldin badaude) ez dago urraketarik, bai, ordea, ez-betetzea baldin badago eskubidea gauzatzeari dagokienez.

Hortaz, eskubidea gauzatzeko guk egiten dugun esku-hartzea urraketa baten eta/edo ez-betetze baten aurrean justifika daiteke. Bi errealitate horiek argi eduki behar ditugu gure estrategiak erabakitzekeo garaian.

Para realizar el análisis de capacidades, seguimos trabajando con información ya obtenida en pasos anteriores. Así, recurrimos a los grupos de interesados identificados en la matriz que hemos manejado en el análisis de roles. Revisamos en el grupo si todos estos colectivos son pertinentes y si es necesario incluir alguno nuevo. Nos quedamos con los siguientes grupos y entidades:

- Haurrak eta gazteak.
- Gurasoak (martxan egon daitezkeen batzordeak bildu ditugu hemen).
- Irakasleak.
- Gobernu Nazionala (Hezkuntza Ministerioa eta Osasun Ministerioa barne).
- Hezkuntza Batzorde Probintzialak.
- .../...

Horien guztien gaitasunak aztertzekeo, bi dinamika proposatzen dira: giza baliabideei buruzko mapa oso grafiko bat egitea; mapa horretan aurreko kolektibo guztiak bilduko dira eta kolektibo horiek dituzten gaitasun eta jakintza guztiak adieraziko dira. Edota aurreko urratsean lan egin dugun modu berean lan egingo dugu eta taula bat beteko dugu. Taula horretan inplikaturako entitate, erakunde, kolektibo edo pertsona bakoitzaren analisisa egingo da, eta ardatz batean kokatuko dira, arestian aipaturako irizpideak (erantzukizuna, agintaritza, baliabideak, erabakiak hartzekeo gaitasuna eta komunikazioa [azken aldagai hori ondorengo dinamika batean landuko da sakonago] kontuan hartuta). Garrantzizkoa da entitate edo kolektibo bakoitzaren analisisa egitea gainerako taldeekiko harremanak erreferentziatuz hartuta. Hori lan-saioa dinamizatzen dutenek gauzatu beharko dute.

Gure lantaldeak bigarren aukera hautatu du, eta ordu bete eta 45 minutu igaro ondoren, honako taula hauetako bat du ondorio gisa:

Irizpideak	Erantzukizuna/motibazioa/konpromisoa	Agintariak	Baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak eta antolamenduzkoak)	Erabakiak hartzeko gaitasuna	Komunikazioa
Taldea/Instituzioa					
Haurrak eta gazteak					
Gurasoak	[Irakasleen] ustez gurasoen elkarrekin ez dira garrantzizkoak eskolarako. Irakasleek erabaki behar dute	Ez dituzte onartzen ez irakasleek ezta udaleko eta estatuko agintariek ere.	Ezin dituzte beren seme-alaba guztien eskola-kuotak ordaindu	Ez dakite eskolaren martxari dagokionez, erabakiak hartzeko eskubidea (eta betebeharrak) dutela	Komunitatetik kanpo deitutako zuzendaritzetan, legetan, bilertan eta abarretan sartzeko muga
Irakasleak	Ez dute uste funtsezkoak direnik haurren eta gazteen hezkuntzan	Uste dute haien soilik legitimatuta daudela eskolaren funtzionamendurako mekanismoak erabakitzeko (horrek frustrazioak sortzen ditu; horregatik, uste dute beste kolektibo batzuen erdian sartzen direla)	Badaukate antolatzeko gaitasuna		Ez dute ondo hitz egiten tokiko hizkuntza
Gobernu nazionala			Ez dauka finantza-baliabiderik bere agintea betetzeko		
Hezkuntza Batzorde Probintzialak				Funtzionatzen hasiberria, mekanismo ahulak, sakabanatuak	

Taula hori osatzeko, gure gogoetei dagoeneko prestatuta zeuden galdera-jasa batekin lagundu behar izan diegu. Galdera horiek prestatu genituen eztabaida beste leku batera bideratzen bazen ere, eta elkarrizketa eta partaidetza urriak baziren ere. Dinamika horretan ez da garrantzitsua ideia bakoitza dagokion taulan kokatzea, baina garrantzizkoa da gaitasunen analisisian sortzen diren eta ematen diren ideia guztiak azaltzea. Batzuetan zaila da erabakitzeko ekarpen bat agintarien laukian edo erantzukizunaren laukian sartu behar den, adibidez. Ez du merezi denbora gehiegi eskaintzea horri, egokientzat hartzen den laukian kokatu eta eztabaidatzen jarraitu behar da.

Egin litezkeen galderak:

- Pertsona edo talde interesdunek ba al dakite zer den eskubideetan oinarritutako planteamendu bat? Inbertitzen al dute gaitasunak sortzen eta talde baztertuak ahalduntzen? Aliatuak, elkartekide izan litezkeenak, eragiteko helburu al dira?
- Zer lotura dauka pertsona edo talde horrek hezkuntzarekin?
- Zerk ematen dio boterea pertsona edo talde horri hezkuntzari dagokionez?
- Zenbateko eragina du pertsona edo talde horrek haur bakar baten hezkuntzan, eskola mailan, toki mailan edo eskualde mailan, nazioan edo nazioartean erabakiak hartzeari dagokionez?
- Deskribatu dugun egoera irudizkoa da edo errealitatea da? Errealitatea bada, ba al dago aldatu nahiko genukeen zerbait? Irudizkoa bada, nola igaro gintezke egun dugun egoeratik egoera idealera?
- Nola eragiten du nire rola, postuak, informaziorako daukadan sarbideak eta antzekoek egoera hau nik ulertzen dudan moduan? Beste modu batean ikusiko al lukete gainerakoek? Zein zentzutan?

Gure taldea nekatuta dago, baina beste urrats bat egin behar dugu: **informazio-fluxuak eta egungo komunikazio-mekanismoen kontrola** aztertu behar ditugu. Ezinezkoa denez grafiko bat egiteko proposamena onartzea, gure kasuan osoko bileran hitz egin genuen gai honi buruz, honako galdera hauei erantzuten saiatuz:

- Zer pertsona-taldek edo entitatek eragiten dute benetan eskolaren zuzendaritzan eta eskolan erabakiak hartzeko garaian? Nork dauka botere gehien?, nor ateratzen da berearekin?
- Zer erabaki hartzen dira hezkuntzan?
- Erabaki horien artetik zein hartzen ditugu guk edo zein har ditzakegu?
- Norengandik lortzen dugu informazioa? Nori ematen diogu informazioa: txostenak, baimen-eskabideak eta abar?
- Nondik lortzen du eskolak bere dirua?
- Nork hartzen du parte eskolaren politika gauzatzeko garaian?
- Nork erabakitzen du zer egiten dugun batzorde edo guraso gisa? Ba al dugu eginkizun eta erantzukizun legalik?
- Zein da batzordearen eta komunitatearen arteko harremana orokorrean? Zerbait aldatu nahiko al genuke? Zerbait aldatu nahi izatekotan, nola egingo genuke?


- Nola egiaztatzen dugu legezko gunea beteko dugula eta ordezkari-tza izango dugula hainbat foro «politikotan»? Errealista al da guri esleitzen diguten rola? Ba al dugu behar adinako trebetasunik gure rola betetze-ko? Eroso al dago gure ordezkari-tzan joaten den pertsona?

Proposatutako eztabaidaren ondorio batzuk:

- Eskolak ez dauka baliabiderik eskualdeko gobernutik eta tokiko gober- nutik inork ez duelako dirurik ematen. Ez ziren ezta eskolaren inaugura- ziora ere etorri. Dagoen apurra (ikasmahaiak, adibidez) komunitateak egin du. Batzuetan izaten dira arbelerako klarionak, norbait hiriburutik etortzen bada (aldameneko eskualdeko lekaimeren bat, esaterako), bai- na bestela, ezin izaten dira lortu.
- Nolanahi ere, badirudi eskolari buruzko azken erabakiak hiriburuko agintariek hartzen dituztela: horien esku dago irakasleren bat bidaltzea edo ez, eta oso gutxitan adosten dute eskolako batzordearekin zenbat denbora geratuko den irakasle hori.
- Inoiz ez da lortu zer hizkuntzatan irakatsiko den eztabaidatzea.
- Inoiz ez da lortu komunitateko ohiturak eta adinduenen ezagutzak den- bora-tarte bat izatea haurren eskoletan.
- Gurasoak antolatzen ari dira eta gero eta gaitasun handiagoa dute eraba- kiak hartzeko (esaterako, euriteetan edo uzta biltzeko garaian zer egin behar duten; garai horietan egokitu egiten dira haurrak eskolara joateko ordutegiak), baina Hezkuntza Ministerioarekin bilera bat egitea eskatu da eta laguntza eskatu zaio (bereziki inplikaturata zegoen maisu baten la- guntzarekin egin zen) eta ez dute inoiz ezer erantzun.
- Komunitateko bileretan, beti lantzen da eskolaren gaia, baina botere ge- hien duten familiei gaia interesatzen ez zaienez (beren seme-alabak ez daudelako eskola horretan), ez dituzte babesten komunitatearen ustez lan gehien eskatzen duten proposamenak.
- ... / ...

Nolanahi ere, ahal izango balitz, **sistemen grafiko**, erakundeak eta giza- banakoak elkarrekin nola lotzen diren eta horien arteko harremanak nolakoak diren ulertzeko tresna eraginkorra, bat egin liteke. Hemen ActionAid Interna- cional-ek egindako eskuliburutik –Hezkuntzarako eskubideak: *praktikatzaile eta aktibistentzako gida*– ateratako adibide bat erantsi dugu.

Grafikoa. Hezkuntza-sistemak



GAKOIA

- Ik. Ikasleak
- Gur. Gurasoak
- 1 Talde erlijiosoak
- 2 Komunitate-taldeak

→ Eragin handia

↔ Noranzko biko eragina

- - → Eragin ahula

Zenbat eta handiagoa izan zirkulua/laukia orduan eta botere handiagoa

Laukiak: organo ofizialak

Zirkuluak: beste interesdun batzuk

6. GAITASUN ALDEEN ANALISIA

Azken dokumentua idazten hasi aurretik, lantaldea osatzen dutenok gogoeta eta analisisa egiteko saio bat antolatu behar dugu faseetan egin eta lortu diren infor-mazio, aurkikuntza eta analisi nagusiak elkarrekin berrikusteko, eta azken ondorio eta gomendioak adostasunez hartzeko.

Aurreko urratsekin honako hau daukagu identifikatuta: alde batetik, hainbat eskubide ez betetzearen edo, behintzat, behar diren neurrian ez betetzearen azken arrazoiak zein diren. Halaber, eskubideen titularren eta obligazioen titularren arteko funtsezko harremanak identifikatu ditugu, bai lehenetsitako eskubideari dagokionez, bai eskubide horiekin lotutako gainerako eskubideei dagokienez. Hiru-garrenik, eskubideen titularrei beren eskubideak erabat betetzea eragozten dieten gaitasun-gabeziak aztertu ditugu, baita eskubideen titularrak direnei beren obligazioak betetzea eragozten dieten gaitasun-gabeziak ere.

Gure estrategia definitu aurretik, nahitaezkoa da eskubideen eta obligazioen arteko distantzia murrizten edo gutxiagotzen duten ekintzak (egon litezkeenak), hau da, eskubideen titularren eta obligazioen titularren gaitasun-gabeziak kentzea ahalbidetuko duten ekintzak aztertzea, lehenetsitakotzat hartzen den funtsezko eskubidea erabat gauza dadin ahalbidetuz eta lotutako eskubideak gauzatzen lagunduz. Hori honela egin behar da: erantzukizuna, agintaritzea, erabakia hartzeko baliabideak eta gaitasunak eskubideen titularren eta obligazioen titularren konunikazioa sendotuz.

Azken urrats horri esker, (esan daiteke zereginen analisisa eta gaitasunen analisisa egin ditugun une berean gauzatu dugula) gaitasunen analisisan identifikatu genituen eskubideen titularren eta betebeharren titularren arteko distantziak murriztu ahal izango dira. Eta aldean identifikazioa (gorago ere esan dugu aurreko urrats guztien emaitza dela) erabakigarria izango da gure lankidetzaren-estrategia aukeratzerakoan.

Gorago adierazi denez, analisi horiek gai praktiko bihurtzeko modurik hobereana honako hau da: eskubideen titularren eta betebeharren titularren arteko distantziak murriztuko dituzten ekintza posibleak definitzea hezkuntzarako eskubidea erabat gauzatzeko, gure kasuan.

Errazena buelta emateko ahaleginak egitea da, hots, eskubideen titularren eta betebeharren titularren artean ezarritako harremanetarako identifikatutako **gaitasun-gabeziak ekintza bihurtzea**. Hori lan-saio batean egingo dugu, aurreko urratsetan parte hartu duen taldearekin batera. Kontua da atzeman diren eta eskubideen titularren eta betebeharren titularren arteko «gaitasunak» sorten dituzten gabeziak sistematizatzea pixkanaka-pixkanaka. Hori egindakoan, distantziak ekintza positibo bihurtzeko unea izango litzateke. Ekintza horiek gure estrategien diseinua bideratuko dute gero.

Bilera ordu eta erdikoa izango da, eta, ondoren, partekatutako jardunaldiak balioesteko tarte bat izango da. Jarraian, errealitatea egiaztatu beharko da gure proiektuaren estrategia definitzeko.

Lanaldiaren emaitza aurreko etapan egindako taula (Gaitasunen analisia) oinarri hartuta landuko da. Taula horretatik (informazio guztia sistematizatu nahi duen irakurketa horretan) honako gaitasun-alde hauek identifikatzen dira:

- Baliabiderik ez izatea aginteak eta erantzukizunak gauzatzeko (maila guztietan: familiak, udalerriak, estatua).
- Beti ez da ulertzen familia-bizitzaren eta komunitate-bizitzaren arteko harremana, ezta familia-jardunbideek pertsona bakoitzaren edo familiako kide bakoitzaren eskubideak gauzatzekoan duten garrantzia ere (adibidez, uzta biltzea eta hurrek eskolara joateko duten eskubidea).
- Komunitateek lidegortza ahula dute, ez dakite zer rol izan dezaketen hezkuntza-politika publikoak garatzerakoan.
- Ez dago koordinazio-mekanismorik, ezta zereginak banatzeko mekanismorik eta erabakiak elkarrekin hartzeko gunerik ere.
- Ez dute parte hartzen kolektibo inplikatu guztietako ordezkariak dituzten erabakiak hartzeko organoetan, ezta administraziogune egokietan (eskualdekoak eta naziokoak) ere.
- Interes komunak defendatzeari dagokionez, lan gutxi egiten da eta ez dago komunikazio-loturarik gainerako komunitateekin.
- Ez dago datu sistematizaturik eta informazio partekatuko daturik.
- .../...

Atzemandako gaitasun-alde horiek oinarri hartuta, ahalegina egiten da alde horiek ekintza positibo bihurtzeko:

- Jendeak zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea.
- Kudeaketa-sistemak hobetzea.
- Eragiteko guneak indartzea (batez ere adingabeen familiekin eta komunitatearekin).
- Zonako beste kolektibo batzuekiko loturak indartzea.
- .../....

Identifikatutako ekintza positibo horiek eskaintzen dizkiguten aukeretatik abiatuta, gure estrategia zehatza definitu behar dugu. Hori egiten dugu normalean denbora aldetik mugatuta dagoen eta baliabide pertsonal eta giza baliabide definituak esleitzen dizkiogun proiektu bat azaltzen dugunean.

Ezin gara denera iritsi. Horregatik, garrantzizkoa da erakunde gisa ditugun indarrak eta aukerak gure kontrako alderdiarekin eta gure ahaleginak zentratuko ditugun komunitatearekin berrikustea eta aztertzea, baita beste erakunde eta enti-tate batzuekin gauza ditzakegun aliantzak eta dagoeneko abian dauden prozesuetan sartzeko aukerak berrikusi eta aztertzea ere.

7. ALDEAK DESAGERRARAZTEKO GARAPEN- -LANKIDETZARAKO ESTRATEGIAK

Eskubideen titularrek eta betebeharren titularrek gauzatuko dituzten zereginak titular bakoitzak zeregin horiek betetzeko dituen gaitasunekin alderatu ditugunez gero, giza eskubideak benetan gauzatzeko desagerrarazi behar diren aldeak zein diren jakin ahal izan ditugu. Alde horiek egon litezkeen esku hartzeko arloak identifikatzeko atea izan daitezke.

Lankidetz-estrategiak identifikatu eta zehazterakoan, gure esku-hartzea zer nolako izango den azalduko duen helburu espezifikoa definitu behar da, emaitzen eta jardueren arabera banakatuta.

Esku-hartze orotan hiru jardun-maila bereizi behar dira. Maila horiek funtsezkoak dira jardunaren inpaktua eraginkorra izan dadin giza eskubideak erabat gauzatzeari dagokionez. Mailak hauek dira:

- Defentsa.
- Babesa.
- Sustapena.
- Giza eskubideak gauzatzeko bitarteko egoki eta behar adinakoetarako sarbidea **defendatzeko** obligazioak eskatzen du Estatuak ez hartzea sarbide hori eragozten duen neurririk.
- **Babesteko** obligazioak eskatzen du Estatuak neurriak hartzea enpresek edo partikularrek gizabanakoei edo kolektiboek ez debekatzeko giza eskubideak gauzatzeko bitarteko eta baliabide egokiak eta behar adinakoak lortzeko sarbidea.
- **Sustatzeko** obligazioak giza eskubideak gauza daitezen errazteko eta emateko obligazioa biltzen du. **Sustatzeko (errazteko)** obligazioak esan nahi du biztanleriaren bizibideak bermatuko dituzten baliabideak biztanle horiek lortzeko eta erabiltzeko aukera indartzera bideratutako ekintzak eskuratu behar dituztela Estatuak. Obligazio hori pixkanaka soilik egin daiteke, baina dauden baliabideak eskuragarri izanik ahalik eta gehien. Eskubidea **sustatzeko (esku-ratzeko)** obligazioak esan nahi du gizabanakoek edo taldeek, beren kontroletik kanpo dauden arrazoak direla medio, bitarteko eta baliabide egoki eta behar adinakoak beren bitartekoen bidez lortu ezin badituzte, Estatuak zuzenean eman behar dizkiela nahitaez gizabanakoek bitartekoak eta baliabideak zuzenean lortzeko behar dituzten baliabideak (edo baliabide eta bitarteko horiek erosteko behar duten dirua). Obligazio hori hondamendi naturalen edo gatazken egoeretan ere aplikatzen da.
- **Diskriminaziorik eza bermatzeko** obligazioa: diskriminaziorik ezaren printzipioa giza eskubideei atxikita dago. Printzipio hori berehala aplikatu behar da, eta ez da baliabideen erabilgarritasunaren mende egongo, ezta garapen-

mailaren mende ere. Estatuak ezin du inola ere *de iure* edo *de facto* diskriminatuko biztanleriaren zati bat giza eskubideak baliatzerakoan.

Jardunaren hiru mailak gorago nola azaldu diren kontuan hartzen badugu, behar bada pentsa genezake Estatuaren zeregina zein den soilik aipatzen dela. Nolanahi ere, gure estrategiek ildo horretan bertan bideratuta egon beharko lukete, nahiz eta estrategia horien eremua tokikoagoa izan, zirkulu zentrokide gisa; izan ere, ziur gaude tokikoak aldaketak eragiten dituela globalean.

Gure strategiak ez badio zuzenean laguntzen esku-hartzeko hiru maila horietakoren bati (gure eremu zehatzean beti), egiaztatu beharko dugu beste entitate batzuen esku-hartzeen bitartez erabat erantzuten zaiela giza eskubideak benetan betetzearen ondorioz sortzen diren erronek. Lanerako hipotesi horren ondorioz, aliantzak jarduneko oinarritzko tresnatzat hartu behar ditugu, nahitaez, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren barruan.

Azken batean, estrategia eraldatzailea (esku-hartzeen batura gisa) definitzeko honako 5 urrats hauetan guztietan edo horietako batzuetan zentratu beharko genuke gure esku-hartzea: kontzientziazioa, ahalduntzea, ekintza, jarraipena eta eragina.

Aurreko urrats horietako edozeinetan eragiteak honako honetara behartzen gaitu GGKE garen aldetik: gure esku-hartzeetan, partaidetza, diskriminaziorik eza eta kontuak eman daitezten bermatzea. 3. eranskinean daude bilduta printzipio horiek guztiak zehatz-mehatz.

Definitzen dugun estrategia izango da azaldu eta gauzatuko dugun proiektuari gorputza emango diona. Gida honen hasieran adierazi dugunez, gu EPIan oinarritu gara, baita ikuspegi horrek eskaintzen dizkigun ahalbide eta tresnetan ere. Horregatik, definituko dugun estrategia plangintzarako ideia nagusi batean bilduko da. Hortik abiatuta, eta **aurretik garatutako faseetako bakoitzaren informazio eta esperientzia guztiarekin**, komenigarria izango litzateke proiektua gure erakundeetan egin dugun bezala azaltzea eta dagozkion formularioetara egokitzea une bakoitzean.

Gure kasuan, eta ideia nagusia lantzeko, jarraitu beharreko bidea aurreko fasean (gaitasun-aldeen analisia) identifikatutako ahalbideek ematen dute. Proposatutako ahalbideei berriro helduz, honako ekintza positibo posible hauek identifikatu ziren:

- Norberak zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea.
- Kudeaketa- eta hezkuntza-sistemak hobetzea.
- Eragiteko guneak indartzea (batez ere adingabeen familiekin eta komunitatearekin).

- Zonako beste kolektibo batzuekiko loturak indartzea.
- .../...

Prozesu osoarekin lotutako lantaldeak (gure GGKE, kontrako alderdia eta prozesuan bereziki gehiago inplikatu diren hainbat pertsona, baina ez derri-gorrez zereginak eta abar identifikatzeko faseetan lan egin duen talde osoa) aurreko ekintza positiboak ditu oinarritzat eta lan-ildo espezifikoak zehaztuko ditu. Hemen, beste behin ere, garrantzizkoa da kontuan izatea faktore askok eragiten dutela hartzen den erabakian. Horien artean, inplikaturako erakundeen (GGKE eta kontrako alderdia) esperientzia eta baliabideen ahalbideak, esku-ratu ahal izango dituen fondoak, giza baliabideak, desberdintasun larriengan inplikatzeko apustua eta gehien baztertuta dauden taldeak eta komunitateak nahitaez lehenestea eta abar.

Estrategia integralak definitzen ahaleginduko gara, eta, hala badagokio, tokiko testuingurua eta zonan lan egiten dugun erakundeak berrikusiko dira berriro ere. Erakunde bakoitzak, batez ere nolabaiteko esperientzia dugun erakundeok, lan egiteko modu garbiak ditugu ideia nagusi bat egiterakoan eta esku hartzeko bere logika definitzerakoan. Gure kasuan, badugu aurretiazko esperientzia zonan (gida honetako Aurretiazko Fasearen dokumentuan bilduta dago), eta esperientzia horrek gure esku-hartzeak markatzen ditu. Lehen atera diren ekintza positibo guztiak lantzen saiatzeko egiten dugun jarduna ekintza horiek banan-banan zehazteko ahaleginak egitea da. Gero, ikusiko dugu ekintza horien artetik zeinek osa dezaketen gure azken estrategia eta zein ez ditugun onartu behar.

- *Jendeak zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea:*
 - Gurasoekin lan egitea eta funtsezko eskubideak hurbiltzea.
 - Komunitatea eskubideen inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziazteko prozesuak babestea.
 - Adingabeekin eta gazteekin lantzea funtsezko eskubideen edukia eta esanahia, baita eskubide horiek beren bizitzetan duten eragina ere.
 - Eratorritako erantzukizunak bete daitezen eskatzea ahalbidetuko duten kontuak emateko mekanismoetan lan egitea. Bi esfera: eskualdekoa eta nazionala.
 - .../...
- *Kudeaketa- eta hezkuntza-sistemak hobetzea:*
 - Gurasoak antolatzeke modua, zonako beste eskualde batzuetako haurrak babesteko Batzordeen esperientzia aprobetxatuz.
 - Eskolari buruzko informazio zehaztua eta behar bezain adina banaka-

tua biltzeko mekanismoak ezartzea (matrikulatutako haurrak, eskolara joatea, ematen den irakastordu erreal kopurua, irakasleen falta kopurua eta abar).

- Barne-arautegi argia, definitutako erantzukizunak ezartzeko: eginkizun edo zeregin bakoitza nori egiten duen; informazioa nori ematen zaion; nora bidali behar den azken tokiko eskaria, eta abar.
- Eskola-curriculum (balioetan oinarritutako hezkuntza; giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza; irakaskuntzako metodologia parte-hartzaileak...).
- *Eragiteko guneak indartzea:*
 - Ikusi dagoeneko dauden zer saretan egoteko aukera dagoen –Diagnostiko Fasean egindako lana dela medio, badakigu GOTEK (Groupe des ONG Travaillant en Education au Congo), trukerako foroa (horren helburua eragiteko politika zentralak garatzea da, gobernuan eragiteko Hezkuntzarako Eskubideari dagokionez) eta Nazioarte Ekimena Guztiontzako Hezkuntzarako Bide Azkarra (IVR-EPT) daudela–.
 - Zenbaterainokoa den inplikazioa horietako bakoitzean.
 - Haiengana jotzeko eta errekurtsoak, eskabideak, eskaerak edo eskariak aurkezteko aukera ematen duten erakundeei buruzko oinarrizko prestatuntza.
 - Haurren eta/edo gazteen eragiteko taldeak sortzea, eskualdeko gazteen klubekin aliantzak bilatuz.
 - .../...
- *Beste kolektibo batzuekiko loturak indartzea:*

Taldeak, hiru lagunekoa, helburu orokorra (bere ikuspegiaren eta zereginaren nahiz zonan aurretik izandako esperientziaren ondorioz, oso markatuta dago) eta helburu espezifikoa identifikatu ostean, proiektu zehatzaren gaineko esku-hartzearen logika azaltzen da.

 - **Helburu orokorra.** Haurrak babestea Hezkuntzarako Eskubidea gauzatuz.
 - **Helburu espezifikoa.** Derrigorrezko eta doako lehen mailako irakaskuntza eskuratuko dela bermatzea Kikoi eskualdeko 5 komunitatetan.

Bi helburuak definitu ondoren, eta gure emaitzak azaltzeko, aurreko urratsetan identifikatutako ekintza positiboekin batera azalduko zehaztasunak eta errealitatea ezagutzearen ondorioz ateratako geure gogoetak izango ditugu kontuan.

Nahiz eta funtsezkoa izan gaitasunak eta tokiko indartzea azpimarratzea (horrek esan nahi du funtsezko eskubideak ezagutu behar direla eta horiei buruzko kontzientzia hartu behar dela, baita eragiteko lana ere), gainerako ekintzak babestuko dituen eta haurrentzako kalitatezko Hezkuntzarako Eskubidea ere bermatuko duen gutxieneko azpiegitura behar da. Gogoeta argia eta gure konpromisoa honako hau da: hasiera batetik lagundu behar diren azpiegitura horiek eskumeneko agintariek beren gain har ditzaten lan egitea.

Lan hau ez da azkarra eta, gainera, eztabaida asko eragingo ditu. Hartutako azken erabakiak plangintzari buruzko ideia nagusian bilduko dira.

Giza eskubideen adierazleak egiteko ohar batzuk

Esku hartzeko logikaren barruan –Plangintzari buruzko ideia nagusian laburbiltzen da–, **egiaztatze-adierazleak** daude, egiten ari garen lanaren etengabeko ebaluazioa eta jarraipena egiteko aproposak. Hala, gure proiektuari –hots, testuinguru eta denbora-tarte zehatz batean planifikatutako esku-hartze jakin bati– egotz lekizkiokeen **aldaketen maila** aztertze modukoak izan behar dute adierazleak. Ez da ahaztu behar, halaber, esku-hartze horrek epe ertaineko proposamen baten baitan egon behar duela.

Gainera, adierazle horiek giza eskubideen adierazle direnez, aurreko ezauzgarri gehitu beharko litzaieke, halaber, gure esku-hartze guztiek eta beste eragile batzuen esku-hartzeek aldaketa jasangarri eta oinarrizkoak eragin beharko lituzketela giza eskubideak benetan gauzatzeari dagokionez, UNICEFek Hezkuntzarako Eskubidea lantzen duenean adierazi bezala.

Horrela planteatuta, adierazleak gure lanaren garapen egokirako ezinbesteko tresna bihurtzen dira, eta **giza eskubideen benetako gauzatzearen** erakusgarri (proiektuak lehenetsitako eskubidearena eta lotutako eskubideena, hain zuzen). Adieraz dezakete, orobat, **gure esku-hartzean jarraitutako prozesuak zer-nola parte hartu duen oinarrizko eskubideen gauzate horretan**, eta zer-nolako ekarpena egiten dion beste helburu handiago honi: kontzientzia hartzea eta ahalmena izatea pertsonen eta kolektiboen eskubideak baliatzea erreklamatzeko. Azken hori bereziki garrantzitsua da gure lanean; batetik, gure jardueren dimentsioagatik eta, bestetik, gure jardunbideak berrikusteko bide ematen duelako eta lortutako emaitzak eta gure lanaren eragina hobetzeko aldaketak sartzeko aukera ematen duelako.

Kasu batean nahiz bestean, **aldagai kuantitatiboak** erabil daitezke (eskubide bat baliatzeko ezinbesteko zerbitzu baten estaldura-maila) edo **kualitatiboak** (kalitateko eskubide baten dimentsioei dagokienez).

Gure matrizean baziren bai adierazle normalizatuak bai giza eskubideen adierazleak, eta bien arteko oreka beharrezkoa da, betiere baliagarri direla jarraipena egiteko, eta ikusteko ea aurrera edo atzera egin den giza eskubideak baliatzeari dagokionez (horretarako, betebeharrak dituztenek zer betetze-maila duten har daiteke kontuan, edota eskubideen titularrek eskubideak baliatzen al dituzten, batez ere kolektibo kalteberrek).

Giza eskubideen adierazleak egiteko kontuan hartu beharreko zenbait ohar eman aurretik, adierazleen beste sailkapen bat ere proposa daiteke, Giza Eskubideentzako Goi Komisarioak berak aipatzen duena:

- **Egiturazko adierazleak:** ezarritako mekanismo instituzionalak adierazten dituzte, bai eta giza eskubideei buruzko legezko tresnen berrespena ere, edozein mailatan dela ere, ez soilik Estatuei dagozkienak. Horrela, kolektibo jakin baten eskubide bat baliatzeko tokiko edo udalerrri mailako neurri bermatzaileen egituraketa aztertu edo neur daiteke, hala nola parte-hartzea errazteko neurriak, kontzeptuen definizioa eta bate-ratzea, etab.
- **Prozesuaren adierazleak:** eskubideak gauzatzeko edo eskubideak erreklamatzeko eta baliatzeko neurriak ezartzeko egiten ari diren urratsetan jartzen dute arreta.
- **Emaitzen adierazleak:** batez ere kuantitatiboak dira, eta ematen diren zerbitzuen bidez eskubide bat zer mailatan ari den baliatzen neurtzen dute, esaterako; edo zer ehunekok duen baliabide bat eskura, etab.

Azkenik, eta arestian aipatu dugunez, giza eskubideen adierazleak egiten lagundu dezaketen zenbait jarraibide jasotzen dira ondoren, pertsona eta kolektibo guztiek giza eskubideak osotasunean baliatzen dituzten neurtzeko. Baliatze horrek titulu juridiko baten babesa izan behar du, kontuak emateko eta erantzukizunak eskatzeko mekanismoak egituratzeko bide emango duena:

- Diagnostiko Fasea talde kalteberenen errealitatean sakonduz egiten da, datu banakatuak eta zehatzak erabiliz. Hori bera landuko da gure proiektu zehatzerako lantzen ditugun adierazleekin; izan ere, ahaleginak egingo ditugu adierazle horiek erakuts dezaten gure jardunek talde baztertuen edo behartsuenen bizitza-baldintzetan duten eragina. Diagnostikoan bildutako informazioak oinarritzko linea, erreferentzia-puntuak izan behar du. Kopuru horiek epe ertainean aldatzeak ahalbidetuko du gure esku-hartzeen eragina neurtzea.

Berriz ere gogorarazi behar da laneko hasierako faseak oso garrantzitsuak direla. Guk lan egiten duguneko eskualdean edo komunitatean daturik ez badago, gure diagnostiko-faseetan egin behar ditugu. Eta sexuaren arabera banakatutako datuak izango dira, eta talde kalteberenak kontuan hartuta (gutxiengoak, emakumeak, talde indigenak eta abar). Gure ideia nagusia eratzen denean, nahitaezkoa da hori lortzea.

- Proiektuaren fase guztiak lotuz, esan behar da estatistika-zerbitzuak izatea ezinbestekoa dela kontuak emateko eta sistema demokratikoak eraitzeko. Diagnostiko bat planteatzerakoan zerbitzu hori ez dagoela ohartuz gero, proiektuak zerbitzu hori abian jartzeko eskatzen eta datuak behar bezala erabiltzen lagundu dezake, gardentasuna eta sistema demokratikoen funtzionamendua sustatzen duten aldagaiak oinarri hartuz.

- Giza eskubideen adierazleak arau batetik (giza eskubideei buruzkoa) eratortzen dira esplizituki. Norbaitek pentsa lezake anbizio handiegikoa dela, zeren arau horiek ezartzen dituzten betebeharrak edo jomugak Estatuentzat izaten baitira gizarte-erakundeentzat baino gehiago.

Ahalegina egin behar da arauak ezarritako obligazioak eta konpromisoak gu lantzen ari garen eremura (tokikoa, eskualdekoa, naziokoa) jaisteko. Izan ere, adierazleak erabakigarriak dira giza eskubideak zaintzeko, eta betebeharren titularrek dituzten erantzukizunak eta obligazioak betetzen ore diren zaintzeko. Gure proiektuak kontuan izan behar du hori eta eskumeneko erakundeari (komunitatekoa edo eskualdekoa edo udalerrikoa) kontuak emanarazi beharko dizkio giza eskubideekiko hartutako konpromisoari dagokionez. Hortaz, adierazleak oinarritzko eskubideak zaintzeko balio izango dute, adierazle horiek testuinguru jakin bakoitzean egunerokotasunean eta errealitate bakoitzean zehazten baitira.

Christian Courtis aipatuz, giza eskubideen adierazleak garatzeko aukera kontzeptuala izateari esker, nazioarteko itunek edo nazioarteko zuzenbideko beste arau batzuek aitortutako giza eskubideen dimentsioak aldagai bilakatzeko aukera izango dugu; kontrolatzeko eta behatzeko moduko aldagaiak, hain zuzen³⁷.

Esate baterako, Nazio Batuek, Hezkuntzarako Eskubideari dagokionez, 8 jomuga eta adierazle ezartzen dizkiete Estatuari. 5. jomugak honako hau ezartzen du: “bigarren hezkuntzarako sarbidea guztiek berdintasunez izan dezaten lortzea”. Adierazleak: bigarren hezkuntzan dagoen neska kopurua mutil kopuruarekin alderatuta; Gastu publikoaren proportzioa [...]; eskola-uzte tasak. (Ikus 2. eranskina, *Hezkuntza giza eskubide den aldetik*).

Adierazle horiek berak edo antzekoak kontrola daitezke toki-eremuan eskoletan eskolatutako neska kopurua mutil kopuruarekin alderatuta; eskualdeko gobernuak hezkuntzarako esleitzen duen gastu publikoa; eskola-uzte tasak proiektuaren eremuko eskoletan.

Aurreko puntuan adierazitakoari jarraiki, eta lanaren etapa guztiak lortzearen garrantzia nabarmenduz, adierazleak betebeharren titularrei eragiten dieten giza eskubideen dimentsio guztiak izan behar dituzte kontuan, eta haiek neurtzen saiatu; hau da, **giza eskubideak errespetatzeko, babesteko eta benetan gauzatzeko betebeharrak**.

³⁷ COURTIS, Christian: “Apuntes sobre la elaboración de indicadores en materia de derechos económicos, sociales y culturales”. Buenos Aireseko Unibertsitatea, 2009.

- Ondorengo uneetarako adierazleak ezar daitezke, balio progresiboak ezarriz. Horri esker, abian jarritako garapen-politikekin lotura duten eragileen konpromisoa zein den jakin ahal izango da, gure esku-hartzearen errealitatea kontuan hartuz, denboran zehatza eta dimentsio txikikoa dena gazteen biztanleria jakin bat duen herrialde batean, esaterako.
- Halaber, erabilgarria izan daiteke adierazleentzako gutxieneko estandarrek lantzeko aukera pentsatzea. Esaterako, 40 ikaslerentzat gutxienez irakasle bat behar da kalitatezko hezkuntza bermatzeko. Proporzio hori onartuta dago nazioartean³⁸.

Edonola ere, eta aurreko jarraibideekin bateragarriak izanik, RIGHTS irizpideak (ingelesezko siglengatik) baliagarriak izan daitezke plangintzari buruzko gure ideia nagusien taulan sartu beharreko adierazleak egiteko edo hautatzeko gida gisa.

ADIERAZLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

R	egokiak eta fidagarriak
I	independentek behatutako subjektuen datuak hartzeko metodoei dagokienez
G	globalak eta maila unibertsalean erabilgarriak, baina hala ere testuingurura ekartzeko eta desglosatzeko modukoak debekatutako diskriminazio-arrazoitan
H	giza eskubideen arauetan oinarrituak eta zuzenbideko arau-esparruaren baitakoak
T	gardenak metodoei dagokienez, aproposak eta denboran zehaztuak
S	sinpleak eta zehatzak

Iturria: Giza Eskubideentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren bulegoa Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa.

³⁸ ActionAid International, *Hezkuntzarako Eskubideak: Praktikatzaile eta aktibistentzako gida*.

Esku-hartzeko logika guztia diseinatutakoan, eta ideia nagusian gauzatu ostean, ondorengo taulak hura egiaztatzen lagunduko digu. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia erabiliz landutako strategiaren (gure ideia nagusian bilduta dagoena) diseinua egiaztatzeko zerrenda antzeko bat da.

Giza eskubideen printzipioak prozesuak sailkatzeko bitartekoak dira, baina, aldi berean, helburuak ere badira. Hortaz, nahitaez hartu behar kontuan gure strategiak diseinatzerakoan, ezartzerakoan eta ebaluatzerakoan.

- **Partaidetza:** talde kalteberenei egin al zitzaien kontsulta strategiari eta bere osagai guztiei buruz? Estrategia definituta dagoen bezala, aurreikusitako neurriak erabilgarriak izango al dira kalteberentzat hartzen diren kolektiboentzat? Neurri horiek bere egingo ote dituzte lanari hasiera ematean?
- **Ekitatea:** strategiak identifikatzen al ditu talde kalteberenak?, proposatzen al ditu bidegabekeria soziala eta ekitaterik ezak desagerraraztera bideratutako neurriak?, zenbateraino dago bideratuta talde kalteberenen kalteberatasun-egoera eta, hala badagokio, segurtasunik ezaren egoera modu iraunkorren konpontzera?
- **Gardentasuna:** argi al daude estrategia honen helburuak, tresnak eta biztanleria onuradunarentzat eskuragarri dauden baliabideak? argia al da erabakiak hartzeko prozesua eta tartean sartutako instituzio bakoitzaren partaidetza?
- **Kontuak ematea:** argi al daude eta legez identifikatuta al daude estrategia honetan sartutako alderdi bakoitzaren erantzukizunak eta obligazioak?, ba al dago haren aplikazioari buruzko aldizkako jarraipena egiteko sistemarik?, zenbateraino eska dakizkieke erantzukizunak alderdiei beren obligazioak bete ez dituztelako?, pertsonak eta kolektiboek ba al dakite estrategia aplikatu dadin eskatzeko eskubidea dutela eta estrategia bete ez delako erantzukizunak eskatzeko eskubidea dutela?
- **Diskriminaziorik eza:** ba al dago arrazoi diskriminatzaileak direla medio baztertutako talde edo gizabanakorik?
- **Interdependentzia:** zein dira strategiak aintzat hartzen dituen eskubideak?, kontuan hartzen al dira eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak? kontuan hartzen al dira eskubide zibilak eta politikoak?, ba al dago loturarik haien artean?

Galdesorta hori interesgarria da printzipioak prozesu eta jomuga gisa lantzeko eta ideia nagusian horrela azal dadin.

5. taula: **Eskubideen ikuspegiaren duen programazioa, UNICEFen Espainiako batzordea, 2008ko urria**

Eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren abantaila praktikoei esker, garapenerako programazioaren ezaugarriak areagotu daitezten zaintzen lagunduko da. Adierazitako ezaugarriak honako hauek dira:

- *Iraunkorra*: ikuspegi multidimentsionalak garapenaren alorrean gertatzen diren porroten sakoneko kausak lantzen ditu eta garapen-prozesuaren fase guztietan elkarri laguntzen dioten printzipioak aplikatu nahi ditu. Ikuspegi horren bitartez, jabetasun-sentimendua sortu nahi da.
- *Legezkoa*: eskubideetan oinarritutako ikuspegiak garapena nazioarteko komunitateak gehien berresten dituen nazioarteko tratatuekin lotzen du.
- *Bidezkoa*: eskubideetan oinarritutako ikuspegiak oso kontuan hartzen ditu talde kalteberenak, eta azpimarratzen du datu banakatuak behar direla baztertutako pertsonak identifikatzeko, bereziki gutxiengo direnak.
- *Eraginkorra*: komunitateak parte har dezan bultzatzeak eta ikuspegi parte-hartzaileak erabiltzeak aldatu nahi ez izateko ideia murrizten eta jabetza-zentzua sortzen laguntzen du. Nazioarteko itunek, halaber, arau eta helburu argiak eta erraz identifikatzen direnak eskaintzen dituzte, eta horiei esker, programen ikuskapena eta ebaluazioa hobetu daiteke.

Eskubideetan oinarritutako programazioan, nazioarteko giza eskubideen sistemaren arauak, irizpideak eta printzipioak biltzen dira garapenerako planak, politikak eta prozesuak gauzatzekoan.

Programaziorako jardunbideek, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi izanik, honako alderdi hauek aplikatzen dituzte:

1. Pertsonak beren garapen propioko funtsezko eragiletzat hartzen dira eta ez ondasunen eta zerbitzuen hartzaile pasibotzat.
2. Partaidetza bitartekoa eta jomuga da aldi berean.
3. Estrategiak ahaduntzeko dira, ez ahalduntzea kentzeko.
4. Emaitzak ez ezik prozesuak ere monitorizatu eta ebaluatu egiten dira.
5. Análisiak parte-hartzaile guztiak biltzen ditu.
6. Programak baztertuta dauden taldeetan, talde behartsuenetan eta baztertuetan ardatzen dira.
7. Garapen-prozesua egokia da tokian-tokian.
8. Programen helburua desberdintasuna murriztea da.
9. «Goitik behera» eta «behetik gora» ikuspegiak sinergikoki erabiltzen dira.
10. Egoeren analisisa garapenerako arazo hurreneko, azpiko eta oinarritzko kausak identifikatzeko erabiltzen da.
11. Jomuga eta helburu neurgarriak garrantzizkoak dira programazioan.

12. Partenariotza estrategikoak garatu egiten dira, baita eutsi ere.

13. Programek parte-hartzaile guztiekiko erantzukizuna babesten dute.

Halaber, premien eta eskubideen artean dagoen aldeak bereizi behar ditugu:

- Eskubidea norberarena den zerbait da, pertsona bat naizelako baitagokit. Gobernuarentzako obligazioa da eta hari eska diezaiokegu.
- Premia bat nahi bat da, eta erabat legitimoa izan arren, ez dago nahitaez lotuta gobernuak duen obligazio batekin; ezin da legearen aurrean eskatu premia bat asebetetzea.
- Premiak bete edo asebete egiten dira; eskubideak, aldiz, gauzatu egiten dira (errespetatu, babestu eta eman eta bete egiten dira).
- Premiek ez dute zertan unibertsalak izan, giza eskubideek, ordea unibertsalak izan behar dute.
- Premiak hierarkikoki sailka daitezke, lehentasunen ordenaren arabera. Giza eskubideak ezin dira zatitu, elkarrekiko menpekoak direlako.
- Oinarrizko premiak jomugak edo emaitzak lortzeko estrategien bitartez asebate daitezke; giza eskubideak, aldiz, emaitza eta prozesua kontuan hartzen ba dira soilik gauza daitezke.

8. PROZESUAREN BALIOESPENA-JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK

Bukatu dugu gure proiektuaren azalpena. Giza eskubideen estandarrak eta printzipioak izan ditugu kontuan uneoro. Gure lana autoebaluatzeko modu egoki bat honako hau izan daiteke: programazioa praktikan jartzeko balidazio-printzipioak egiaztatzea giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia (ondoren azalduko dugu) erabiliz. Nolanahi ere, gakoa eskubideen tratamendu integrala eta zatiezina kontuan hartzen duen prozesu parte-hartzailea eta inklusiboa praktikan jartzea da.

- «Eskubideen titular» espezifikak identifikatzea eta ardaztea, bereziki talde pobreenetan, baztertuenetan eta marjinatuenetan eraginez. Aurreko orrialdeetan azaldu dugun pobrezia-kontzeptua hartuko dugu erreferentziatzat; kontzeptu horren arabera, kontuan izan dugu talde horien eskubideak erabat gauzatzeko gaitasuna.
- Generoaren eta boterearen arteko harremanak eta pertsonak beren eskubideak lortzeko eta horiek baliatzeko gaitasunean harreman horiek duten eragina oso garrantzizkoa direla onartzea. Prozesu honek eraldatzailea eta parte-hartzailea izan behar zuen.
- Gure ekintza-esparrua desberdintasunaren eta bazterketaren kausa nagusiak izan dira. Horren bitartez jakin dezakegu pertsonak zergatik ez dituzten beren giza eskubideak lortzen eta uler dezakegu zein den tradizioaren, kulturaren eta politikaren eragina.
- Eskubideak erabat gauzatzeari dagokionez, tartean sartuta dauden alderdien erantzukizunak eta betebeharrak egiaztatzea.
- Guneak sortzea eta pertsonak antolatzea gogoeta-ekintzaren prozesu batean, eta pertsona horiekin lan egitea boterea aztertzeko, botere-harreman desberdinak eztabaidatzeko eta giza eskubideak finkatzeko.
- Tokikotik nazionalera edo nazioartera eraikitzea, kontuan izanda maila bakoitzak bere eginkizun propioa duela eta eginkizun horiek elkar osatzen dutela.
- Besteekin elkartzea eta aliantzak sortzea, bakoitzak egiten duen lana osatuz, eta, horrela, estrategia integralagoak eta eragin handiagoa dutenak antolatzea.
- Bermatzen dugu gure esku-hartzea gauzatu dugun taldeek modu aktiboan hartu dutela parte proiektuaren diseinuan eta jarraipenean. Erabili ditugun datuak eta metodologiak erraz irakur daitezke eta oso ondo ikusten dira.

Gure erronka nagusia eskubide bakoitzari lotutako kontzeptu abstraktua gure tokiko testuinguruaren errealitate jakin batean aldatzeko gai izatea da.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegian funtsatutako esku-hartze hau lehen urratsa da jarrera-aldaketaren eta botere-harremanen prozesu eraldatzailer batean. Esku-hartze bakoitza aurrerapen txiki bat da giza eskubideak pixkanaka egiteko prozesuan. Urratsek ez dute isolatuak izan behar, eta ez dute elkarrengandik urrun egon behar, baizik eta proiektuaren eraginkortasunari dagokionez nahiz erakundearen barne-politikei dagokienez ondo planifikatutako prozesu bat osatu behar dute.

Lortutako emaitzak bezain garrantzitsua da emaitza horiek lortzeko erabili den prozesua. Emaitza horiek ez diote amaiera ematen giza eskubideen lorpenari, baizik eta aurrerapen txiki bat dira talde pobreenentzat, marjina-tuenentzat eta baztertuenentzat. Egindako ahalegin honi jarraipena eman beharko zaio nazioarteko legedian bildutako gutxienekoak behintzat lortzeko. Gure ekarpenak, beste agente batzuen esku-hartzeak eta tokiko biztanleen gaitasunak (gero eta handiagoa dena) bat egin beharko dute aurreko prozesua gauza dadin.

Eta orain, zer gehiago behar dugu? Ahalegin hori aprobetxatzeko modu egoki bat esku-hartze bakoitza sistematizatzea da. Horri esker, hobeto ikusten dugu zer lortu dugun eta etorkizunean zer erronka izango ditugun eta zer urrats egin beharko ditugun. Oso modu egokia da gardentasuna emateko eta beste eragile batzuk prozesu honetan sar daitezen laguntzeko.

ERANSKINAK

1. ESKUBIDE EKONOMIKOAK, SOZIALAK ETA KULTURALAK ETA GARAPENERAKO ESKUBIDEA¹

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunean parte hartu duen herrialde orok, Itun horretako 2. artikulua lehengo atalaren arabera, honako konpromiso hau hartu behar du: “bakoitzak bere aldetik nahiz nazioarteko laguntzaren eta lankidetzaren bitartez, neurriak hartuko ditu, bereziki neurri ekonomikoak eta teknikoak, eskura dituen baliabide guztien gehienekora heldu arte, hemen onartutako eskubideen (Itunean onartutakoak) erabateko eraginkortasuna lortzeko, pixkanaka, egokienak diren bitarteko guztiak, legegintza-arloko neurriak hartzea barne, baliatuta”. 2. artikulua bereko bigarren atalak honako hau adierazten du: “*Itun horretan parte hartu duten Estatuak konpromisoa hartu dute Itun horretan agertzen diren eskubideak gauzatuko direla bermatzeko, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste mota bateko iritzia, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein gizarte-baldintza dela medio ezein diskriminaziorik egin gabe*” (letra etzana guk jarri dugu).

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko nazioarteko arauak, unibertsalki aplikatu daitezkeen arren, Estatu bakoitzak dituen baliabideak hartzen dituzte kontuan. Arau horietan onartzen da eskubide horien erabateko eraginkortasuna soilik denborarekin eta pixkanaka lor daitekeela, behar adina giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomiko daudenean, beste baliabide batzuen artean, nazioarteko lankidetzaren eta laguntza gauzatuz, hala nola garapenerako laguntza.

Kontuan izan behar da pixkanakako eraginkortasuna lortzeko premiaz gain, Estatuak berehalako obligazio batzuk dituztela, eskuragarri dauden baliabideen

¹ Koldo Casla, Arantza Chacon, Josu Oskoz. Giza eskubideen egoera Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008

mendekoak ez diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzkoak². Lehenik eta behin, “neurriak hartzeko” betebeharra berehalako obligazioa da. Eskubideen pixkanakako eraginkortasunaren kontzeptuak ez du gobernuen jarduerarik eza justifikatzen herrialdeak ez duelako garapen ekonomikoko maila jakin bat lortu. Hortaz, eskubideen gauzatzea murriztuko duten neurriak justifikatzeko kontroletik haratago dauden zirkunstantziak arrazoitzat argudiatzen dituen Estatuak egiaztatu beharko du ezin izango zuela eskubidearen eragin negatiboa arrazoizko moduan saihestu. Estatuaren berehalako beste obligazio bat “gutxieneko obligazioei” lehentasuna emateko betebeharra da. Honako hauek hartzen dira gutxieneko obligaziotzat: eskubide bakoitzaren funtsezko gutxieneko mailak bermatzeko behar direnak³. Hirugarrenik, ez da ahaztu behar *ez diskriminatzeko* betebeharra berehalako obligazioa ere badela. Era berean, *persona kalteberenei lehentasuna emateko betebeharra* printzipiozko obligazioa ere bada.

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalerikiko babesari dagokionez, funtsezko gaia eskubide horien justiziabilitatearena da. Nazio Batuen Giza Eskubideak Sustatzeko eta Babesteko Azpibatzerdeko kide izan zen José Bengoak honela definitu zuen justiziabilitatea: “prozesu horren bitartez Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunetan ezarritako eskubideak eta beste tresna batzuk justizia-auzitegien, eta erakunde publikoen aurrean erreklama daitezke, eta justizia urratutako eskubidearen beste edozein kasu gisa aplikatu ahal izango da”⁴.

Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak (1996ko Nazioarteko Ituna betetzen ote den zaintzeko eta “ohar orokorrak” deiturikoen bitartez Itunaren behar bezalako interpretazioa egiteko ardura duen organoa) ez du jarrera irmorik ezarri partikularrek beren eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak barneko baliabide juridikzionalen bitartez errespetatu daitezkeen eskatzeko balizko eskubideari dagokionez.

Nolanahi ere, honako ideia hauek aipatu ditu: “Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunak ez dauka Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko 2. artikulua 3. paragrafoaren b) atalaren zuzeneko baliokiderik. Atal horrek Estatu Kideak “errekurtso judizialerako auke-

² Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea: 3. Ohar Orokorra: Estatu Kideen betebehara mota, 1990, NBERen aurkibidea: E/1991/23, 9-12 paragrafoak.

³ Beraz, “*funtsezko elikagairik, funtsezko osasunerako lehen mailako arretarik, oinarritzko babeslekurik eta etxebizitzarik edo irakaskuntza-arloko modurik oinarritzkoenik ez duen Estatu Kidea prima facie ez da Itunaren arabera dituen obligazioak betetzen ari*” (letra etzana guk jarri dugu). Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea: 3. Ohar Orokorra: Estatu Kideen betebehara mota, 1990, NBERen aurkibidea: E/1991/23, 10. paragrafoa.

⁴ José Bengoa, “Informe Final sobre la relación entre el Disfrute de los Derechos Humanos, en particular los derechos económicos, sociales y culturales, y la distribución de los ingresos”, 1997ko ekaina, NBERen aurkibidea: E/CN.4/Sub.2/1997/9, 82. paragrafoa.

rak” garatzera behartzen ditu, besteak beste. Hala eta guztiz ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketen aurrean barneko baliabide juridikorik ez eskaintzea justifikatu nahi duten Estatu Kideek honako hau egiaztatu beharko dute: edo baliabide horiek ez direla “bitarteko egokiak” Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren 2. artikulua 1. paragrafoaren arabera, edo erabilitako gainerako bitartekoak aztertu ondoren, ez direla beharrezkoak. Hori egiaztatzea zaila izango da, eta Batzordearen ustez, kasu askotan, gerta liteke erabilitako gainerako bitartekoak eraginkorrak ez izatea errekurso judizialen bitartez indartzen edo osatzen ez badira”.

Bestalde, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak ere ikusi du, Itunak, alde batetik, ez duela erabakitzen Ituna ordenamendu juridiko nazionalan aplikatzeko erabil daitezkeen baliabide zehatzik, eta beste alde batetik, ez dagoela Itun osoa barne-antolamenduan sartzea behartzen duen xedapenik edo ez zaiola balio juridiko jakinik ematen xedapen horretan. Bestalde, Estatu Kide bakoitzari dagokio Itunaren eskubideei eraginkortasuna emateko metodo jakin bat erabakitzea bere legedian; nolana ere, beti kontuan izan behar da “erabiltzen diren bitartekoek egokiak izan behar dutela Estatu Kideak dituen obligazioak erabat betetzearekin bat datozen emaitzak lortzeari dagokionez. Hautatutako bitartekoei buruzko gogoeta ere egingo da Itunak Estatu Kideari ezartzen dizkion obligazioak Estatu horrek betetzen ote dituen jakiteko Batzordeak egingo duen azterketan”.

Nazioarteko Ituna betetzen ote den ikuskatzen duen organoak badaki Estatu Kide gehienetan auzitegiek oraindik nekez joko dutela Itunera eskubideak onartzeko arau-iturri gisa⁵. Horregatik, hauxe adierazten du: “azterketa judizialaren eginkizunak behar bezala gauzatzeko mugen barruan, auzitegiek Itunean onartutako eskubideak izan behar dituzte kontuan Estatuaren portatara eta Itunetik eratorritako obligazioak bat datozela bermatzeko nahitaezkoa denean. Auzitegiek erantzukizun hori ez aipatzea ez dator bat Zuzenbidearen inperio-printzipioarekin; izan ere, beti pentsatu behar da printzipio horrek giza eskubideen alorrean nazioartean dauden obligazioekiko errespetua biltzen duela”⁶.

⁵ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloaren proiektuari buruzko Lantaldean irekitako eztabaidan helburu izango diren elementu berriak emateko, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak, 2004ko azaroan, aurrekari jurisprudentzialen hautaketa bat (interes handikoa eskubide ekonomiko, sozialei eta kulturei dagokienez) aurkeztu zuen. Nazio Batuen Idazkaritza Orokorra “Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei dagokienez, aurrekariak hautatzea”, NBEren aurkibidea: E/CN.4/2005/WG.23/CRP.1.

⁶ Eskubide Ekonomiko, Sozialei eta Kulturei buruzko Batzordea, 9. Behaketa Orokorra: Itunaren barne-aplikazioa, 1998, NBEren aurkibidea: E/1999/22, 3., 5. eta 14. paragrafoak.

Halaber, Batzordeak “ikusten du, esaterako, onartutako eskubideak diskriminaziorik gabe baliatzea behar bezala sustatuko dela askotan, batzuetan errekurtsio judizialak emanez, eta beste batzuetan errekurtsio eraginkorrek emanez. Izan ere, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren Kide diren Estatu Kideak honako honetara daude behartuta (Itun horretako 2. artikulua 1. eta 2. paragrafoen eta 26. artikulua 3. paragrafoen arabera). Itun horretan aitortzen diren eskubideak edo askatasunak (berdintasunerako eta diskriminaziorik ezarako eskubidea barne) urratu zaizkion pertsona orok “errekurtsio eraginkorra jartzeko aukera izango duela” bermatzea (2. artikulua 3. paragrafoaren a) atala). Horretaz gain, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen buruzko Nazioarteko Itunean beste hainbat xedapen daude, besteak beste, 3. eta 7. artikulukoak (a, 8, 10 ataleko i hitz-tartea, 2. paragrafoa a atala eta 3. eta 4. eta 15. paragrafoak, eta 3. paragrafoa), eta xedapen horiek organo judizialek eta beste mota batekoek nazioko legezko sistemetan berehala aplikatzeko modukotzat hartu beharko liriateke. Badirudi nekez onartuko litzatekeela honako hau iradokitzea: adierazitako xedapenak ez dira autoegingarriak estu-estu”⁷.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak⁸, Erakundearen Gutunaren 55. eta 56. artikuluek ezarritako printzipioetara ere joz, *lotura estua ezartzen du eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen eraginkortasuna⁹ lortzeko obligazioaren eta garapenerako eskubidea onartzearen artean; izan ere, eskubide horren arabera, nazioarteko lankidetzaren Estatu Kide guztiak nahitaez bete behar duten teknikatzen hartzen da eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen gehieneko eraginkortasuna lortzeko*. Batzordeak adierazi du herriak garatzen laguntzeko betebeharra “horri dagokionez besteei laguntzeko moduan dauden Estatuak dagokiela bereziki”. Halaber, Batzordeak “bereziki ohartarazi du garapenerako eskubideari buruzko Deklarazioa garrantzitsua dela (Batzar Orokorra onartu zuen 1986ko abenduaren 4ko 41/128 Ebazpenean) eta beharrezkoa dela Estatu Kideek oso kontuan izatea adiera-

⁷ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 3. Behaketa Orokorra: Estatu Kideen betebehar mota, 1990, NBERen aurkibidea: E/1991/23, 5. paragrafoa.

⁸ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 3. Behaketa Orokorra: Estatu Kideen betebehar mota, 1990, NBERen aurkibidea: E/1991/23, 13. eta 14. paragrafoak.

⁹ Gaur egun Nazio Batuetako eta nazioarteko beste erakunde batzuetako giza eskubideen organo konbentzionalek ez ezik gai horretan aditua den doktrina gehienek ere modu baketsuan ulertzen dutenaren arabera, giza eskubideen eraginkortasunak eskatzen du hiru obligazio mota aldi berean hartzea kontuan: errespetatzeko obligazioa, eskubide bat gauzatzeari dagokionez ez oztopatzetzat ulertuta; babesteko obligazioa, hau da, bermatu behar da besteek ez eragozte, batez ere lege arautzailearen eta baliabide juridiko erabilgarrien bitartez, eta gauzatzeko obligazioa, hau da, beste ekintza batzuen artean, eskubideak sustatuz, eskubideak lortzea erraztuz, eta eskubideak beren kabuz baliatu ezin dituztenei eskubideak gauza daitezken bermatuz.

zitako Ebazpenean onartutako printzipio guztiak. Halaber, esan du nazioarteko laguntzarako eta lankidetzarako programa dinamiko bat abian jartzeko gai diren Estatuak programa hori abian jartzen ez badute, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak erabat gauzatzea herrialde askok bete ez duten xedea izango dela oraindik ere”.

Arestian aipatutako Garapenerako Eskubideari buruzko Deklarazioak honela definitzen du eskubide hori: “prozesu global ekonomikoa, soziala, kulturala eta politikoa, biztanleria osoaren eta gizabanako guztien ongizatea etengabe hobetzeko joera duena, garapen horretatik eratorritako alde onen bidezko banaketan partaidetza aktiboa, askea eta esanguratsua izango dela oinarri hartuta. Garapenerako eskubidea herrien eskubide kolektibo guztien funtsezko osagaitzat hartzen da¹⁰.

Azkenik, “baliabide naturalei buruzko etengabeko subiranotasunaren”, printzipioa –herriek baliabide naturalak beren lurraldeetan erabiltzeko eta baliabide horiek garapenerako eta ongizate komunerako erabiltzeko duten eskubidetzat hartuta– Batzar Orokorrak ezarri zuen 1962ko abenduaren 13ko 1.803. Ebazpenean. Ondoren, Eskubide Zibil eta Politikoei eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalari buruzko Nazioarteko Itunetan, biak 1966ko abenduaren 16koak,¹¹ berretsi zen, baita Batzar Orokorraren ondorengo Ebazpenetan ere, bereziki 1974ko maiatzaren 1eko 3.201. Ebazpenean (S-VI, bileren ezohiko aldian). Ebazpen horren titulua honako hau da: “nazioarteko ordena ekonomiko berri bat ezartzeari buruzko deklarazioa”, eta 1974ko abenduaren 12ko 3.281 Ebazpenean (XXIX). Ebazpen horretan Estatuaren Eskubide eta Betebehar Ekonomikoei buruzko Gutuna zegoen bilduta.

¹⁰ Egiatzatu behar da garapenerako eskubideak onarpen espezifikoa duela Afrikako eskualdeko sistemaren giza eskubideei buruzko oinarriko arau-testuan, Giza Eskubideei eta Herriei buruzko 1981eko Afrikako Gutuna, “Banjuleko Gutuna”. Gutun horretako 22.1 artikuluan honako hau adierazten da: “herri guztiek eskubidea izango dute beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako, beren askatasuna eta nortasuna kontuan hartuta eta gizadiaren oinordetza komuna berdintasunez gozatuz”.

¹¹ Bi Itunetako 1.2 artikulua honako hau ezartzen du: “beren helburuak lortzeko, herri guztiek beren aberastasun eta bitarteko naturalak modu librean baliatuz, elkarrekiko onuraren printzipioan eta nazioarteko eskubidearen printzipioan oinarritutako nazioarteko lankidetzaren ekonomikotik eratorritako obligazioak alde batera utzi gabe. Ezein kasutan ezin izango zaio herri bati bizirauteko bere bitarteko propioak kendu (letra etzana guk jarri dugu)”.

2. HEZKUNTZA GIZA ESKUBIDE DEN ALDETIK¹²

Vernor Muñoz Hezkuntzarako Eskubideari buruzko errelatore bereziaren txostena, 2008ko maiatza

“Hezkuntzak pertsonen bizitza, duintasuna eta segurtasuna babesteko zeregina betetzen du, eta, gainera, giza eskubide guztiak bateratzeko gunea eratzten du”

“Giza eskubideak errespetatzen dituen pertsonaren garapenean eraikitzen den jakintza kalitate txikiko jakintza da”

G8ren topaketa, Alemanian, 2007

“Guztionezko hezkuntza lortzeko konpromiso serioa hartu duen ezin herrialdek ez du bere helburuan huts egingo baliabiderik ez izateagatik”

Hezkuntzarako eskubidea

Hezkuntza funtsezko tresna da haurrak pobreziatik atera ahal izateko. Argi dago garapenerako garrantzi erabakigarria duela hezkuntza hobetzeak, eta

¹² Eranskin honetan azaltzen den informazioa honako dokumentu eta txosten hauetatik bildu da hitzez hitz:

- Hezkuntzarako eskubidea larrialdi-egoeretan, Vernor Muñoz Hezkuntzarako Eskubideari buruzko errelatore berezia, 2008ko maiatza.
- Guztonezko hezkuntzari buruzko ikuspegia, Giza Eskubideetan oinarritua (UNICEF / UNESCO).
- Garapenerako lankidetzan giza eskubideek duten ikuspegiari buruz maiz egiten diren galderak, Nazio Batuak, 2006.
- Lerroko azkena, ikasgelako azkena. Save the Children txostena, 2008.
- Giza eskubideak pobrezia murrizteko estrategietan sartzeko printzipioak eta jarraibideak. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa, 2006ko abendua.

hezkuntzak zeregin handia du pertsonak gaitzeko garaian; hortaz, egiazta dezakegu, huts egiteko beldurrik izan gabe, hezkuntzarik eza, berez, pobrezia-aren funtsezko esparru bat dela.

Hainbat Hitzarmenek eta Konbentziok hezkuntzarako eskubidea bermatu dute nazioarteko zuzenbidean, eta horrekin Hitzarmen eta Konbentzio horiek berretsi dituzten Estatuak nahitaez bete beharreko konpromisoak ezarri dituzte. Ikusi eranskin honen bukaeran hezkuntzarako eskubidea biltzen duten arauzko tresnak, ordena kronologikoaren arabera ordenatuak.

Bestalde, hezkuntzarako eskubidea gauzatzea erabakigarria da beste giza eskubide asko baliatzeko, hala nola laneratzeko eskubidea, osasunerako eskubidea eta politikan parte hartzeko eskubidea, besteak beste. Hezkuntzarako Eskubideak, hortaz, katalizatzailerik gisa jarduten du beste eskubide asko gauzatzeko.

Hezkuntzarako eskubidearen irismena

Giza eskubideei buruzko nazioarteko itunetan kalitatezko hezkuntzarako eskubidea nahiko modu zehatzean definitzen da:

- Doako eta derrigorrezko lehen hezkuntza haur guztiei eskaintzeaz gain, Estatuak doako bigarren hezkuntza (LH barne) sartu behar dute pixkanaka eta berdintasun-baldintzetan, eta goi-mailako hezkuntzan sartzeko aukera berdina izango dute gaitasunaren arabera.
- Halaber, oinarrizko hezkuntza indartu behar dute nahitaez, analfabetismoa desagerrarazteko helburuarekin, oinarrizko hezkuntza egin edo bukatu ezin izan duten helduentzat.
- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza hezkuntzarako eskubidearen oinarrizko alderdiak dira, eta Estatuak lehentasuna eman behar diote neskek eta diskriminazioarekiko kalteberak diren beste talde batzuek (haur ezinduak, haur errefuxiatuak edo gutxiengo diren taldeetakoak direnak) sartzeko aukera berdina izateari.

Puntu honetan komenigarria da adieraztea hezkuntzarako eskubidea erabat gauzatzea ez dela horretarako sarbidea izatea soilik, baizik eta irakaskuntzaren kalitatea eta hezkuntza ematen den ingurunea ere biltzen dituela. Horrela agerian geratzen da hezkuntzari buruzko ikuspegi globala izan behar dela:

- *Hezkuntzarako sarbidea izateko eskubideak* hiru elementu biltzen ditu: hezkuntza haurtzaroko fase guztietan eta haurtzaroaren ondoren ere

ematea, eskuragarri dauden behar adina eskola-plaza izatea edo ikasteko behar adina aukera izatea, eta aukera-berdintasuna.

- *Kalitatezko hezkuntzarako eskubidea*; hezkuntza horretan ikasketa-programaren edukia hartuko da aintzat, baita irakaskuntzaren izaera eta ikaskuntzaren ingurunearen kalitatea ere.
- *Errespetuarekiko eskubidea ikaskuntzaren ingurunean*. Ulertu behar da hezkuntzarako eskubidea honako hauek osatzen dutela: haurren nortasunarekiko errespetuak, haurrei eragiten dieten gai guztiei buruz dituzten iritziak adierazteko duten eskubideak eta haurren osotasun fisikoak eta pertsonalak (giza eskubideen errespetua hezkuntzan).

Estatuaren obligazioak eta obligazioen beste titular batzuen zeregina

Eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegian, Estatuak du kalitatezko hezkuntza emateko erantzukizun nagusia. Adierazi behar da giza eskubide batzuk gauzatzea baliabide gutxi izateak mugatzen badu ere, horrek ez duela Estatuak, giza eskubideen alorrean, nazioartean dituen obligazioez eta eskubide horiek gauzatzen direla bermatzeko arrazoizko neurri egokiak hartzeaz –dauden gehieneko baliabideak gehienez ere– salbuesten.

Haur guztientzako hezkuntzarako eskubidea abian jartzen dela bermatzeko Estatuak *hiru obligazio mota dituzte*:

1. Hezkuntzarako eskubidea *gauzatzea*, haur guztien eskura jarriz eta hezkuntza haur guztientzat mesedegarri izan dadin behar diren neurriak hartzen direla zainduz.
2. Hezkuntzarako eskubidea *errespetatzea*, haurrei irakaskuntzarako sarbidea eragotziko dien ekintza oro saihestuz.
3. Hezkuntzarako eskubidea *babestea*, gizabanakoek edo komunitateek jartzen dituzten trabak kentzeko behar diren neurriak hartuz.

Izan ere, ingurune politiko eta ekonomiko egokia sortzea, lege-esparru sendoa ezartzea eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza-politikak garatzea behar diren baldintzak dira hiru obligazio horiek betetzeko irakaskuntzarako sarbiderako eskubideari, irakaskuntzaren kalitateari eta giza eskubideak hezkuntzan errespetatzeari dagokionez.

Beraz, Estatuak, giza eskubideei buruzko itunetako parte-hartzaile diren aldetik, hezkuntzarako eskubidea errespetatu, babestu eta asebetu behar dute nahitaez, baita hori egiteko derrigorrezkoa den gaitasunik ez badute ere. Horretaz gain, pertsona bakoitza hezkuntzarako eskubidearen subjektua da,

bere estatus juridiko partikularra kontuan izan gabe, hau da, errefuxiatua, haur soldadua edo barne-desplazatua den kontuan izan gabe.

Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsalaren 26. artikuluan azaldu zen doako eta derrigorrezko lehen hezkuntzarako eskubidea. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Itunaren 13. artikuluan eskubide horri irismen zehatzagoak ezarri zizkion lehen hezkuntza jaso edo bukatu ez dutenek hezkuntza eskuratu ahal izatea eskatzen baita. Lehenengo neurri gisa, Estatu Kideek hori berresten denetik hasi eta bi urteko epean honako hau hartu beharko dute adierazitako itunean: guztiontzako derrigorrezko eta doako irakaskuntzaren printzipioa pixkanaka ezartzeko ekintza-plan zehatz bat.

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak honako honetara behartzen ditu Estatuak: estatu horietako lurraldeetan bizi diren haur guztiek hezkuntzarako sarbidea izango dutela, inolako diskriminaziorik gabe, bermatzera. Konbentzioaren 28. artikulua doako eta derrigorrezko lehen hezkuntza sustatzen du, Estatuak bigarren hezkuntza eskuraeraza eta beste hezkuntza modu batzuk garatzera bultzatzen ditu; horretaz gain, hezkuntza-gaietan nazioartean lankidetzan jardutea sustatzen du.

Bestalde, Konbentzioaren 22. artikulua arabera, Estatuak bermatu behar dute babes eskatzen duen haur batek behar bezalako babes eta laguntza humanitarioa jasoko duela eta Konbentzioan biltzen diren eskubide guztiak baliatuko dituela. Horrek honako obligazio hau ere biltzen du: hezkuntzan berehalako eta erabateko sarbidea izango dela eta hezkuntza-sistema erregularrean azkar txertatuko dela aurreikustea¹³.

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioarekin bat etorritik, haur errefuxiatuek tratu bera jaso behar dute haur nazionalen ematen zaien oinarritzko hezkuntzari dagokionez (22. artikulua).

Nazioarteko eskubide humanitarioak, halaber, arau-esparrua ezartzen du. Esparru horrek hezkuntzarako eskubidea babesten du gatazka armatuetan. Genevako IV. Hitzarmenak hezkuntzarako eskubidea bermatzen du, eta 1977ko Genevako Hitzarmenei erantsen zaien Protokolo gehigarriaren (nazioartekoak ez diren gatazkei aplikatzen zaie –eta hortaz, egun garrantzi handiagoa du estatutukoak ez diren talde armatuen ekintzak biltzen baititu–) 4. artikuluan azaltzen da hezkuntzarako eskubidea bermatu behar dela derrigorrez.

Garrantzi berezia du Nazioarteko Gorte Penalaren Erromako Estatutuaren 8. artikulua; izan ere, artikulua horrek berresten du hezkuntzarako erabiltzen di-

¹³ 6. Ohar orokorra, inoren kargura ez dauden eta beren jatorriko herrialdetik kanpo beren familietatik bereizita dauden adingabeen tratuari buruzko.

ren eraikinen aurkako erasoak gerra-krimenak direla, eta, hortaz, Auzitegiaren jurisdikzioaren eraginpean daudela.

Nolanahi ere, Estatuak ezin dituzte hezkuntzari buruzko obligazioak bete beste solaskide askoren (gurasoak, familia handiko kideak, irakasleak eta tokiko politikoak) zuzeneko partaidetzarik eta babesik gabe, nahitaezkoa da gurasoek, familiek eta komunitateko kide guztiek kalitatezko hezkuntzarako eskubidearen kontzeptua ulertzea eta bere egitea.

Era berean, nahitaezkoa da kontuan izatea haurren bizitzan parte hartzen duten solaskide batzuek eragozpenak jar diezazkioketela hezkuntzarako eskubideari. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren nahitaezko dimentsioa solaskide horiekin lan egitea izango da hezkuntzarako sarbidea eragozten duten trabak kentzeko.

Gida honetan deskribatu denaren arabera, eskubideen titularren eta be-beharren titularren arteko harremana giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren funtsezko osagaia da. Nolanahi ere, egia da doktrinaren zati handi batek Estatuaren obligazioak soilik aitortzen dituela, baina Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunak eta Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunak interpretazio zabalago bat babesten dute dagozkien hitzaurretan honako hau adierazten baitute: “onartzen dugu gizabanako bakoitzak, beste gizabanakoekiko eta partaide diren komunitatearekiko obligazioak dituzenez gero, itun honetan aitortzen diren eskubideak sustatzearen eta betetzearen aldeko borroka egiteko erantzukizuna du”.

Azkenik, Nazioarteko Komunitatea partaide garrantzitsua izan daiteke eta izan behar du hezkuntzarako eskubidea gauzatzeari dagokionez, gobernuen nahiz gizabanakoaren gaitasunak sortzeko laguntza eman baitezake. Ez gara obligazio moral edo politikoei buruz soilik mintzo; benetan gauzatu behar diren obligazio juridikoez hitz egiten ari gara, eta obligazio horietan nazioarteko lankidetzaren tartean sartuta dago, inolako zalantzarik gabe.

Nazioarteko lankidetzaren Nazio Batuen Gutunaren helburuetan azaltzen da, bereziki 1. artikuluan 3. paragrafoan biltzen den helburuan. Nazioarteko lankidetzaren eta laguntza ere ezarrita daude giza eskubideei buruzko nazioarteko tresnetan: Deklarazio Unibertsalaren 28. artikuluan, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunaren 2.1 artikuluan. Era berean, nazioarteko lankidetzaren garapenerako eskubideari buruzko Deklarazioaren (1986an onartu zen) gai nagusia da. Azkenik, giza eskubideei buruzko nazioarteko azken konbentzioetan, hala nola ezinduen eskubideei buruzko Konbentzioan. Konbentzio horretan bereziki nazioarteko lankidetzari buruzko artikulua bat dago.

Laburbilduz, obligazio perfektuei eta inperfektuei buruzko teoriak aipatu behar dira, garrantzizkoak direlako. Amartya Senek erabili zituen teoria horiek Kanten kontzeptuak aipatuz. Estatu Kideek eskubideak gauzatzeko obligazio perfektua dute. Programak egin ditzakete, beste arau-xede batzuetako baliabi-deak berreslei ditzakete eta eskubide horiek egiteko eskatzen bazaie kolaboratzeko obligazioa duten gizarteko gainerako agenteen obligazio inperfektuak aipa ditzakete; hortaz *“laguntzeko moduan dauden guztiei eska dakizkieke”*.¹⁴

Jomugak eta funtsezko adierazleak hezkuntzarako eskubidea gauzaten dela bermatzeko

- 1. jomuga: haurrentzako lehen hezkuntza unibertsala lehenbailehen lortzea, baina 2015ean beranduenez.

Adierazleak

- Matrikula-tasa garbia lehen irakaskuntzan
- Lehen maila hasten duten eta bosgarren mailara iristen diren ikasleen proportzioa
- Alfabetatze-tasa 15-24 urteko taldean
- Eskola-uzte tasa eta asistentzia-tasa lehen hezkuntzako eskoletan
- Gastu publikoaren proportzioa lehen hezkuntzan

- 2. jomuga: haur guztiei doako lehen hezkuntza ematea

Adierazleak

- Lehen hezkuntzako eskola publikoetan matrikularik ordaintzen ez duten ikasleen proportzioa.
- Lehen hezkuntzako eskola publikoetan ikasleek ordaindutako matrikulen batez bestekoa.

- 3. jomuga: derrigorrezko lehen hezkuntza egitea

Adierazleak

- Derrigorrezko eskola-urte kopurua

- 4. jomuga: analfabetismoa desagerraraztea

Adierazleak

- Helduen alfabetatze-tasa globala

¹⁴ Amartya Sen, “Desarrollo y Libertad”. Planeta 2000

- 15-25 urteko taldearen alfabetatze-tasa
- 5. jomuga: bigarren hezkuntzarako sarbidea guztiek izan dezaten lortzea
Adierazleak
 - Pobrean eta pobreak ez direnen matricula-tasa bigarren hezkuntzan
 - Gastu publikoaren proportzioa bigarren hezkuntzan
 - Bigarren hezkuntzan dagoen neska kopurua mutil kopuruarekin alderatuta
 - Eskola-uzte tasak eta asistentzia-tasak bigarren hezkuntzan
 - Bigarren irakaskuntzara joaten diren haur ezinduen proportzioa
- 6. jomuga: haur guztiei doako bigarren hezkuntza ematea
Adierazleak
 - Matrikularik ordaintzen ez duten ikasle pobreen eta pobreak ez diren ikasleen proportzioa Estatuko bigarren hezkuntzako eskoletan
 - Estatuko bigarren hezkuntzako eskoletan ikasleek ordaintzen dituzten matriculen batez bestekoa
- 7. jomuga: gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna desagerraraztea lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan
Adierazleak
 - Neska kopuruaren eta mutil kopuruaren arteko erlazioa lehen mailako hezkuntzan
 - Bigarren hezkuntzan dagoen neska kopurua mutil kopuruarekin alderatuta
 - Alfabetatutako emakume kopuruaren eta alfabetatutako gizon kopuruaren arteko erlazioa 15-24 urtekoen taldean
- 8. jomuga: lehen hezkuntzaren eta bigarren hezkuntzaren kalitatea hobetzea
Adierazleak
 - Ikasle kopuruaren eta irakasle kopuruaren arteko arrazioa
 - Irakasle kopuruaren eta ikasgela kopuruaren arteko arrazioa
 - Testu-liburuak dohainik jasotzen dituzten lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleen proportzioa

Arauen arloko tresnak

HITZARMENAK ETA KONBENTZIOAK

- Genevako lau Hitzarmenak, 1949koak, (bereziki 24., 50., 94. eta 108. artikulua, gatazka-egoeretako eta okupazio-egoeretako hezkuntzari buruzkoak).
- LANEren 111. Hitzarmena: Diskriminazioari (enplegua eta okupazioa) buruzko hitzarmena, 1958
- Arraza Diskriminazio mota oro Desagerrarazteari buruzko Nazioarteko Hitzarmena, 1965
- PIDESC, 1966
- PIDCP, 1966
- UNESCOren Konbentzioa, Irakaskuntzaren Eremuan dauden Diskriminazioen aurkako Borrokari buruzkoa, 1966
- LANEren 138. Hitzarmena: Gutxieneko adinari buruzko hitzarmena, 1973
- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa, 1979
- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagertzeari buruzko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa, 1979
- UNESCOren konbentzioa, Irakaskuntza Tekniko eta Profesionalari buruzkoa, 1989
- LANEren 169. Hitzarmena, herri indigena eta tribalei buruzko Hitzarmena, 1989
- Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989
- Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren hautazko protokoloa, haurren salmentari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari buruzkoa, 2000
- Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren hautazko protokoloa, haurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzkoa, 2000
- Langile migratzaile guztiak eta horien familiak babesteari buruzko nazioarteko konbentzioa, 1990
- LANEren 182. Hitzarmena: Haurren lan mota okerrenei buruzko Konbentzioa, 1999
- UNESCOren Konbentzioa, Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babes-

teari eta Sustatzeari buruzkoa, 2005

- Ezinduen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 2006
- PIDESCen hautazko protokoloa, 2008

DEKLARAZIOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZA PLANAK

- Giza eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsala, 1948 (26. artikulua)
- Larritasun-egoeran edo gatazka armatuaren egoeran dauden emakumeak eta haurrak babesteari buruzko Deklarazioa, 1974
- Guztiontzako Hezkuntzari buruzko Mundu Deklarazioa: ikasteko oinarritzko premiak asebetetzea, 1990
- Vienako Deklarazioa eta ekintza-programa, Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia, 1993
- Ekintza Plana. NBen hamar urtekoa Hezkuntzarako Giza Eskubideen esferan, 1995
- Deklarazioa eta Ekintza integratu Plana, Bakerako Hezkuntzari, Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzkoa, 1995
- Beijingeko Deklarazioa eta Ekintza Programa, 1995
- Salamancako Deklarazioa eta Ekintza Esparrua Hezkuntza Premia Bereziarako, 1995
- Dakarreko Ekintza Esparrua – Guztiontzako Hezkuntza: gure konpromiso komunak betetzea, 2000
- Milurteko Deklarazioa, 2000
- ODM, 2000
- Beijing + 5eko emaitzen dokumentua
- Arrazakeriari, arraza-diskriminazioari, xenofobiari, eta intolerantziako modu lotuei buruzko Mundu Konferentziako Ekintza Plana, 2001
- NBEetako Batzar Nagusiaren Bilera Berezia: haurrentzako mundu egokia, 2002
- NBen elkar ulertzeari buruzko Deklarazioa, giza eskubideetan oinarritutako garapenerako programazioaren ikuspegiari buruzkoa, 2003
- Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Mundu Programa, 2004
- Amsterdameko Deklarazioa, hezkuntzarako eskubideari eta hezkuntzan dauden eskubideei buruzkoa, 2004

- Nazio Batuak: 2005eko Munduko Goi-bileren emaitzak
- Jakartako Deklarazioa, hezkuntza izateko eskubidea oinarritzko giza eskubidetzat aitortzeari eta hezkuntza horren finantzazioaren esparru juridikoari buruzkoa, 2005
- Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Pariseko Deklarazioa: eskuratzea, bateratzea, lerrokatzea, emaitzak eta elkarrekiko erantzukizuna, 2005
- Beijing +10eko Deklarazioa, 2005

3. GIZA ESKUBIDEAK POBREZIA MURRIZTEKO ESTRATEGIETAN SARTZEKO PRINTZIPIOAK ETA JARRAIBIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIO BATUEN GOI KOMISARIOAREN BULEGOA¹⁵.

Giza eskubideen arau-esparruaren ezaugarriarik nabarmenenek modu batean edo bestean lagun dezakete pobreak trebatzen: unibertsaltasunaren printzipioak, diskriminaziorik eza eta berdintasuna, prozesu erabakitzaile parte-hartzaileen printzipioa, kontuak emateko ideia eta eskubideen interdependentzia onartzea.

Berdintasuna eta diskriminaziorik eza giza eskubideei buruzko nazioarteko araudiaren funtsezko elementuen artean azaltzen diren printzipio bikiak dira. Printzipio horiek onartzeak agerian jartzen du pobrezia zati handi baten jatorria jardunbide diskriminatzaileetan dagoela, eta horregatik, pobrezia murrizteko estrategiak berriz bideratu behar dira.

Hortaz, irismen mugatuko gai ekonomikoak aintzat hartzeko joeraren orde, estrategia zabalago bat aplikatu beharko da, egitura diskriminatzaileei eutsiko dieten instituzio soziokulturalak eta politiko juridikoak ere hartuko dituen estrategia, hain zuzen ere.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegian, erantzukizuna dutenek pobrezia murriztearen alde lan egin behar dute, baina onartzen da baliabideen mugak direla medio, giza eskubide batzuk, batzuetan, ezin izango direla denbora-tarte batean egin. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak, ordea, hainbat **baldintza** jartzen ditu **pobreak babesten dituzten lehentasunak ezartzeko garaian**.

¹⁵ *Giza eskubideak pobrezia murrizteko estrategietan sartzeko printzipioak eta jarraibideak* (HR/PUB/06/12,2006)

Pobrezia murrizteko aurretik hartutako irizpideek ez bezala, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegian garrantzi bera ematen zaie garapen-jomugak lortzea ahalbidetzen prozesuei eta jomugei. Bereziki, nabarmentzen da garrantzizkoa dela **pobreen partaidetza** bermatzea estrategiak egiterakoan, aplikatzerakoan eta zaintzerakoan. Partaidetza erabilgarria da bai beste helburu batzuk lortzeko bitarteko gisa, bai berez baliatu behar den funtsezko giza eskubide gisa. Baztertutako kolektiboen partaidetza eraginkorrak eskatzen du erabakiak hartzeko prozesuaren maila desberdinetan mekanismo eta konponbide espezifikoak izatea pobrezian bizi direnek eta orokorrean talde marjinatuek komunitateko bizitzan benetan parte hartzeko aurkitzen dituzten trabak gaunditzeko.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzen badugu pobrezia murrizteko, **kontuak emateak** duen garrantzia ere nabarmentzen da. Eskubideek betebeharrak dituzte berekin, eta eskubideek, kontuak emateko obligazioa. Hortaz, instituzioek eta kontuak ematen direla bermatzeko tresna juridikoak eta administratiboak pobrezia murrizteko estrategia orotan txertatuta egon behar dute. Nahiz eta ardura duten erakundeei dagokien beren kasu partikularrean kontuak emateko zer mekanismo diren egokienak erabakitzea, mekanismo guztiek eskuraerazak, gardenak eta eraginkorrak izan behar dute.

Kontuak ematea giza eskubideen ikuspegiarekin estuki lotuta dagoenez gero, gure esku-hartzeek honako bi alderdi hauek edo bi horietakoren bat eduki beharko dute: a) erakunde arduradunek, beharbada, zer esferatan bildu beharko duten erabakitzen laguntzea; b) Eskubideen titularrek kontuak ematea eska dezaten ahalbidetzea.

Oro har, kontuak emateko lau mekanismo mota daude:

- Judiziala, hau da, betearazteko ekintzen eta ez-egiteen azterketa judiziala;
- Kuasi-judiziala, esate baterako, defendatzaile ofizialaren instituzioa edo *Ombudsman* eta giza eskubideen nazioarteko itunen arabera sortutako organoak;
- Administratiboa, hau da, giza eskubideei buruzko eraginaren ebaluazioa prestatzea, argitaratzea eta aztertzea;
- Politikoa, hau da, parlamentu-prozesuak

Kontuak emateko mekanismoek kalte-ordaina eman behar dute giza eskubideen urraketa kasuetan. Pertsonak Estatuak onartu dituen benetako giza eskubide batzuk dauzkate, baita pertsona horien giza eskubideak urratzen direnean barne-jurisdikzioko organo baten aurrean errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubide formala ere.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren beste berezitasun bat honako hau da: pobrezia murriztea **erantzukizun partekatu** bihurtzen da. Nolanahi ere, Estatua da bere jurisdikziopean dagoen biztanleriaren giza eskubideak babesten ote diren zaintzeko lehen arduraduna, beste Estatu batzuk eta estatuetakoak ez diren agenteak ere giza eskubideak baliatzen edo, gutxienez, ez urratzen laguntzera behartuta daude.

Giza eskubideen nazioarteko esparruan pobrezia murrizteko estrategien irismena ere handitzen da **eskubideen interdependentzia** onartuz. Pobrezia batez ere eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalekin lotuta dagoela dirudien arren, giza eskubideen esparruak agerian jartzen du eskubide horiek baliatzea eskubide zibilak eta politikoak baliatzearen arabera izan daitekeela batez ere.

Hortaz, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak okerreko ideia hau eze-reztu egiten du: eskubide eta askatasun zibilak eta politikoak aberats samarrak diren gizarteek soilik eduki ditzakete, eta eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak asmoak dira soilik, ez, ordea, obligazio lotesleak.

BIBLIOGRAFIA

- BIRGIN Haydée, FAUR Eleonor y BERGALLO Paola: “Un marco conceptual de los derechos humanos para la programación de UNIFEM”, Fondo de Desarrollo de las NNUU para la mujer, mayo de 2003.
- CASTILLO DAUDÍ, Mireya, “Derecho Internacional de los Derechos Humanos”, Ed. Tirant Lo Blanch, 2006.
- COORDINADORA DE ONG PARA EL DESARROLLO – ESPAÑA, “Coherencia de políticas para el desarrollo, una agenda inaplazable”, junio 2010.
- COURTIS Christian: “Apuntes sobre la elaboración y utilización de indicadores en materia de derechos económicos, sociales y culturales”, Universidad de Buenos Aires, 2010.
- Declaración y Programa de Acción de Viena*, Conferencia Mundial de Derechos Humanos, celebrada en Viena, 14 a 25 de junio de 1993.
- El último de la fila, el último de la clase. Cómo los países donantes pueden apoyar la educación de los niños afectados por conflictos armados y emergencias*, Save the Children, 2008.
- IIDH – Instituto Interamericano de Derechos Humanos, *Derechos Humanos de las Mujeres, guía práctica*, NORAD, 2000.
- Informe del Relator Especial sobre el Derecho a la Educación, Sr. Vernor Muñoz, “El derecho a la educación en situaciones de emergencia”, mayo 2008.
- LAHOZ, Carmen y DE LOMA-OSSORIO, Enrique, “El derecho a una alimentación adecuada – Guía para diagnósticos rápidos”, Instituto de Estudios del Hambre/ ActionAid, 2008.
- Informe sobre los indicadores para promover y vigilar el ejercicio de los derechos humanos*. NU. Doc. HRI/MC/2008/3, de 15 de mayo de 2008.

- NACIONES UNIDAS, “Indicadores de derechos humanos. Guía para la medición y la aplicación”, Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos, 2012.
- NACIONES UNIDAS, “Preguntas frecuentes sobre el enfoque de derechos humanos en la cooperación para el desarrollo”, Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos, 2006.
- NACIONES UNIDAS, “Principios y directrices para la integración de los derechos humanos en las estrategias de reducción de la pobreza”, Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos, 2006.
- PLATAFORMA 2015 Y MÁS e IUDC-UCM, “La incorporación del Enfoque Basado en Derechos Humanos en las políticas públicas de Cooperación para el Desarrollo: implicaciones para el caso español”, AECID, 2011.
- “Principles into Practice. Learning from innovate rights-based programmes”, CARE International UK, September 2005.
- “PRINCIPALES Tratados Internacionales de Derechos Humanos”, Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos, 2006.
- Un concepto más amplio de la libertad: desarrollo, seguridad y derechos humanos para todos.* NU.Doc. A/59/2005, de 21 de marzo de 2005.
- UNESCO, “Los principales instrumentos internacionales”, 2010.
- UNESCO / UNICEF, “Un enfoque de la educación para todos basado en los derechos humanos”, febrero 2008.
- VILLÁN DURÁN, Carlos: “Curso de Derecho Internacional de los Derechos Humanos”, Trotta, 2006